



ttipi-ttapa



INAUTERIAK gehigarria / 27



LITERATURA BELTZAREN HITZORDUA BAZTANEN

Ilbeltzaren 14an hasiko da (H)ilbeltza, Euskal Nobela Beltzaren Astea Baztanen. Hainbat lan aurkeztuko dituzte. / 43

(H)ILBELTZA

Euskal literatura eta musikagintza

2018an liburu edo disko bat argitaratu zuten eskualdeko zazpi musikari eta idazlerekin bildu da TTIPI-TTAPA. / 8

**XII. Mendiaren
Eguna ospatuko
dute urtarrilaren
12an Beran** / 12

**Mugikorreari begira
egokitua eta
berrikuntzekin dator
ERRAN.EUS ataria** / 37

SINADURAK



JON
BARBERENA
IBARRA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



ALAITZ
ESKUDERO
BERGARA / 4



MIKEL
TABERNA
IRAZOKI / 4



ZOKKETA / 60

[yonolotiro.es]

Zirkulatu ezazu.



yonolotiro.es. Zure berrerabilpen-webgunea

Sustatzaila



Oficina de Prevención de Residuos y de Impulso a la Economía Circular
Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoa

Nafarroako Gobernua Gobierno de Navarra

Nafarroako Esporazuzen Kudeatzailea S.A. Gestión Ambiental de Navarra S.A.

residuos de navarra nafarroako hondakinak

Laguntzailea



berako agenda
e.eus



Urtarrila

berako agenda

Ekitaldien gainerako informazio gehiago: 948 012 012 telefonon edo www.berakoagenda.eus



05 LARUNBATA
EKITALDIA ERREGE KABALGATA

15:30 Erregeen pajeak herriko karriketan barna ibiliko dira gutunak biltzen
18:30 Errege Kabalgata (Ibilbidea: Itzea auzotik Herriko etxeko plazara) (eguraldi txarra eginez gero, Etegarara pilotalekuan 19:00etan)

12 LARUNBATA
MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA

10:30-13:30
Ricardo Baroja eskolako arkupeetan




12 LARUNBATA
AISIALDIA MENDI EGUNA

Eskalada tailerra, Santa Barbarara ibilaldi gidatua, binakako kronoigoera, dokumentalak Kultur Etxean...

18 ORTZIRALEA
HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIAK AMATXIREN ISTORIOAK (AMAILA ELIZAGOTEN)

18:00 Herri liburutegian
Iraupena: 60 min.



26 LARUNBATA
KONTZERTUA LEIHO BAT ZABALIK (JABIER MUGURUZA)

19:30 Kultur Etxean
Sarrera: 8 €
Iraupena: 80 min.
Gitarra elektrikoa: Ander Mujika



27 IGANDEA
MAGIA IKUSKIZUNA BALIO MAGIKOAK (OLIVER MAGOA)

17:00 Kultur Etxean
Sarrera 6€
Argibide gehiago: www.magooliver.com

MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIK

21 ASTELEHENA
GITARRA ENTZUNALDIA
18:00 Musika eskolan

22 ASTEARTEA
HAIZE-INSTRUMENTU ENTZUNALDIA
18:00 Musika eskolan

28 ASTELEHENA
TXISTU ENTZUNALDIA
18:00 Musika eskolan

29 ASTEARTEA
PERKUSIO ENTZUNALDIA
18:00 Musika eskolan

Antolatzailea: Isidoro Pagoaga Musika Eskola



NIRE TXANDA

JON BARBERENA IBARRA

Desertuko barraskiloak

Franko hil, eta hautsez estalitako desertu idorrean ibiltzerat ohitu ziren nafar euskaldunon zango-zolak berrogei urte luzez. Urte zailak izan ziren eskaini zizkigutenak, baina 2015. urteko hauteskundeek aldaketa ekarri zuten Nafarroa Garairat. Maiz, antsiaz, aldaketa sakonagoak aldarrikatzen ditugu, baina oinarrian, aldaketa eman dela begi-bistakoa da.

Urte erabakiorra izanen da hasi berri dugun hau. Maiatzean hauteskundeak izanen ditugu berriz ere, eta iduritzen zait desertua eskaini zigutenak inoiz baino bekaiztiago eta asegaizago dabiltzala orain.

«URTE ERABAKIORRA IZANEN DA HASI BERRI DUGUNA»

Behin, klima beroko barraskiloak hiruzpalau urtez lo egin dezaketela leitu nuen. Ez nuke animalia horien lo egiteko bertutea desiratu nahi maiatzeko hauteskundeetako emaitzak ikusi eta gero. Goxatzen hasiak diren zango-zoletako zauriei begiratzea ez letorkiguke gaizki suzko legarra nolako zen oroitzeko.



EZPALA

AITOR AROTZEN AIBIZU

Isiltasuna memoriaren etsai

Lanari esker ezagutzeko suertea izan nuen eta memorian iltzatua gelditzen den esaldi horietako bat aditu nion: 'Memoriaren etsaia ez da denbora, isiltasuna baizik'. Urte zaharrarekin batera hil zen Paco Perez Luserreta, Gernika bataloiko azken gudaria. Beran iaz egindako omenaldiak eraman zituen berekin, baina gudan ez da inoiz isilduko.

NABARMENTZEKOAK

PELLO
APEZETXEA
SARITUAMANUELA
IBARROLA
EHUN URTE

TTIPI-TTAPA Fundazioko presidente ere baden Pello Apezetxea Zubiri etnografo, etnologo, idazle, Etxalarko apez eta ohorezko euskaltzainak Txondorra Saria jaso zuen abenduaren 21ean Iruñeko Udaletxean.

Joan den azaro hondarrean ehun urte bete zituen Beintza-Labaiengo Manuela Ibarrolak. Bederatzi senideren artean bosgarrena, Beintzako Mendikoetxean sortu zen eta bertan bizi da oraindik.

ATZERA BEGIRA



2009-01-01 · TTIPI-TTAPA · 485 zk.

Artzaintzatik bizi nahi eta ikasten

Duela hamar urte, Arantzazuko Artzain Eskolan artzain ikasketak egiten ari zen Arkaitz Vicente sunbildarra elkarriketatu zuen TTIPI-TTAPAK. Artzaintzatik bizitzea gustatuko litzaiokeela onartu zuen, nahiz eta «hagitz lan lotua» dela adierazi. Hala ere, gaineratu zuenez, «Artzain Eskolan, denbora libre gehiagorako aukera eman dezakeela ikusten ari naiz, eta artzaintza tradizionala eta modernoa konbinatuz, hortik bizitzea posible dela». Gisa berean, aipatu zuenez, «tresneria berriei denbora optimizatzen saiatzen dira, ahalik eta denbora guttienean ardiei jatera eman edo jezten. Bizi kalitate hobea izateko aukera ematen du horrek».

erran.
Mendialdeko Albisteak

Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Kontaktok bidea, 7 - 1.
31700 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Markel Lizasoain,
Fermin Etxekolonea, Fernando
Etxeberria, Mattin Larraide, Juan
Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga
Erdozain, Maitane Maritorea,
Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio,
Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo,
Nerea Mortalena, Virginia Oteiza,
Pierre Bastres, Ainhoa Asitz, Itxaso
Arizmendi, Xabier Maritorea,
Maialen Iantzi, Jaione Mindegia,
Olaz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apezetxea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarteak

2018ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	37€
Leitza	24€
Hego Euskal Herria	43€
Ipar Euskal Herria, Europa	77€
Amerika eta Australia	130€





KOLABORAZIOAK

MIKEL TABERNA IRAZOKI

Josu Goia kantari

Laino artean gorde dit iduria memoriak: mutiko koxkorrak ginen, hamaika-hamabi-hamahiru urtekoak, gurasorik gabe etxetik kanpora norabait joanak, oihalezko etxola batean gaua pasatzea zer zen lehenbiziko aldiz ikasiko genuenak. Otorduak prestatzea, toki ezezagunak deskubritzea, naturan eta lagun artean bizitzea... dena zen berria guretzat. Gu baino urte batzuk gehiago zituztenak genituen bide-erakusle, eta haien artean Josu Goia, guzien buru. Hasieran eskaut taldea ginen, baina gero erakunde horretatik 'eskautu' gu: gazte taldea bertzerik ez. Etxalar aldeko baserri batean, Sakanako Urdiainen, Huescako Panticosan... Ez dakit zenbat ateraldi izan ote ziren, ezta zenbat urtez ere.

Iluntzean, lo-zakuetara sartu aitzineko tartea polita izaten zen. Arbazta batzuk bildu, toki xelai samar bat bilatu, hantxe sua biztu, eta denak inguruan jartzen ginen, borobila eginez. Orain ahortziak ditudan josteta eta txorakerietan ibiliko ginen segur aski, baina badira bertze kontu batzuk nire baitako

**«EZ ZEN GELDIRIK
EGOTEKO JAIO ETA
BERE SEINALEA
UZTEN SAIATU ZEN»**

nonbait betikoz josiak gelditu zaizkidanak. Josuk gitarra hartu, eta kantatu egiten zigun. Orduan ikasirik, oraindik ere noiznahi gustatzen zait *Gallo negro, gallo rojo* kantatzea. Berezia zen *Débil luz en la vega...*

hasten zena, *Río Bravo* filmean Dean Martinek kantatzen duen *My rifle, my pony and me* ederraren gaztelaniazko bertsioa. Hirugarren bat ere aipatuko nuke, *O benuno*, Afrikako erdialdeko herri kanta ezaguna bide dena.

Urte haietan, Legia karrikan Lagun Etxea soziedade gisakoa plantatu zuen elizak. Etxe haren gibleko partean, baratzeria ematen zuen beheitian, txoko polit bat prestatu genuen ibilaldi haietan juntatzen ginenek. Ez dakit gerora zer pasatu zen bi biltoki haiekin.

Gauza aunitz konta daitezke joan berria zaigun Josuz, hildako guziez bezala, alde eta kontra, inork ez baitugu denen gustuko musika jotzen: bakoitzak zer bizitu genuen harekin, nolako harremana izan zen, harengandik harturiko ona gailentzen den edo hark eraginiko hondar samina sentitzen ote dugun. Zeren, ez baita ukatzen ahal, alafedea, ez zela geldirik egoteko jaio eta saiatu zela bere seinalea uztera herrian eta inguratzen zuen jendearen baitan.

Niri gaxte denborako esperientzia haiek etorri zitzaizkidan burutara, hain zuzen ere, urriaren 22an, eliza barreanean ginela gure amaren aldeko hileta mezan. Beti bezala, Josu organista aritu zen. Berako abesbatzak zoragarri lagundu zion. Halako batean, a capella hasi zen bera bakarrik. Ezagun zuen ezongi zegoela, boza kraskatua atera baitzitzaion, baina sentimendu bete adierazten zuen. Despedidako kanta bat zen, 'Agur' erraten zion gure hilari. Hala ulertu genion. Ez ginen ohartu denoi ari zitzaigula 'adio' erraten. Handik hamabi egunetara hil zen bera. Dagoen tokian dagoela, ariko da, dudarik ez dut egiten, gitarraren sokei kilika egiten eta kantari.



ALAITZ ESKUDERO BERGARA

Urte aldaketa edo aldaketa urtea?

Urte berria hasi orduko, joandako urte bukaeran egindako zerrendari begirada bota dio; mahats bakoitzeko promesa bat: Kirol gehiago egin, Yogako klaseetan izena eman (eta hauetara joan, noski), ingelesa ikasi, bidaiatu... dozena bat, alajaina! Zer borondate eta asmo on pila!

Duela hilabete batzuk mugikorretako pantailari begira malkoren bat isuri zuen Ruaviejako spot sonatu hura ikusitakoan. Zin egin zion urte berrian denbora gehiago eskainiko ziola lagunekin egoteari, eta halaxe idatzi zuen kuadrillako Whatsapp taldean: "elkartu behar dugu!" baina oraindik ez du tarterik hartu beraiekin planen bat egiteko. Hain lanpetua dago!

Urteak daramatza urte berriko asmo oneko zerrendak egiten, baina oporrak eta ospakizunak bukatu bezain pronto, koaderno zaharren batean ahaztuta gelditzen zaizkio promesak. Eguneroko errutinan murgilduta, pilotu automatikoa jarri eta egunerokotasuna pentsatu gabeko

**«ALDAKETAK LORTU
NAHI BADITU, ORDEA,
BARRUTIK ETORRI
BEHARKO LUKETE»**

ekintza zerrenda zurrumbiloaz beteko du. Ez dago guztiz gustura, baina zergatik aldatu? Azken finean, horixe da hobekien ezagutzen duena: bere eskubideak bermatzen ez dizkion nagusia, lanerako bidean egunero topatzen

dituen auto-ilarak, bikotekidearekin aldiro izaten dituen eztabaidak eta eguna denari buruz kezkatzen pasatzen duen laguna. Ez dira onenak, baina txarrak ere ez. Konformatzean dago gakoa.

Akaso konfort-gune (konformatze-gune) horretatik atera eta zirt edo zart egingo balu, ohartuko litzateke, bizitzak sorpresa asko dituela gordeta. Ezaguna dugunetik haratago, ametsak egia bihurtzeko tresnak topa daitezkeela. Bidaiatu, jende eta kultura berriak ezagutu, tarteka beldurra sentitu eta hau gaintitzeak, hazi eta hezi egingo duela, pertsona nahiz gizarte aberatsagoak lortzeko. Aldaketak lortu nahi baditu, orde, hauek barrutik etorri beharko dute, eguneroko ekintzetan ematen diren eraldatze ttikietatik.

Urtea joan eta urtea etorri promesa zerrenda berarekin segitu edo urtetik urtera zerrenda berritu, hortxe dago koska. Lehengoan segitu edo aurrera egin.

Eta zuk? Urtea soilik zenbakiz aldatzen ikusi nahi duzu, edo zerorrek aldatuko duzu zure urtea?

11 GALDERA LABUR

IÑAKI ROTETA ONECA ARANON BIZI DEN DONOSTIARRA

«Yogak onura fisikoak, emozionalak eta mentalak dakartza»

Aurkeztu zure burua.

49 urteko donostiarra naiz. Lau urte inguru daramatzat Aranon, emaztea eta hiru seme-alabekin. Osteopata naiz lanbidez.

Nolatan jo zenuten Aranora?

Nire emaztearen arbasoak aranoarrak dira eta ni ere txikitik izana nintzen. Aukera sortu zenean, gehiegi pentsatu gabe etorri ginen.

Aldaketan zer izan zen zailena?

Etxea egokitzea, ez baitzegoen baldintza onenetan; obra egin da, dena erraza izan zen.

Zer zaletasun dituzu?

Lagunekin eta familiarekin egiten diren gehienak: kirola, mendian ibiltzea, herrikoekin garagardo batzuk hartu eta afaritxo bat egitea...

Yogako irakaslea zara...

Bai, Maisuenean eskaintzen ditut saioak. Adin guztietakoak etortzen zaizkit, sei urtetatik hasi eta hirurogeita hamabost urtera arte.

Zein dira yogaren onurak?

Onura fisikoak, elastikotasuna; baina horrez gain, fisikoki, emozionalki eta mentalki oreka lortzea; meditazioari dago-kionez, espiritualtasun munduan sartzea...

Garagardoa egiten omen duzu...

Duela bospasei urte hiru lagun elkartu ginen eta horretan hasi ginen. Orain internetari esker edozer egiteko aukera dugu... Taberna genuenez garagardo upelak bagenituen... Aldiko 25 litro egiten ditugu eta nahiko ona ateratzen zaigu...



Laguntzarik izaten duzue?

Egiteko ez baina dastatzeko bai (irriz). Egiten ordu asko sartu eta segituan edan!

Zein da garagardo ona egiteko sekretua?

Produkzioan eman beharreko 10-12 pausoen betetze zehatza. Tenperaturak, denborak, proportzioak, fermentazioak... eragin handia dute. Polita da baina konplexua.

Ardiak jezten ere aritzen omen zara...

Oso lagunak ditugun hemen-go baserri bateko familiarekin. Batez ere seme-alabek baserri mundua ezagutzea (ardiak jezten, gazta egiten...) eta jaten dugunak duen prozesua ezagutzea nahi dugu.

Zer du Aranok Donostik ez dutena?

Denboraren beste pertzepzio bat. 20 minututan Hernanin egonagatik mendien babesak edo sentsazio hori eragiten du.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



IRAKURLEAK MINTZO

Baserritarrak

ESTEBAN IRUSITA MALLEA

Garai batean baserritarrek indar handia zuten gizartean. Ekonomikoki beraiek ziren indartsuenak eta sozialki ere gizartean beraien hitza kontuan hartzekoa zen. 'Aberats' hitza ere 'abere' hitzetik dator, eta abere asko zituen jabea zen. Bizkai eta Gipuzkoara mugatuz, industria indartu zen heinean, baserritarrena ahultzen joan zen. Aldaketa horren lekuko gutako asko gara, eta gaurko baserrien egoera denok ezagutzen dugu. Ia inor ez da bizi lan horretatik; ezin dira bizi. Horregatik gehienak fabriketara joan ziren soldata eta baldintza hobeeetan lan egitera. Aldaketa handia izan da Euskal Herriko gizarte giroan, euskara mailan, batez ere. Baserrietan jende asko bizi zen, eta euskararen gorleku izan ziren Euskal Herriaren historian gaurko eguneraino. Ez diegu inoiz eskertuko merezi duten beste euskal gizartean izan duten paper hain garrantzizkoa.

Gaur egun, baserriak hor jarraitzen dute gure pasaia ederrak dotoretzen. Hirietan eta herrietako kaleetan baloratzen diren monumentuen artean sartu behar dira, eta ez daukat zalantzarik, gero eta gehiago baloratuko dira gure baserriak. Zoritxarrez, asko hutsik daude eta erortzen ari dira, baina gehienak oso ondo konpondu dituzte, nahiz eta baserriko lanetik ez bizi.

Baserriko lana beti deserosoa, neketsua eta sari gutxikoa izan da. Instituzioen aldetik ere laguntza gutxi izan dute. Laguntza bakarra, garai baten, pinuak eman zien pinudiak zituztenei. Une haietan «urre berdea»

deitzen zioten. Gaur egun, berriz, pinuek diru gutxi ematen badute ere, zoritxarrez, gaixotasunak jota, arazo larri bihurtu dira. Denak zein konponbide eta zein laguntza izango duten zain daude. Badirudi, batzuk pozik daudela gaixotasun hori dela eta. Aspaldiko kontua da, baina jende batzuk pinuaren aurkakoak dira, ez delako bertako espeziea. Baina pinu mota guztiak Europa osoan hedatuak daude, eta beraien onurak, diruaz aparte, ez daude zalantzan.

Monterreytik Euskal Herrira intsinis pinua ekarri zuena, Zubieta jauregiko Mario Adan de Yarza lekeitiarra izan zen. Pinudiak jasaten ari diren gaixotasunak, nire ume denboran, gaztainondoak jasan zutena gogoratzen didate. Ondorioz, Bizkaiko eta Gipuzkoako gaztainadiak desagertu egin ziren. Gaur egun, berriz, desagertu dena nekazaritza bera da. Eta abeltzaintza ere une zailak ari da bizitzen. Gero eta artzain gutxiago dago eta horiek ere, gero eta zailtasun handiagoekin. Otsoak, txakurrak edo putreak direla, baserritarrek arrazoi asko dituzte kexu izateko. Noizbehinka, basurdeen eta oreinen bisita ere izaten dute, etxe inguruko baratzak hondatzeko.

Baserri inguruan aldaketa handiak ezagutu ditugu, eta horrekin lotutako lan asko desagertu egin dira. Gaurko gazteek eta ez hain gazteek ez dakite zer ziren 'artajorra' edota 'arto zuritzea'. Bizitza mota bat desagertu da, eta horrekin batera hizkuntzaren hitz asko ere bai. Horrek ez dauka bueltarik. Baina desagertu behar ez dena euskal kontzientzia da. Eta horretarako asko laguntzen digu baserritarren iragana eta inguruko giroa ezagutzeak.



BOTA BERTSOA

AITZOL EIZMENDI ASTIBIA
LEITZAKO BERTSOLARIA

Urte berriari begira

Doinua: Habanera.

*Joan den urteak izan du
bere negu eta uda
garai lasaiak batzutan
beste batzuetan guda
denetatik gertatu da
ohikoa den modura
ziur ez duela utzi
jende guztia gustura
baina jada amaitu da
eta berria ingura
beraz hau ekarri behar
orain guztien burura
urtero berdin gabiltza
horixe dugu ohitura
asmo zaharrak bihurtuz
urte berriko helmuga.*

*Asmo berdinei ekinez
eginak promesa pila
tabakoa utzi edo
ondu ingelera maila
gogoa izanagatik
denak betetzen da zaila
egunak pasatu ahala
urteak hartuz abaila
ahaztu egiten dugu
barruko ahots ixila
urte amaiera arte
geratzen ez den gorpila
bete edota ez bete
nork bere bidea bila
guztiei opa dizuet
bikaina izan dadila.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus

948 63 54 58

ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran.eus
Mendialdeko Albisteak

Gaia: **ESKUALDEKO INAUTERIAK**



Argazkia: "Ikusiz ikasi" - Juan Carlos Olaetxea

Informazio +
erran.eus



OINARRIAK

1. **TTIPI-TTAPA** eta **XORROXIN** zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi eta 16 urtetik goiti duen orok parte har dezake.
2. Argazkiak 2019ko inauterietan ateratakoak izanen dira (argazkia non atera den zehaztu beharko da).
3. Argazkiak mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez litezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko gutxienezko tamaina izan beharko dute (baldintza hauek betetzen ez dituztenak baztertuko ditugu).
4. Argazkiak **ERRAN.EUS** artxiboan altxatuko ditugu eta guretzat gordeko dugu jasotako lanak publikatzeko eskubidea.

Argazkiak **ERRAN.EUS** atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko du parte-hartzaileak.

EPEAK:

- Argazkiak bidaltzeko epea: urtarrilaren 20tik martxoaren 22ra.
- **ERRAN.EUS**eko erabiltzaileen saria emateko bozketa fasea: martxoaren 27tik apirilaren 12ra.
- **Irabazleak:** **ERRAN.EUS** atarian jakinaraziko ditugu apirilaren 15ean.
- **Sari-banaketa:** maiatzean.

Animatu!

SARIAK

EPAIMAHAIAREN SARIA:

NEKATUR BONO ORLEGIA
2 lagunendako 2 gau eta 2 gosari



NEKATUR NEKAZALTURISMOA
ELKARTEA
Tel: 943 327 090
www.nekatur.net



ERABILTZAILEEN SARIA:

ELGORRIAGAKO BAINUETXEAN
2 lagunendako zirkuitua + otordua



HOTEL BALNEARIO ELGORRIAGA
Errotaldea, Elgorriaga
Tel: 948 45 60 45
www.sanvirilahoteles.com/
hotel-balneario-elgorriaga/



PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN:

ELBETEKO POSADAN
2 lagunendako otordua



ELBETEKO POSADA
Nagusia, 1 ELBETE
Tel: 948 581 519
www.posadaelbete.com/eu



2018ko euskal uzta

Joan den urtean guttienez euskarazko zazpi liburu eta disko atera zituzten eskualdeko musikari eta idazleek. Horien bilduma egin du TTIPI-TTAPAK

G. PIKABEA

Osasuntsu daude euskal literatura eta musikagintza, sormenari dagokionean bederen bai. Horren lekuko argia izan zen Durangoko Azoka, bertze urte batez jendetza bildu zuen euskal kulturaren plaza. Eskualdeko musikari eta idazleek ere utzi zuten euren arrastoa. Hari horri tiraka, 2018an disko edo libururen bat argitaratu zuten eskualdeko zazpi musikari eta idazlerekin bildu da TTIPI-TTAPA eta sektorea nola ikusten duten mintzatu dira.

Musikagintza

Aitor Zabaletarentzat, «nahiko osasuntsu» dago euskal musikagintza. «Batzuetan ezagutarazteko zailtasunak» izaten direla dioen arren, «talde asko eta onak» daudela adierazi du. «Estilo aldetik ere ezaugarri askotako musika egiten da».

Joseba Iratzokik ere «proposamen interesgarriak» badirela erran digu eta «bizirik» ikusten du euskal musikagintza. «Azken urteotan euskarazko edozein musika estilo topa daiteke». Hala ere, onartu duenez, «ez da lanbide erraza».

Pettik «sortzaile eta talde aldetik, sektorea inoiz baino hobeki» ikusten du: «hori nabari da». Musika munduan aritzeko baldintzak, ordea, «txarrak» direla dio: «burokrazia aldetik bidea zaildu egiten dute eta zenbakiek ez dute gehiegi ematen». Bere iritziz, «hainbat proiektutan egonda posible da musikatik bizitzea, baina bakarrarekin ezinezkoa».

Mariangeles Zugarramurdi-
ren irudiko, «Euskal Herrian

betitik musikagintzarako zailtasun haundia izan da. Arlo horretan kultura handiko herria da». Baina «horrek iraun dezan, gizartearen zati batek aldatu» behar duela dio: «pirateatzearen ohitura baztertuz, gure kultura musikaren bide-
tik ezagutzera eman eta zabal-
tze-
zko aukera izan dezagun».

Literatura

Dani Martirenak «egun argitaratzen den euskal literaturarekin atsegin handia» hartzen omen du, «aunitz gozatu dut azken aldian irakurri ditudan liburuekin». Euskarazko album ilustratuen kasuan, «azken urteotan iraultza» izan delakoan dago: «ikaragarri lan politak argitaratzen dira».

Hasier Larretxearen arabera, «anitz eta kalitate haundikoa» da euskal literatura. Baina argi du «prekarietatea alde batera utzita, nekez egingen duela aitzinera irakurleko indartsu bat ez badago». Bere ustez, «euskarazko irakurleko eta kultur kontsumitzaile nahikorik ez izatea da arazoa. Arras liburu guti saltzen dira». Zeregina badagoela dio, «etxetik hasi eta hezkuntzarekin jarraituz».

Izaskun Zubialdek «jendea euskal literatura irakurtzera animatu» nahi du, «eta zergatik ez, idaztera». Bere iritziz, «ez da erraza lan bat argitaltze batekin argitaratzea, baina autoedizioari esker, kalitateko lan asko ari dira kaleratzen». Idazleen elkarrekin sortzen ari direla ere azpimarratu du, «badirudi, idazleak iluntasunetik atera eta argitaratzen ari direla. Pozgarria da benetan».



Iban Zugarramurdi eta Aitor Zabaleta Esne Beltzako musikariak.

«Gure disko guztiak bezala koloretsua da»

A. ZABALETA-I. ZUGARRAMURDI LEITZA ETA ARANTZAKO MUSIKARIAK

«Esne Beltzaren disko guztiak bezala koloretsua da, musikalki hainbat estiloren eztanda». Horrela azaldu digu Aitor Zabaleta leitzarrak Esne Beltzaren azken lana. *Ni* du izena, «letrei begira bakoitzak kanpora eta barnera begira ditugun borrokak adierazten direlako. Abesti gehienetan 'ni' hori agertzen da, gure nahiak eta borrokak, ezinak eta zailtasunak, erraztasunak...».

Berrikuntza batzuk ere baditu Esne Beltzaren zazpigarren eta azken lanak. Alacanteko Marc Dasousa ekoizlearekin aritu dira lanean eta «grabaketak Euskal Herrian eta Alacanten egin ditugu». Esperientzia «ona» izan dela eta «asko» ikasi dutela aitortu digu Zabaletak: «disco bat ateratzean musikalki eta arlo askotan gauza asko ikasten dira». Eta hala, «gustura» gelditu dira emaitzarekin. Bertze berrikuntza bat ere badu: «lehendik egiten dugun musikarekin uztartuz, soinu elektroniko gehiago sartu ditugu». Argitu digunez, «ez dira abesti elektronikoak. Guk egiten diogunari soinu elektronikoaren pintzelada batzuk sartu dizkiogu». Gainerakoan, hainbat estilotako musika bildu dute diskoan: reggaea, rocka, bertsioak, balada... «Guztira hamar kanta dira, intro bat eta bederatzi abesti», dio leitzarrak.

Durangoko Azokan aurkeztu zuten eta aurtan «kontzertuak eman eta diskoa jendeari erakutsi» nahi diete. Horrez gain, zuzenekoetan «aldaketak» izanen direla ere aitzineratu digu.

Zabaletaz gain, Iban Zugarramurdi arantzarra ere ikusiko dugu Esne Beltzarekin oholtza gainean. Ez batek eta ez bertzeak ere ez zuten esperoko «lagunartean ongi pasatzeko» sortu zen proiektu hark halako ibilbidea egingen zutenik. Baina arrakasta bistakoa da, eta azken disko hori ere ez da guttiago izanen.



Ni

- Mauka Musikagintza.
- 10 abestiko diskoa.



Petti gitarra eskuetan kantari.

«Orain arteko diskoen arteko nahasketa da»

PETTI BERAÑO MUSIKARIA

«Orain arte egin ditudan disko guztien arteko nahasketa ttiki bat da». Halaxe aurkeztu digu Pettik *Bonberenea Zuzenean* bere hamabigarren eta azken lana. Joan den urrian Tolosako Bonberenean zuzenean grabatu zuen eta abenduaren 3an atera zuen kalera. Azaldu digunez, duela hamar urte «zuzenekoan eta akustikoan» atera zuen *Awañak* diskoaren «ildo berekoa» da. Oholtza gainean eskainitako kantuen artean, «kuttunenak» aukeratu ditu, «baina bertze era batera landuak; akustikora pasatu ditut». Horietako batzuetan, trikitixa ere sartu du eta bi kanta ere sortu ditu, baita Manolo Urbietaren bertsio bat egin ere. Hala osatu du 14 abestiko diskoa. «Denbora faltak» prestaketa «mugatu» diola onartu digun arren, «gustura» gelditu da emaitzarekin. Are gehiago, bere lehenbiziko lanetik azken honetara garapena sumatu duela kontatu digu: «denborarekin diskoak eginez eta kontzertuak eskainiz ikasi egiten da. Bai gitarra jotzerakoan eta bai kantatzerakoan ere, lasaitasun haundiagoa sentitzen dut». Hala ere, «zuzenekoak egunaren arabera» izaten direla gaineratu digu.

Urte berrian sartuta ez du geldirik egoteko asmorik. Hasteko, «*Bonberenea Zuzenean* diskoa aurkeztu» nahi du eta horrez gain, «estudioko bertze diskoarekin lanean» hasteko asmoa du. «Erdi prestatua» duela adierazi du, «eta espero dut 2019 bukaerarako izatea, nahiz eta ezin dudan ziur erran». Hori bai, «disco diferentea» egin nahi duela aitzineratu digu, «musika-tresna gehiago erabiliz», hala nola, «soka musika-tresnak: bibolina, txeloa...». Gainerakoan, «aitzineko lanekin konparatuz, nahiko akustikoa eta lasaia» izanen dela dio. Bitartean, esku artean dugun zuzeneko uztarekin gozatzeko aukera izanen dugu.



Bonberenea Zuzenean

- Bonberenea Ekintzak.
- 14 abesti.



Izaskun Zubialde bere lanak eskuetan.

«Ilusioa egiten du lanaren emaitza eskuan izateak»

IZASKUN ZUBIALDE ZUBIETAKO IDAZLEA

Urte emankorrak izaten ari dira Izaskun Zubialde zubietarrentzat, gelditu gabe ari baita, Bakarne Atxukarro eta Asun Egurzarekin elkarlanean, batez ere haurrentzako literatura sortuz. Duela urte batzuk euskal mitologiaren inguruko haurrentzako hiru liburu argitaratu zituzten: *Euskal mitologia. Haurrentzako Ipuinak* (2014), *Euskal Mitologia haurrei kontatua* (2015) eta *Euskal Mitologia. Haurrentzako Ipuinak II* (2016). «Halako arrakasta izan zutela ikusirik» joan den urtean, *Olentzero eta Mari Domingi* ipuina kaleratu zuten. Kontatu digunez, «lehenengo liburuko ipuina» zen, baina osatu egin zuten; «bakarkako lanean, askoz gehiago zabaldu genuen, ilustrazioekin, antzerkiko gidoiarekin eta abestiak letra eta partiturekin». Aitzineko lanen gisa, honek ere arrakasta «handia» izan zuenez, «beste ipuin bat modu berean ateratzea otu zitzaigun», eta horren emaitza izan da *Tartalo*, Zubialderen zortzigarren lana. Joan den azaroaren 19an ailegatu zen bere eskutara eta onartu digunez, «izugarriko ilusioa egiten du zure lanaren emaitza esku artean izateak». Urte berrian sartuta ere bide beretik lanean segitu nahi du, «geldirik nola egon? Ezinezkoa!», onartu digu.

Zortzi lan

Euskal mitologiaren inguruko ipuin sorta ederra argitaratu badu ere, lan gehiago eginak ditu Zubialdek Atxukarro eta Egurzarekin. Emozioak eta baloreak landuz haurrentzako *Sumendia baratzean* eta *Lekim haitzuloetako gizakia* liburuak argitaratu zituzten 2016an eta 2017an, hurrenez hurren. Joan den urtean, berriz, gaztetxoentzat *Sarerik gabe* argitaratu zuen Atxukarroarekin.



Tartalo

- **Argitaletxea:** Denonartean.
- **Adina:** 3 urtetik goiti.



Hasier Larretxea seigarren poesia liburu argitaratu du.

«Irakurleei konpromisoa eskatzen die liburuak»

HASIER LARRETXE ARRAIOZKO IDAZLEA

«Idaztea bada gibelera begiratzea. Burua bueltatzea. Begirada antzaldatzea. Idaztea bada egunero leihoak parez pare irekitzeko ariketa sanoa». Horixe bera dio Hasier Larretxea arraioztarrak *Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira* bere azken poesia liburuaren aurkezpenean. Pamiela argitaletxeak irail hondarrean argitaratu zuen baztandarraren seigarren poesia liburu eta «arras kontent» sumatu dugu. «Liburu hartu eta gustura berrirakurtzen dut. Ez da beti gauza bera gertatzen, denbora pasatzean, nolabait distantzia sentitzen baituzu garai batean idatzitakoekin».

Itzulera moduko bat da arraioztarraren azken lana. Izan ere, *El lenguaje de los bosques izan zen* bere aitzineko liburu, narrazioa eta gainera, gaztelaniaz egina. Eta orain, narrazio-lanetik poesia liburu batera itzuli da, eta gainera, «poesia nire eremu naturala» dela aitortu du. Horrez gain, gaztelaniaz idaztetik euskaraz idaztera itzuli da. Bere hitzetan, 2014an *Larremotzetik* atera zuenetik «ez dut euskaraz argitaratzeko aukerarik izan, eta euskaraz argitaratu ahal izateak ilusio berezia egin dit». Azken liburuari dago-kionez, «landutako liburu» dela adierazi digu, «irakurleari ere konpromiso bat eskatzen diona».

Orain, berriz, nonahi liburu aurkezten ari da, irakurketa musikatua eginez. Baina aitzinera begira baditu proiektu gehiago esku artean: «udaberrian euskarazko berte poesia liburu bat argitaratzeko» asmoa du. Hala ere, «azkenaldian, gaztelaniaz idatzitako fikziozko ipuingintzarekin ere gozatzeko» ari dela onartu digu Arraiozko idazleak. Gisa honetara, «hainbat ahots eta batzuetan politikoki ez zuzenak islatzeko aukera dut».



**Batzuen ametsak
bertzeen zelai
zulatuak dira**

• Pamiela
argitaletxea.



Dani Martirena legasarra, bere azken liburu aurkeztu zuenean.


«Album ilustratuak helduentzat ere badira»

DANI MARTIRENA LEGASAKO IDAZLEA

Epaimahaiak bai testuan eta bai ilustrazioan ere, liburu indartsua zela iritzita, joan den ekainean Etxepare Saria jaso zuen Dani Martirena idazle legasarraren eta Ana Ibañez ilustratzailearen *Cosimoren katiuskak* lanak. Sari horri esker, Pamiela argitaletxeak urrian argitaratu zien album ilustratua eta Martirenak kontatu digunez, «izugarri kontent» gelditu dira emaitzarekin. «Ibañezek eta biok elkarrekin argitaratu dugun hirugarren liburu da eta hango eta hemengo liburu-dendetan irakurleen arreta bereganatu nahian ikusteak ilusioa pizten digu». Gehiago ere kontatu digu: «hurbileko jendearendako gure proposamena atsegina izan da» eta bide beretik segitzea nahiko lukete: «ea liburuak bide polita egiten duen, hori da gure itxaropena».

Hiriko parke batean, zuhaitzean etxola egin duen Cosimori buruzko ipuina da. Honela azaldu digu legasarrak: «parkea desagertzeko arriskuan dago, baina Cosimok parkeko gainerako parkezaleak lagun izanen ditu parke horren defentsan ibiltzeko. Cosimok zuhaitzetik ez dela jaitziko erabakiko du hiriko parkerik ttikiena salbu ikusi arte». Horren harira, «liburuak hainbat irakurketa maila eskatzen dituela» uste du Martirenak, eta hori «ederra» da bere irudiko.

Liburu esku artean duenetik, «han eta hemen» aurkeztu penak egiten ari da Martirena, baina aitortu digunez, «gerora, Anari eta bioi berte libururen bat egitea gustatuko litzaiguke». Asmoa ba omen dute, «baita ideiak ere. Buruan errota hasia da jirabiran», dio. Album ilustratuen munduan dabilela aprobeztatuz, «haurrendako ez ezik, helduendako ere» badirela ere uste du legasarrak: «3 eta 103 urte bitartekoek irakur ditzakete. Egin frogala».



**Cosimoren
katiuskak**

• Pamiela
argitaletxea.
• Adina: + 3 urte



Mariangeles Zugarramurdi sortez aranztarra da baina Irunen bizi da.

«Urteetan gordetako kaleratzen hasi naiz»

MARIANGELES ZUGARRAMURDI ARANTZAKO MUSIKARIA

«Betitik izan dut melodia eta letrak sortzeko ahalmena», baina «urteetan etxean gordeta» izan ditu bere sormen lanak. Orain, orde, «pauso bat eman» eta ereindako lana kanpora ateratzen hasi da Maria Angeles Zugarramurdi. Berea «proiektu zabal eta luzea» dela azaldu digu, «gizaki baten sorreratik hasi eta nerabazarora bitarteko etapak» biltzen dituen. Eta egitasmo horren lehenbiziko uztia bilduz urte hondarrean *Zilbor Hestetik Bihotz Hestera* diskoa kaleratu zuen. «Bi zelula elkartuta bizi berri bat sortzen denetik hasi eta eskolan hasi bitarteko garaia» kantu bidez bildu du diskoan. «Hasieran, 13 haur-kantako lana plaza-ratu nuen. Gero, Durangoko Azokari begira, 36 kantako CD bikoitza prestatu nuen». Lehenbiziko diskoko kantak bigarrenean ere sartu ditu, «baina ukitu batzuk emanda».

Berak sortu eta berak kantatu. Halaxe osatu du diskoa, «denetarikoa gaiak» landuz: «zelulen elkartzea, haurdunaldia, zilbor-hestea, sehaska-kantak, hortzen garaia, guraso eta haurren arteko emozioak eta komunikazioa...». Familia, lagun eta ezagunen bizipenetan oinarritu omen da, baina «Oiartz, Aiur eta Elaia nire bilobak izan dira inspirazio-iturri».

Emaizarekin kontent gelditu bada ere, bidea «zaila» izan dela aitortu digu, hala nola, «bakarrik kantatzen dudana lehenbiziko aldia» izan delako. «Desgastea» ere aipatu digu: «orduak pasatu ditut lanean, horrek dakarren ondorio fisiko eta psikologikoarekin, baina hori kontatu gabe, nire gisara ari naiz dena ateratzen eta disko bat ateratzea ikaragarri kostatzen da».

«Pena» hartuko omen luke «36 horiekin geldituta, pilaka ditudalako konposatuak». Eta argi mintzatu da: «hurrringo kanta multzoa eskolan hasten den garaia lotua izanen litzateke. Horiek kaleratzeko laguntza banu...».



Zilbor hestetik bihotz hestera

- Autoedizioa.
- 36 abestiko disko bikoitza.



Joseba Irazokik azaroan *Zu al zara?* diskoa atera zuen lagunekin.

«Taldearen musika diskora eraman dugu»

JOSEBA IRAZOKI BERAÑO MUSIKARIA

Bere garaian irakaskuntza izan zuen ogibide, eta musika afizio. Baina azken hamar urteetan afizioa ofizio bilakatua du Joseba Irazoki beratarrak. Musikatik bizi da, nahiz eta «hagitz zaila» dela onartu, «beti segurtasunik gabe eta soka gainean gabiltzalako». Baina gustuko tokian maldarik ez: «ez da erraza, baina gustukoa dudanez, hor segituko dut. Hori da egin nahi dudana».

Hainbertze maite duen pasio horri tiraka ibilbide luzea egiten ari da musikagintzan. Dagoeneko hamar bat disko argitaratu izanen ditu, «abestutakoak sei-zazpi, instrumentalak bi, inprobisatutako disko pare bat...». Bere lanetan azkena *Zu al zara?* izan da, azaroan argitaratua, eta «lagunekin atera dudana bigarren diskoa». 12 kantako lanarekin «gustura» gelditu da: «beti egoten dira buruhausteak, baina orokorrean, buruan genuena nahiko ongi islatua gelditu da». Azaldu digunez, «lau urte baditugu elkarrekin jotzen eta taldeko soinua lortu dugula uste dut. Oraingoan gure musika hori diskora eraman dugu». Gainerakoan, azken laneko musika «rockeroagoa» dela azaldu digu beratarrak, «kanta mugituak» direla. Eta hitzei dagokienez, «buruhauste pertsonalak eta gai sozialak» landu dituzte.

Kontzertuz kontzertu

«2019a kontzertuak eskainiz pasatuko dut». Horixe baieztatu digu. «Azken diskoa aurkezteko, urtarrilerako, otsailerako eta martxorako kontzertu batzuk lotu ditugu». Baina ez da horretara mugatuko: «Nacho Vegas musikari asturiarrarekin es-tatu mailan bira bat egiten ari naiz». Eta gehiago ere bai: «Rafa Berriorekin disko bat grabatu dut eta horrekin kontzerturen bat edo eginen dugula pentsatzen dut».



Zu al zara?

- Bidehuts diskoetxea.
- 12 abestiko diskoa.

XII. Mendi Eguna prestatu dute iganderako

Santa Barbararako igoeraz gain, arratsaldean bi dokumental proiektatuko dituzte Kultur Etxean

TTIPI-TTAPA

2007. urtean Taillon mendian zendu ziren Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Xabier Saralegi mendizaleak gogoan egiten den Mendi Eguna hamabigarren edizioa beteko du urtarrilaren 12an. Manttalle Mendi Lasterketa Taldeak eta Agerra Mendi Taldeak antolatutako egun horretan, Santa Barbarara egingen diren igoerak izanen dira eguneko hitzordu nagusiak, baina ez bakarrik.

Goizean, 10:00etan, eskalada tailerra egingen dute eta 12:30 arte haur eta gaztetxoek bertan parte hartzeko aukera izanen dute. 14:15etik 15:00etara Santa Barbarara egingen den igoeran parte hartzeko izena eman beharko da eta dortsalak ere orduan banatuko dituzte. 15:00etan Santa Barbarara joateko ibilaldi gidatua hasiko da. Kiroldegitik abiatuta 5,5 kilometroko itzulia izanen da. Ordu berean, 12 urte bitarteko neska-mutikoentzako lasterketak egingen dira eta 15:30ean hasiko da binakako kronoigoera. 16 ur-

tez beheitikoek heldu batekin lagunduta egin beharko dute igoera. Egun berean ez ezik, Santa Barbararako ibilaldirako eta erlojupeko igoerarako izen-ematea aitzinetik ere egiten ahal izanen da Pikabea Harategian, Xugan eta Errekalden. 18:00etan luntxa eskainiko dute eta horrekin batera, mendi-irteeran eta kronoigoeran parte hartu dutenen artean zozketak egingen dituzte.

Proiektzioak

Eguna borobiltzeko bi proiektzio eskainiko dituzte Kultur Etxean. 19:30ean *Aurrepirinioetatik Europako gailurrera* dokumentala eskainiko dute, Ibai Iturria, Imanol Moreno, Ugaitz Ado eta Xabi Etxegarai mendizaleek Europako mendirik garaiena den Elbrus mendira egindako espedizioaren inguruan. Ondotik, Julen Errandonea eta Alberto Urta-sunek Manaslura egindako espedizioa kontatzen duen proiektzioa eskainiko dute: *Manaslu: edo baloreen auke-raketa*.



UTZITAKO ARGAZKIA

Abesbatza eta txistularien kontzertua

Abesbatzak eta txistulari taldeak Eguberrietako kontzertua eskaini zuten abenduaren 22an Kultur Etxean. Jon Abrilek bete zituen aurkezle lanak eta emanaldi ederra eskaini zuten abeslari eta musikariek. Isidoro Fagoagari eskainitako abestia ere kantatu zuen Lanzeak, saioa borobiltzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Olentzero eta Mari Domingiri harrera

Beran ere Olentzerori ongietorri polita eskaini zitzaion. Musikariek egindako kalejiraren ondotik, Herriko Etxeko plazara hurbildu ziren Olentzero eta Mari Domingi. Neska-mutikoen eskutitzak jaso eta musuak banatu zituzten. Arratsean, Gure Txokoak antolatuta kalejiran ibili ziren.

xirgil
jaione goya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara
LABE ZAR
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

ikbilu
OSTATUA
SAGARDOTEGIA
Uralde karrika, 6
BERA
T. 948 110 913

HARAGIA ETA ARRAINA BRASAN
Eguneko menua | Asteburuko menua

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) **636 617 450**

• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA



Eztegara pilotalekuko moldaketen azken fasea eginen dute. ARTXIBOKO ARGAZKIA

3.861.118 euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak

Inbertsio nagusiak Agerrako saneamendu eta ur hornidura sareak berritzea eta Eztegara pilotalekuko azken fasea dira

TTIPI-TTAPA

Aurtengo aurrekontuak onartu ditu udalak, aldeko 7 boturekin (EHBilduren seiak eta Herrirako taldeko bat) eta kontrako laurekin (Herrirako bertze hiru zinegotziak eta UPNkoa). Guztira 3.861.118 eurokoa izanen da. 73.000 euroko mailegu bat hartzea aurreikusi da.

Garbiketa zerbitzua bere gain hartuko du Udalak. Zerbitzu publikoak indartu eta hobetzeko asmoa du eta garbiketako langileak udal langile bihurtuko ditu.

Sarreraren atalean, tasak KP-lan araberako dira orokorrean. Udalaren gastuak ere neurri horretan igotzen direnez beharrezkoa ikusi da hala egitea.

Musika eskolaren kasuan, ordea, bertze modu batera egin dute. Gaur egun Nafarroako Gobernuak %10 ingu-

ru finantziazten du bakarrik. Udalaren defizita ttikitu asmoz musika eskolako tasak %60 igotzea planteatu da 2019-2020 ikasturterako. Igoera honek ez die eraginen Beran bizi diren ikasleei, Udalak diru-laguntza bat lortuko duelako igoera hau estaltzeko. Kanpoko ikasleen kasuan, berriz, ikusi beharko da igoera hori nola aplikatzen den. Inguruko udalekin solasteko asmoa du Berakoak, horretaz aritzeko.

Diru-laguntzen atalean azpiegitura planeko obretarakoak aipatu behar dira. Orokorrean inbertsioaren %60koak izaten

MUSIKA ESKOLAKO TASAK %60 IGOKO DIRA 2019-2020 IKASTURTERAKO

dira eta guztira 2019rako 380.000 euro ingurukoak. Horiei gehitu behar zaizkie libre erabakitzeke 35.000 euro.

Nafarroako Gobernuak udalei banatzen dien funtsa %4,5 igo da eta hortik ere gehixeago jasoko du Udalak, 845.000 euro inguru, udal finantziarioa hobetze bidean.

Mendiko loteen kasuan 2019an salduko da azken inbentsio pinadegi heldua, Bordaxurikoa. 100.000 euro ingurutan aterako da enkantean.

Agerrako saneamendua eta ur-hornidura eta Eztegara pilotalekuko azken fasea

Inbertsioen aldetik, azpiegitura planeko bi inbertsio handi egin behar dira. Agerra auzoko saneamendua eta ur-hornidura sareak moldatzeak 457.440 euroko aurrekontua du eta Eztegara pilotalekuko moldaketen azken faseak, tartean ostatua eta komunak berritzeak, 200.206 eurokoa. %60 inguruko diru-laguntza jasoko du Udalak. Inbertsio horiez gain, Nafarroa eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziazioak ongi badoaz herriko ur sarearen zati handi bat moldatuko da 313.979,99 euroko inbertsioa eginez eta Legarbidia auzoko urbanizazioa berritu 499.965,12 euroko kostuarekin.

Bertze partida garrantzitsu bat landaketena da, 2019 urteko neguan Komiziarra inguruan landaketa egiteko 80.000 euro aurreikusi dira. Horretaz gain mendian larreak garbitzeko 8.000 euro eta pinadegiak botatako tokian adarrak biltzeko 7.000 euro gorde dira. Lan hauek urtero egiten den mendiko proiektuan sartzen dira eta %60-80 arteko diru-laguntza izaten dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Naroa Otamendi saritua Arrasateko lehiaketan

Joan den abenduaren 8an Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasle den Naroa Otamendi Abril akordeoilaria urrezko domina lortu zuen Arrasateko Akordeo Lehiaketan, C kategorian parte hartuz.

Haurrentzako ipuin kontalaria hilaren 18an liburutegian

Amia Elizagoien ipuin kontalaria *Amatxiren istorioak* kontatuko ditu urtariraren 18an, ortziralean 18:00etan herri liburutegian.

Musika eskolako ikasleen entzunaldiak

Hilaren 21ean gitarra, 22an haize-instrumentu, 28an txistu eta 29an perkusio entzunaldiak eskainiko dituzte Musika Eskolako ikasleek (18:00).

JAIONE-GOXOTEGIA
Etxean egindako produktuak
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

ANTZUZELAI
S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK



1920-1950 urtetako haurtzaroari begira erakusketa zabalik

Urtarrilaren 20ra bitarte ikus daiteke Harriondoako komentuan Belen Compains pediatrik bildutako lan ikusgarria

AITOR AROTZENA

Lesakan haurtzaroari begira 1920-1950 erakusketa ikusgai jarri dute abenduaren 20tik urtarrilaren 20ra Harriondo Kultur Etxeko komentuan. Osasun Etxeko pediatria den Belen Compains bultzatutako erakusketa da, Udalaren, Cederna-Garalur erakundearen eta Beti Gazte elkartearen laguntzarekin, «baita beraien testigantzak gogoz eskaini dituzten hainbat herritarren laguntzarekin ere», Compains berak abenduaren 20ko aurkezpenean aipatu zuenez.

Erakunde eta jende horri eskerrak emateaz gain, erakusketa atontzen eta elkarrizketak egiten lagun izan dituen Modesto Maia, Begoña San Julian eta Txaro Zubiri eta beraien bikoteei ere eskerrak eman zizkien. Hogei pertsonen egindako elkarrizketekin 20 ordu baino gehiagoko grabaketak bilduak ditu Compains, baita hainbat agiri eta argazki ere, eta horiekin guztiekin, diru-laguntzaren bat lortuz gero, ikusentzune-ko edo libururen bat argitaratzeko aukera ez du baztertzen. 50 lagunek tresnak, altzariak, argazkiak eta agiriak ere utzi dizkiote erakuskerarako.

1920-1950 urte horietako mugarri dagokienez, haurren hilkortasun handia azpimarratu zuen Belen Compains, erakusketa irekitzeko, Belen Compainsen solasen ondotik, elkarrizketa batzuen bideo laburrak ikusi zituzten eta Gaizka Sarasolaren doinuak aditu ahal izan ziren musikari eskainitako txokoan, bisitariak bertze hainbat txoko ikusten zituzten bitartean (kirola, hezkuntza, erlijioa, familia, pediatria eta haurzaintza, Espainiako Gerra...).



Erakusketaren irekieran.

«%17koa lehen urtean eta %30ekoa haurtzaro osoari zabalduz gero. Hau da, hamar umetatik hiru ez ziren heldu- rora ailegatzen, hori ikaragarria da!». Analfabetismo maila %30 ingurukoa zen eta hezkuntza erabiliz euskara erabat guttitu zen. Familia ugariak eta hedatuak ziren eta elizak garrantzi handia zuen arlo guztietan. Garai horretako bertze mugarrietako bat, noski, 1936 eta 1939 arteko gerra izan zen.

Urtarrilaren 20ra arte, 18:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte ateak.

'Ele, Lauaxeta-Lorca' emanaldia hilaren 19an Harriondoan

Ele, Lauaxeta-Lorca emanaldia eskainiko dute urtarrilaren 19an Harriondoan. Jon Maia, Ana Salazar, Pitti eta Gorka Hermosa dira emanaldiko protagonistak. Obrak bi poeten lanaren hariaren gidaritzaapean, hitzak, musika, irudiak eta antzerkia erabiliko ditu.

Gurasoei zuzendutako solasaldia

Gure seme-alabak harreman onetan hezitzen solasaldia eskainiko du Amaia Vazquez Eguzkitza psikologo klinikoak urtarrilaren 14an, 17:00etan udalaren Erabilera Anitzeko Aretoan (Koskontako Bidea 7, 2.). Tantiaturu ikastolak antolatuta du hitzaldia.

Tantirumairu dantza taldearen saskia

Tantirumairu euskal folklore taldeak zozketatutako Eguberrietako saskia 3.347 zenbakiari egokitu zaio. Adrian Gajate eta Tere Aleman senar-emazteek erosia zuten eta argazkian, hauen semeak ageri dira:



UTZITAKO ARGAZKIA

Unax, Alain (dantza-taldeko kideak) eta Xabat.



JON MARTINEZ

Beti Gazteren ipuin lehiaketako sariak

Ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek. Aitor Mitxelena Sunsundegi, Oier Tapia Iturria eta Ana Odriozola Goizueta (A mailan) eta Onintze Iparragirre Irigoien eta Hegoi Silveira Arrieta, Saioa Orbegozo Arzuaga eta Maitane Erkizia Arburua (B mailan) izan dira sarituak.

Hemen erabili
DenakBat
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa • LESAKA
T. 948 637 826

FRUTAS Y VERDURAS
ERANDONEA, s.l.
FRUTAS Y VERDURAS
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Txondorra Saria eman diote Iruñean Pello Apezetxeari

Herri kulturaren ikerketan egindako lana eskertu dute Iruñeko Udalak eta Olentzeroren Lagunak elkarteak

IRUNE ELIZAGOIEN

Ttipi-Ttapa Fundazioko presidente ere baden Pello Apezetxea Zubiri (Goizueta, 1932) etnografo, etnologo, idazle, Etxalarko apez eta ohorezko euskaltzainak Txondorra Saria jaso zuen abenduaren 21ean Iruñeko Udaletxean: hiriburu-ko udalak eta Olentzeroren Lagunak elkarteak ematen dute saria, laugarren aldiz. 2015ean Lesakako herriak eta Andoni Santamariak jaso zuten; 2016an Joxe Ulibarrenak eta iaz Juan Antonio Urbeltz eta Marian Arregik.

Pello Apezetxeak Joseba Asirion alkatearen eskutik jaso zuen Benito Goñik egindako eskultura. Ondotik, bi dantzarik *Olentzero dantza* dantzatu zuten, Hego Haizea txistu taldearen doinupean.



Pello Apezetxea, sariarekin.

Sute elkarteko urteko batzarra hilaren 20an

Kultur Etxean (10:00). Mendiko suakitzaltzeko palak: Zamudiene-kobordan (Urritzokietan), Iturralde-kobordan (Larrapil-Sar.), Arri-nekobordan (Lakain-Apez.), Tolarekobordan (Orizki), Goinetxegaraian (Luriztiederra) eta Mais-terrenkobordan (Gorosurreta).

Herriko basurde ehiztariak kontent

Abenduaren 1a ez zaie berehalakoan ahaztuko herriko ehiztariei. Kuadrila honek 7 basurde harrapatu zituen. Abuztuaren 15ean hasi zuten sasoia eta otsailaren bukaera arte segituko dute marka hobetu nahian. Diotenez, Etxalarren inoiz ez zen lortu egun berean 7 basurde hiltzerik.



JON SANTESTEBAN



IRUNE ELIZAGOIEN

Eguberriak giro onean

Giro onean joan dira Eguberriak. Abenduaren 24an Olentzeroren lau irudi eta trikitilari eta txistularien doinuekin eman zitzaion itzulia herriari. Ilunarekin batera Olentzero eta Mari Domingi jaitsi ziren menditik eta herritarrekin batera iritsi ziren frontoira, goxokiak banatzera eta dantzan aritzera.



LANDAGAIN ESKOLA

Landagain eskolako ekitaldiak

Abenduaren 13an Pello Añorga idazle eta ipuin kontalaria Landagain eskolan izan zen. Ikasleek bere kontakizunez gozatzeko aukera izan zuten. Abenduaren 21ean, berriz, Olentzeroren bisita izan zuten Landagain eskolan eta gero, ikuskizuna eskaini zieten ikasleek hurbildu ziren herritarrei.

**BIDALI
PAKETEAK
DHLrekin
XAGUren
BITARTEZ**

**ZERBITZU
BERRIA

BILKETA-
PUNTUA**

**BIDALI
PAKETEAK
XAGU
LESAKAREN
BITARTEZ**

www.dhparcel.es/es/particulares.html

www.dhparcel.es/es/particulares.html

**XAGU
LIBURUDENDA
LESAKA**

XAGU
 Koskontako bidea, 7
 LESAKA
 Tel.: 948638232
 lesaka@legarra.org



Biltoki Ttikikoen Olentzeroa izan zen sarituena. OSKAR TXOPERENA

Eguberrietako ekitaldiak ederki joan dira

Olentzerorekin egindako itzuliaren ondotik plazan lehiaketa burutu zen eta Biltoki Ttikiko taldea izan zen sarituena

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, ekitaldi mor-doxka izan dira aurten ere Eguberrietan. Bikain buruturiko abendu hasierako kultur egunen ondotik Giltzarri Abesbatzaren kontzertua izan zen abenduaren 15ean, arrakas-tatsua eta giro ederrean egindakoa.

Eguberri bezpera egunean, berriz, goizetik ibili ziren etxez etxe eskean haur eta gazte txoak, ohiturari jarraituz. Arratsalde, bortzak aldera hasita, hiru Olentzeroz osatutako talde jendetsuak herrian barrena egin zuen bere ibil-

bidea. Urtero herriko auzoren batera luzatzen da bisita, Unanau auzo aldera aurtegoan. Etxexuriraino ailegatu ziren eta han kanta bat edo bertze eskaini ondotik, Goiz Argiko atarian izan zuten merienda ttikia.

Lehiaketa

Berriz ere herrira itzulita, Olentzero lehiaketari ekin zioten pilotalekuan eta Biltoki Ttikiko taldea izan zen sarituena, bikain prestatutako Olentzero eta abestiengatik. Hagitz giro ederrean joan zen Eguberri bezperako ilunabarra.

Tomas Rekondoren ezbeharra herrian gertatu zen abenduaren 12an

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 12an harriturik, gertatutakoa sinetsi ezinda ernatu zen Igantzi. Izan ere, eguna argitzeko garaian, Igantzin hainbertze urtez ogia banatzen aritutako Tomas Rekondo herrian bertan zena-dua zela segiduan zabaldu

baitzen. Piedadeko kaxkotik hurbil gertatu zen ezbeharra, maldan behera hasi eta segituan. Ezusteko berriak atsekabaturik utzi zuen herria, hain estimatua baitzen bere izaera, lana eta zintzotasunarengatik. Luzaroan sumatuko da Igantzin bere hutsa.



Baratzondon egin zuen batzar jendetsua Biltoki elkarteak. OSKAR TXOPERENA

Biltoki elkarteko egoitza berriaz aritzeko batzarra egin zuten Baratzondon

TTIPI-TTAPA

Xehetasunetan sartu gabe, pausu garrantzitsua ematera doa elkarte eta, hala izanik, eztabaidatsua gertatzen ari da bazkideen asmo eta iritzien bateratzea. Egoitza berriaz ari gara. Batzordeak xehetasunez azaldu zituen hilabete hauetan egindako lanak jende multzo haundiaren aitzinean eta erabakirik garrantzitsuena epeak pixka bat lausotzea izan zen, bazkideek hausnarketarako denbora gehixeago izateko eta proposamen berriak baleude, batzordeari aurkezteko. Hare, batzordearen egutegiaren

arabera, gaiak udaberria baino lehen zirt edo zart egitea espero da. Bazkideek izanen dute hitza.

Elizateko jatetxearekin bueltaka

Bertze aldetik, luze xamar doa Elizateko herriko ostatuaren alokatzea. Ez zen inor urkeztu azken enkantera eta hartzeko prest dagoen norbait joan zaio Udaltzari azken aste hauetan. Urte hasieran irekitzekoa zen lehen proposamena baina uste baino gehiago luzatu behar omen du, nonbait.

Jauarena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI
abokatua
abokatua
948 630 763 · Alzate, 17 · BERA



Topaketan parte hartu zuten hamar pilotariak. ENEKO SARRIAS

Bortzirietako neska pilotarien topaketa egin dute lehen aldiz

Hamar pilotarik parte hartu dute joan den urte hondarrean egindako elkarretaratzean

NEREA ALTZURI

Betitik pilotarako zaletasun haundia izan da herrian. Gaur egun, 25 haur eta gaztetxo ari-zen dira astelehenero herriko pilota eskolan eta Inaxio, Juanjo, Aratz eta Unai erakusten.

Neskak ere gero eta gehiago dira. Herrian, adibidez, bortzek entrenatzen dute eta Bortzirietan 12 dira. Talde polita denez eta pilotari bultzada emateko, elkar ezagutzeko eta harremanak sortzeko, Arantzako pilotari horien gurasoek antolatuta, Bortzirietako neska pilotarien topaketa egin zuten abenduaren 29an.

Giro polita izan zuten eta hamar pilotari elkartu ziren: Kattin Madariaga, Saioa Etxegarai, Ainhize San Juan, Maddalen Arenas eta Helene Altzuri herritarrek, Laida Taberna, Amaiaur Martinez eta Ainitze Martinez lesakarrak eta Julene Danboriena eta Aia Mitxelorena etxalartarrak. Goizean, jokoak egin zituzten eta ondotik, Emakumearen Memoriaren Baratzean sagarrondo bat landatu zuten. Gero, pilotariak eta familiakoek elkarrekin bazkaldu zuten eta gustura gelditu ziren egunak emandakoarekin.



Giro ederrean joan zen abenduaren 24a. E. SARRIAS ETA I. UGALDE

Harrera beroa egin diote Olentzero eta Mari Domingiri

N. ALTZURI

Urtero bezala, abenduaren 24an, Olentzeroak bizkarrean hartu eta herritarrek Eguberrietako kantuz jantzi zituzten herriko karrikak, Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena aita-seme akordeoilariekin. Horrez gain, Olentzero eta Mari Domingiri ongietorri koloretsua

eta alaia egin zieten eta Jon Mazizior eta Oihana Amorosek kantaldi ederra eskaini zuten. Urtezahar-egunean, elkartasun kalejira eta zozketa egin ziren. Produktuen eskorga Leire Amorosi tokatu zitzaion eta bildotsa Marta Iturriari. Ilbeltzaren 5ean, berriz, errege kabalkada egin zen.



NEREA ALTZURI

Etxegarai eta Iparragirre txapeldun

Ander Etxegarai Maizek eta Aritz Iparragirre Alberdik txapela jantzi zuten abenduaren 22an jokatu ziren Bortzirietako Binakako Pilota Txapelketako finalean. Etxegarai eta Iparragirrez gain, herriko mutiko gehiagok ere parte hartu zuten txapelketan, eta horietako batzuk ageri dira argazkian

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Andueza e Iriarte, SL
Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA
T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Bortzirietako taldekako bertso txapelketan modu batean edo bertzean parte hartu zutenak. UTZITAKO ARGAZKIA

Illarregi anaiak eta Gorosterrazu garaile taldekako lehiaketan

Hemezortzi bertsolari aritu ziren eta finalean Alazne Untxalo, Maddi Ane Txoperena eta Josu Sanjurjo menperatu zituzten

TTIPI-TTAPA BERA-LESAKA

Iker Gorosterrazuk eta Joanes eta Xabat Illarregik irabazi dute Bortzirietako 20. taldekako bertso lehiaketa. Abenduaren 29an jokatu zen lehiaketa Bera eta Lesakan.

Hemezortzi bertsolarik ekin zioten lehiaketari Berako Xugan jokaturiko banakako kan-

poraketekin. Lehen hamabi bertsolariekin lau hirukote osatu ziren finalerdiak jokatzeko.

Berako Katakua ostatuan jokatu zen lehen finalerdian, *Guk ez dugu nahi* taldeko Iker Gorosterrazuk, Joanes Illarregik eta Manu Goioanek, *Xaxaju* taldeko Xabi Maia, Julen

Zelaieta eta Xabat Illarregi menperatu zituzten. Goioanek, ordea, finalean parte hartzerik ez eta Xabat Illarregik ordezkatzeko zuen.

Lesakako Haizeguan jokatu zen bigarren finalerdian, *Hiru Gintonik epel* taldeko Alazne Untxalok, Maddi Ane Txoperenak eta Josu Sanjurjok lortu zuten finalerako txartela, *Berri zaharrak* taldeko Iban Garro, Ander Fuentes *Itturri* eta Aitor Estebani irabazi ondotik.

Finala Arrano Elkartean jokatu zen, *Guk ez dugu nahi* taldea izan zen nagusi.

Bertzalde, 2006tik urtero bertso onenari eman zaion Kotto saria, Maialen Belarrak eskuratu du, gai-jartzaile gisa egindako lanarengatik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Vilaren solasaldia urtea errepasatzeko

Azken urteetako ohiturari eutsiz, urteari errepasoa eginez solasaldia eskaini du Patxi Vilak Berako Kultur Etxean, *Bizia pedal kolpeka* goiburupen. Oraingoan, Arritxu Iribar, Euskadi Irratiko kazetaria izan zuen lagun solasaldian.

San Anton Eguna ospatuko dute Lesakako Endaran

San Anton Eguna urtarilaren 17a izanen da. Ohikoa denez, egun horretan eta, batez ere, ondoko igandean ospakizuna izanen dute Lesakako Endara auzoko baselizaren inguruan. Bortzirietatik ez ezik, Gipuzkoa aldetik ere hainbat lagun etorritzen da ospakizunera.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Eskualdean egindako sagardoa
Txotx denboraldi irekiera

LEIHOA BEHERAINO
BETE LEIHOA
BEHERAINO BETE
LEIHOA BEHERAINO

URTARRILAREN 12an

LARRALDEA | Telleria auzoa - LEKARIZ (21.155)
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T/F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T/F. 943 633 050 • IRUN

gauko konfort-kuxina

Centro Prim regina tolosaechebare

Iker Espelosin zena omendu du Txaruta pilota elkarteak

Bi pilota partida jokatu zituzten eta gurasoei haritz kimua eta oroigarriak eman zizkieten

MAIDER PETRIRENA

Iker Espelosin Goizueta zena-ri Txaruta pilota elkarteak omenaldia eskaini zion abenduaren 22an Sunbillan. Bi pilota partidaz gain, gurasoei haritz kimua eta oroigarria eman zieten Txarutako ordezkariak eta afaria izan zuten Ulibeltzak elkarteak.

Hasteko, bi pilota partida izan ziren herriko frontoian. Lehen partidaren Agirre eta Oskozek 22-17 irabazi zieten Ariztegi eta Ballarenari. Bigarren partidaren ere gorriek irabazi zuten. Kasu horretan 22ra iristen lehena Ugaitz Elizalde eta Jon Olaizola III.a bikotea izan zen. Anso eta Otxandorena, berriaz, 18 tantoetan gelditu ziren.

Partida bikainak ikusteko aukera izan zuen bertara hurbildu zen jendetzak.



Oroigarriak eman zizkieten gurasoei.

Oroigarriak

Akitutakoan Ikerren gurasoei haritz kimua eta oroigarri bat oparitu zieten Txaruta pilota elkarteak. Horien ordezkari, Enaitz Ansok eman zien, urteetan Ikerrekin bikote lanetan aritua baitzen han eta hemen jokatu zituzten txapelketetan.

Omenaldiari bukaera Ulibeltzak elkartearen egindako afariarekin eman zioten.



MAIDER PETRIRENA

Eguberrietako jaialdi ederra egin dute

Eguberrietako jaialdi ederra egin zuten eskolan. Goitiko eskolatik trikitilari eta panderojoleak beheitiko eskolako ikasle eta irakasleen bila joan eta denak batera goitikora itzuli ziren. Denak batera frontoira jautsi eta jokoak, gosaria eta musika eta kantu jaialdi berezia izan zituzten.



MAIDER PETRIRENA

Hemezortzi bikote frontenis txapelketan

18 bikotek parte hartu dute frontenis txapelketan. Finalak abenduaren 31n jokatu zituzten. Nesketan, Maite Ibarrak eta Nekane Gartziak 30-21 irabazi zieten Olaia Gandara eta Maite Mendibili. Andoni Espelosin eta Julen Juankorenak 30-23 irabazi zieten Salvador eta Gaizka Elizalde aita-seei.

Opariz beteta etorri da aurten ere Olentzero

Urtero bezala herrira opariz beteta etorri zen Olentzero. Tiki-ttikienak urduri, ilusioz, gogoz zeuden muxuak eta eskutitzak Olentzerori emateko. Horren guztiaren ondotik frontoian txokolate goxoa



MAIDER PETRIRENA

hartzeko aukera izan zuten. Eguberri egunean gazteak ibili ziren eskean.



ESTHER EZKURRA, EVA ARRETxea, AMAIA ARRETxea eta MAIDER PETRIRENA

Urtea hasteko urtaskak biltzen

2019ari hasiera ezin hobeki eman diote herriko haur eta gaztetxoek urtaskak biltzen. Hotz ederra egin arren hor ibili ziren kantuan etxez etxe. Ohikoa denez, neska-mutikoak taldetan banatu eta bakoitzak bere ibilbidea egin zuen. Urte berri on denei!

1.666.898 euroko aurrekontua onartu du Herriko Etxeak

Agorreta Musika Eskolako Patronatuaren aurrekontua, berriz, 88.925 eurokoa da

MARGA ERDOZAIN

Abenduaren 20an egindako udal bilkurak, gastu eta sarre-
rak orekatzen dituen aurre-
kontua, aho batez onartu zuen.
Aurten herriak gastatzeko duen
ahalmena 1.666.898 eurokoa
izanen da. Honi 88.925 euro-
ko diru kopurua gehitu behar
zaio, Agorreta Musika Esko-
lako patronatoko aurrekontua
baita.

Herriak diru kopuru honekin
aitzina atera beharko ditu
martxan dituen zerbitzuak
(udal bulegoko harrera, Askin
haur eskola, Agorreta Musika

Eskola, liburutegia, udako
ludoteka, turismo bulegoa,
igerilekua, kirol egoitzak...
Horietaz gain, ur-biltegi be-
rriaren lanak, osasun zentro
berriaren urbanizazioa, Elbis-
tegiko ur-horniduraren lanak,
kale argiteriaren hobekun-
tzak... izanen dira aurtengo
lehentasunak. Kultur eta kirol
taldeei emandako diru-lagun-
tzak berdin mantenduko dira.

Urtarrilean, aitzineko urte-
tan egin duen moduan, uda-
lak herritarrei aurrekontu
hauek aurkeztuko dizkie jen-
daurreko saio batean.

Liburutegiak indarkeria matxistaren aurkako I. ipuin lehiaketa antolatu du

MARGA ERDOZAIN

12 urtetik goitikoendako, in-
darkeria matxistaren aurkako
ipuin lehiaketa antolatu du
lehen aldiz liburutegiak. Aur-
kezturiko lanak bi kategoriatan
banatuko dira: 12-16 urte bi-
tarteak -DBHko ikasleak-
edo 16 urtetik goitikoak.

Euskaraz edo gaztelaraz ida-
tzi ahal izanen dira eta parte-
hartzaile bakoitzak orrialde
bateko lan bakarra aurkez-
dezake. Ipuin horrek origina-
la, argitaratu gabea eta aur-
kezten den hizkuntzan idatzia
izan behar du; hau da, itzul-
penik ez dute onartuko. DIN
A4 formatuan, espazio bikoit-
za eta Arial letra (12ko ta-
mainan) aurkeztu behar dira.
Lanak sortzeko honako gai
hau jarri dute: *Zer egingen ze-
nuk zure inguruko norbaiti
bikotekideak tratatu txarrak*

*eragiten dizkiola jakinen ba-
zenu?*. Lanak otsailaren 8a arte
aurkez daitezke posta arruntez
(Foru enparantza 1, 31740,
Doneztebe) edo elektronikoz
bidalita (*bibliodoneztebe@
yahoo.es* helbidera idatziz).

Sariak

Kategoria bakoitzeko hiru sari
izanen dira: 12-16 urte bitar-
teko irabazleak Ostiz liburu-
dendan gastatzeko 100 euro-
ko erosketa-txartela eskura-
tuko du; bigarrenak eta hiru-
garrenak, berriz, 50 euroko
erosketa-txartela. 16 urtetik
goitiko irabazleak 150 euro
jasoko ditu; bigarren eta hi-
rugarrenak, berriz, 50 euroko
erosketa-txartela.

Lehiaketaren oinarriari bu-
ruzko zehaztapenak Donez-
tebe Udalaren webgunean
ikus daitezke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekako Eguberrietako saskia

Rosario Erasun izan da aurtengo Erreka Kirol Elkartearen
saski paregabearen irabazlea. Berak erosi du 9.393 zenbaki
sariduna. Bertze aldetik, Errekak ohi bezala agurtu zuen
urtea: mendizaleak Mendaurrera igoz eta korrikalariak San
Silvestre lasterketan parte hartuz.



ALICIA DEL CASTILLO

Zilarrezko Titarea Lucia Garro jostunari

Santa Luziako feria bi egunetan banatu zen. Jostunen
egunean, Udalaren izenean, Malu Alvarezek egindako
Zilarrezko titarea eman zioten Ibarburu baserrian jaiotako
Esther Garro Iparragirreri (argazkian, Judith alabarekin).
Igandean, berriz, feria egun handia izan zen.

Urtarrileko zine emanaldiak prestatu dituzte

Urtarrilaren 13an bi emanaldi
burutuko dira: 16:30ean *Axel*,
heroi txikia eta 18:30ean *Ani-
males fantásticos*. Hilaren 23an:
16:30ean *Orm en el reino de las
Nieves* eta 18:30ean *Oreina*.
Bigarren emanaldietatik ate-
ratako dirua MPS gaitza arra-
roaren elkarteari emanen zaio.

Ipuin Txokoa urtarrilaren 8tik aitzinera berriz ere

Astearteroko hitzordu polit
honek Eguberrietako oporren
ondoren jarraipena izanen du.
0-3 urte arteko txikiek astear-
tero 11etatik 12etara ipuin eta
musikaz gozatzeko aukera
izaten segituko dute. Haizea
Loira izanen da txokoaren
arduraduna orain ere.



Atarrabiako San Andres erroten egin zuten aurkezpena. UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroa Ezagutu Sarearen webgune berria aurkeztu dute

Espazio natural eta bereizgarriak dinamizatzeko lana sendotu du, tartean eskualdeko hainbat

TTIPI-TTAPA ESKUALDEA

Nafarroa Ezagutu Sarearen webgune berriak espazio natural eta bereizgarriak dinamizatzeko lana sendotu du, eta mapak, abegi-zentroak eta zerbitzuen eta baliabideen informazio-egutegia gehitu zaizkio. Webgune honi esker, hainbat eremuetako enpresa kudeatzaile eta erakunde elkartuek trukerako eremu komun bat izanen dute sarean. Aldi berean, Nafarroa ezagutu eta bisitatu nahi dutenek erakusleiko bat izanen dute tokiko produktu eta ibilbide eta espazio naturalen eskain-

tzari buruz kontsultak egiteko, turismo-zerbitzuen zuzeneko salmenta egiteko eta haien ekitaldi edo jarduera sozio-kulturalen agenda komun bat edukitzeko.

Lurraldearen eta iraunkortasunaren Nafarroako Lursarea Agentziak bultzatutako eta koordinatutako elkarte bat da

EREMU HORIEN ARTEAN DAUDE BIDE BERDEAK EDO BERTIZKO PARKEA

Nafarroa Ezagutu Sarea. Due-la gutxi sortu zen, Foru Erki-degoko tokiko agenteek eurek—hogeita hamar bat espazio natural, bereizgarri eta bide natural baino gehiago biltzen dituen—ekitaldi edo jarduerak partekatu eta zerbitzu komunez hornitzeko egindako eskaerari erantzunez. Esperientziak eta ezagutza trukatze eta eskaintza osatzeko aukera ere emanen du. Eremu natural horien artean daude Bidasoa eta Plazaolako Bide Berdeak, Bertizko Natur Parkea, Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeak, Leurtzako urtegia edo Zubietako errota.

Isabel Elizalde, Nafarroako Gobernu Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazio kontseilariak aurkeztu zuen webgune berria abenduaren 18an Atarrabiako San Andres Errotan.

Lurraldea lantzeko bertze modu bat

Elizaldek honela azpimarratu zuen: «web-tresnahau egitean, modu desberdin batean lan egin dugu eta proiektu honen barnean Nafarroa Ezagutu Sarearen elkartearen baitan dauden espazio natural, toki-ko agente edo udalak kudeatzen dituzten pertsonen eurek egindako lan garrantzitsua agerian utzi du. Ingurune naturala mantentzearen aldeko apustu bat da, espazio horiek aktibo bat izan daitezen landa-ingurunean jardun eta hura indartzeko».

Autoa erosi dute Malerreka eta Bortzirietako Mankomunitateek

TTIPI-TTAPA BORTZIRIAK-MALERREKA Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak eta Malerreka Mankomunitateak zenbait lan eta proiektu aitzinera eramateko, elkarlana dute oinarri. Honen adierazgarri bi entitateak egindako azken erosketa. Erositako auto berria entitateek izaten dituzten laneko bidaiak egiteko erabiliko da, intzidentziaz arduratzeko eta materiala garraiatzeko.

'Zer non aplikazioa'

Bertze aldetik, Eguberrien bueltan sortzen diren hondakinak behar bezala kudeatzeko eta «zabor bakoitza behar den edukiontzia edo gunean uzteko» helburuz, Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak 'Zer non' aplikazioa sortu du. Google Play storeko bilatzailean 'Bortzirietako zer non' sartuz bilatu eta deskarga daiteke.



Mankomunitateen auto berria.

Bertako sagarrekin egindako sagardoa



TXOTX
DENBORALDIAREN
IREKIERA:
URTARRILAK
20

250 lagun eserita Klimatizatua
Sagardotegiko menua

Meaka auzoa 102 · 20304 IRUN · T. 943 623 130
www.olasagardotegia.eus



BIZIKLETEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA
FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak,
lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com



ZUBIETA

San Anton Eguna ospatuko dute urtarilaren 17an

Arratsaldean dantzaldiaz gozatzeko eta txokolate beroa dastatzeko aukera izanen dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Abenduan ospakizunak izan zituzten herrian eta Eguberriak Beñat Gaztelumendi eta Jexux Mari Irazuk girotutako errege bezperako bertso-afariarekin borobildu zituzten. Joare doinuekin inauteri usaina hedatzea lortu zuten.

Bien bitartean, urteroko beste hitzordu bat izanen dute zubietarrek. Heldu den ostegunean, urtarilaren 17an, San Anton Eguna ospatuko dute. 11:00etako mezarekin hasiko dute eguna. Mezondoan elizatarian luntxa eskainiko dute.



Dantzaldia izanen dute arratsaldean.

Bazkariak ere eskainiko dituzte. Arratsaldean Joxe Angelen musika izanen da estalpean eta dantza eta dantza artean txokolate beroa dastatzeko aukera izanen dute.



IZASKUN ZUBIALDE

Gutunak eman eta opariak jaso

Abenduaren 22an Mari Domingi izan zen herrian. Etxez etxe gutunak bildu ondotik, abenduaren 24an, Olentzero lagun zuela itzuli zen herrira. Urduritasuna, irribarreak eta ilusioa agerikoa zen txikien aurpegietan. Opari asko utzi zituzten eta orain horiez gozaten dabilta gaztetxoak.

MALERREKA



ARANTXA ITURRALDE

Beintza-Labaien ere Olentzeroren bisita

Plazan elkartu eta herrian barna kantari ibili ziren herritarrek abenduaren 24an. Ondotik, Olentzero menditik jaitsi zenean, merienda goxoaz dastatzeko aukera izan zuten. Herriko haurrak abendua ailegatzeko eta berriz ere Olentzero ikusteko esperoan daude.

Iturenen 'El guardian invisible' filma grabatzen

Herriko hilerrian *El guardian invisible* filma grabatzen aritu dira. Jose Ignacio Ariztegi herritarra Angel Alkainekin eta bertze bi aktoreekin batera. Ereindako haziaren uzta biltzeko zain daude orain.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zubietarrek Mendaurrera buelta

2018a agurtzeko mendi-irteera antolatu zuten zubietarrek. Eguraldi ederra lagun, kuadrilla polita bildu zen. Batzuk herritik eta bertzeak urtegitik abiatu eta kaxkoan elkartu ziren. Ermitan mokadutxo bat jan eta indarberrituta itzuli ziren.



Giro ederrean ibili ziren abenduaren 24an Iturenen eta Aurtitzen. UTZITAKOAK

Eguberrietako ekitaldien ondotik inauteriei begira

Abenduaren 24an Olentzerori ongietorri ederra eskaini zioten aurtiztar eta iturendarrek

ARKAITZ MINDEGIA

Bertze behin, bikain joan dira Eguberriak. Urtero bezala, Olentzero etorri baino lehen, Aurtizko eta Iturengo umeak karrikak alaituz ibili ziren Eguberrietako kantak kantatuz. Eta ondotik, ongietorri bikaina egin zioten Olentzerori. Eguneke protagonista joaldunen laguntzarekin ailegatu zen plazara, haurren eskutitzak eta muxuak jasotzeko prest.

Urtari bukaera eta hasiera otordu eta besta giroan eman zioten herritarrek. Errege bezpera, berriz, joareak astinduz joan zen bertze behin. Ohi

bezala, besta haundia izan zen. Arratsaldean, joaldun gaztetxoak atera ziren eta gauean Aurtitzen eta Iturenen ostatueta egin ziren afarien ondotik, joaldun helduxeagoak animatu ziren.

Batzuk Iturengo ostatuan musikaren erritmora dantzan aritu ziren bitartean, joaldunak Aurtitz, Ituren eta Zubietan barrena joare soinuak zabalitzen ibili ziren, inauteriak ate joka dauden seinale. Dagoneko, urteko egunik berezienak ailegatzeko esperoan egonen dira herritar bat baino gehiago.

Maika Ariztegi hirugarren Urrezko Kopan

Urrezko Kopa jokatu zen joan den abenduaren 21ean Donostian eta Maika Ariztegi herriko aizkolaria ere bertan izan zen. Txapelketako lehen edizioan txapela jantzi bazuen ere, aldi honetan, iturendarra hirugarren postuan sailkatu zen.

Joare soinuak herritik kanpo ere bai

Eguberrietan, Iturengo eta Aurtizko joaldunen joare soinuak herritik kanpo ere zabalitzen aritu dira. Iturengo joaldun helduak, erraterako, Arrasaren ibili ziren eta gaztetxoak Oreretan. Aurtizkoak, berriz, Elizondon ibili ziren.



Ikuskizun polita eskaini zuten abenduaren 21ean eskolako ikasleek. A. MINDEGIA

Zazpi sari eder zozketatu dituzte eskolako gurasoek

A. MINDEGIA

Urtero bezala, Pulunpa eskolako gurasoek egutegiak eta boletoak saldu dituzte eta boleto horien zozketa abenduaren 21ean egin zuten, lehenbiziko hiru hilekoa borobiltzeko bestan. Zazpi sari eder zozketatu zituzten: lehenbiziko hiru sariak, saski bana, El-

gorriagako Anteri, Zubietako Texasi eta Iturengo Izaskuni tokatu zaizkie eta seigarren saria, Menditxuriko oparia, Zubietako Maiderri. Laugarren (0357 zenbakia), bosgarren eta zazpigarren sariak (0225) oraindik ez dira atera. Hilabeteke epean agertzen ez badira, berriz zozketa egingen da.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

iBARGOYEN
 SUMINISTROS CARROCEROS

www.ibargoyen.net **943 616 587**
 Errotaren Errepidea, 21 - IRUN



Elkarteko ordezkariak bilkuran. F. ETXEBERRIA

Orain artekoari eta 2019ari begira bilkura egin dute

Arkupeak elkarteak 2019 urtera begira 539.690 euroko aurrekontua zehaztu du

FERNANDO ETXEBERRIA

Abenduaren 20an orain artekoaz eta 2019rako aurreikusenez solastatzeko batzarra egin zuten. Zuzendaritza Batzordeak bilkuretan aipatutakoari egin zieten tarte: mendi batzorde bat sortu dela, koloretan inprimatzeko fotokopiagailu bat erosi dutela, ikas-

taro eta kiroldegietan %50eko beherapena izanen dutela... aipatu zuten. Aurten egitekoak dituzten bidaiei, idazkariaren soldataigoerari eta monitoreen aseguruari erreparatu zieten gero. Diru-laguntzei eta loteriari esker, 2019rako 539.690 euroko aurrekontua du elkarteak.



F. ETXEBERRIA

Zumarragako ferian izan dira

Euriaz babesteko aterkia hartu eta, urtero bezala, Santa Luzia Egunean Zumarragan egiten duten ferian izan ziren elkarteko kideak. Azienda eta postu artean ibili ondotik, mahaiaren bueltan bildu ziren eta bazkari ederraz gozatzeko aukera izan zuten.



F. ETXEBERRIA

56 lagunek Uraren Bidean barna ibilaldia egin dute

Elkarteko 56 kidek abenduaren 18an Doneztebeko Merkatu Plazan elkartu eta Uraren Bidean barna Zubietara joan eta buelta egin zuten. Ederki bazkaldu ondotik kantuan eta dantzaz ibiltzeko aukera izan zuten.

Urtarrilaren 22an mendi-irteera Lesakan

2018an antolatu zituzten mendi-irteeretan elkarteko 530 bazkidek hartu zuten parte. Hori ikusirik, aurten ere hila-beteroko hitzorduak antolatu dituzte: urtarrilean Lesakara, otsailean Hondarribira, martxoan Arantzara, apirilean Etxalarrera, maiatzan Leitza-ra, ekainean Berastegira, uztailean Txamantxoiara, abuztuan Larraitza, urrian Piri-nioetara... joanen dira. Urtarrilekoa dagoeneko zehaztua dute. Hilaren 22an, asteartean, egingen dute. 09:00etan dute zita.

Udalak plaza ondoan ez aparkatzea eskatu du

Autobusak bueltak emateko dituen zailtasunei irtenbidea eman nahi diete

JAIONE ARIZTEGI

Herriko haurrek, Doneztebera eskolara joan ahal izateko, goizero herriko plazan hartzen dute autobusa eta arratsaldetan ere, toki berean jaisten dira autobusetik.

Plazan ez aparkatzeko piboteak paratu zituztenetik autobusak buelta emateko zailtasunak izaten ditu. Hortaz, autobusak buelta ematen duen lekua markatu dute. Horrekin batera, Udalak marraz margotuta dauden tokian ez aparkatzeko deia egin du, egon daitezkeen arazoak saihesteko.



Lurrean marraz margotu dituzte.

Egutegiak salgai

Urrozko txokotako argazkiekin egutegia egin dute. Ostatuan eta urrozkoargazkiak@gmail.com idatziz lor daizteke. Zazpi eurotan daude salgai.



EDURNE BERTIZ

Olentzeroren bisita bertze urte batez

Abenduaren 24an Olentzero izan zen herrian. Herriko haurrak etxez etxe eskean ibili ondotik eta Olentzeroren zain egon bitartean Herriko Ostatuan meriendatu zuten. Harrera beroa egin zioten herritarrek: su artifizialek eta dantzaremanaldiak girotua. Trukean haurrek opariak jaso zituzten.

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera **finantziazioa**,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**





Malerrekako jubiloteketako 26 erabiltzaile bildu ziren abenduaren 20an Sunbillako udaletxean. UTZITAKO ARGAZKIA

Malerrekako jubiloteken lehen topaketa egin dute

Gaur egun 34 erabiltzaile daude Donezteben, Ezkurran, Sunbillan eta Zubietan eta abenduaren 20an elkartu ziren

TTIPI-TTAPA

2017ko irailean hasi ziren martxan Doneztebe, Ezkurra, Sunbilla eta Zubietako jubilotekak. Malerrekako Mankomunitateak bultzatu, eta Nafarroako Gobernuaren eta La Caixaren laguntzari esker martxan dagoen proiektua da.

Ongizate espazio bat eskaintzea, elkarren arteko erlazioak bultzatzea eta beste helburuen artean, sormena, memoria, arreta, orientazio... gaitasunak lantzea du helburu nagusi Jubilotekak.

Gaur egun, 34 parte-hartzaile daude eta Donezteben,

Ezkurran eta Sunbillan astean bi egunez eta Zubietan, berriz, astean behin elkartzen dira, Ramoni Ordoki lesakarra beraien jardueretan teknikari-gidari dutela.

Jarduera aunitzen artean, azkeneko hilabeteen, partehartzaileak gogotsu prestatu eta entsaiatu zuten Eguberrietako abestiren bat eta hortik sortu zen Malerrekako jubiloteken topaketa hau antolatzekeo ideia.

RAMONI ORDOKI DUTE TEKNIKARI ETA GIDARI LAU HERRIETAN

Topaketa Sunbillan egin zuten abenduaren 20ean. Hurrela, Udaletxeko hirugarren solairuan, Malerrekako jubiloteketako 26 pertsona elkartu ziren, elkar ezagutu, esperientziak elkarbanatu eta urteari akabaila emateko. 10:00etan zegoen finkatua topaketa, baina lehendik ere hasi zen jendea urduri baina irribartsu hurbiltzen udal-etxera. Aurkezpenak eginda, guztiak elkarrekin *Hator-Hator* abesteko momentua iritsi zen eta ondoren bi bingo partida jokatu zituzten. Hainbertze urduritasunen ondoren, otordu goxo batez disfrutatzeko aukera izan zuten. Giro ederrean akitu zen topaketa, baina aitzinetik hurrengo urterako hitzordurako, Ezkurra-ko parte-hartzaileek hartu zuen erreleboa.

Malerrekako jubiloteken lehendabiziko topaketa hau guztiz aberasgarria eta arrakastatsua izan da bai partehartzaileentzat, baita proiektu hau aurrera atera dadin lan egin duten guztientzat. Baina bereziki, lerro hauek aprobe txatu nahi lituzkete, eskerrak emateko Nafarroako Gobernuari, La Caixari, Sunbillako Udalarari, Ezkurra-ko Jaione Zabalarri eta Ramoni Ordoki teknikariari, beraien borondate, inplikazio eta lanarengatik.

Bengotxea, Kortaria eta Ardiarana gaztagileei aitortza egin diete Ordizian

TTIPI-TTAPA

Aurten nazioarte mailan sari-tuak izan diren Idiazabal Jatorri Izendapeneko gaztandegien aitortza ekitaldia egin zuten Ordiziako Eguberri Eguneko azokan. Horien artean zeuden Orabideko Kortaria, Urdazubiko Bengotxea eta Bertizaranako Ardiarana.

Hamabigarren urtea da Idiazabal Jatorri Izendapeneko gaztandegiek *World Cheese*

Awards lehiaketan parte hartzen dutela. Aurten 62 domina lortu dituzte: Urrezko 13, zilarrezko 27 (bi lortu zituen Bertizaranako Ardiaranak), eta brontzezko 22 (bana Bengotxeak eta Kortariak).

Bertzetik, Gourmet Quesos lehiaketan Urrezko domina lortu zuen Kortariak apirilean Madrilen; Erresuma Batuko Great Taste Awards lehiaketan izar bat lortu zuen Bengotxeak;



Nazioartean saritutako Idiazabalgo gaztak errekonozitu zituzten Ordizian.

eta Seu D'Urgell-eko Pirinioetako Artisanu Gazten lehiaketan,

berriz, brontzezko domina Bengotxeak berak.

INAUTERIAK

SUNBILLA

ILBELTZAK 25, ORTZIRALEA

09:00etan Ariztigain kanpinean gosalduko dute. **Ondotik** herriko gazteak, bi taldetan, baserrietara joanen dira, Modesto eta Joxe Angel akordeoilariekin. **Bazkaria** egingen dute, Exkernekobordan Mendaurre aldekoak, eta Bustitzen bertzeek. **Arratsaldean txokolate beroa** dastatzeko parada izanen dute herriko ttikiek eta **16:30etik 19:00etara Dantzaldia izanen dute** frontoian, Agerralderen eskutik. **21:30ean** eskean dabiltzaneren afaria izanen da, Elortxuri jatetxean; eta **emakumeen afariaren** XXV. edizioa Ulibeltzak Elkartearen. Afal ondotik **sorpresa** izanen dute.



ILBELTZAK 26, LARUNBATA

10:00etan Bustitz ostatuan gosalduta, gazteak **eskean** ibiliko dira Beñat akordeoilariekin. **Ondotik** bazkaria egingen dute Fondan. **17:00etatik 20:00etara** Disko Festa izanen dute Ulibeltzak elkartearen. **Gauean** gazteek Elortxurin **afalduko dute**.

ILBELTZAK 27, IGANDEA

11:00etan karrozen desfileko denboran, opilak, gaztainak, tortilla eta ardoa banatuko dizkie Ulibeltzak elkartearen ikusleei. Desfilea bukatzerakoan, **bi magren eta bildotsaren** zozketa egingen dute. **14:30ean bazkaria** izanen dute Ulibeltzak elkartearen, ondotik, berriz, **dantzaldirako** parada izanen dute, Santxotenaren eskutik.



SUNBILLAKO UDALAK

*Inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi*



MENDEBERRIA
eskabazioak S.L.

ONGI PASA INAUTERIAK



GARRAIKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

LEKU EDER 13 · 31791 SUNBILLA

675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 · 672 098 384

SUNBILLA

Frantxiska IRIARTE NAVAZ

«Tamaina eta estilo guztietako mozorroak josi izan ditut»



Lizun
GAZTANDEGIA
ONGI PASA INAUTERIAKI!

Sunbilla · Tel: 948 450 862

SASOI
eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 F. 948 456 168
info@sasoi.es

Ongi pasa inauteriak!!



Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

Bustitz ostatua

Ongi pasa inauteriak!

PINTXOAK · RAZIOAK
HAMAIKETAKOAK
KAXULAK · BOKATAK

T. 948 627 919
Leku Eder - SUNBILLA

INAUTERIETAKO MENU BEREZIA

JANARI-DENDA

MARISOL SL ONGI PASA INAUTEAK

JANARIK | TABAKOA | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA
Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T. 948450608



ALTZURI

ONGI PASA INAUTERIAKI!

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

Leku-Eder, Bustitz · 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es · Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 · 699 461 394

SU EGURRA ETA PIKETEAK SALGAI



HARATEGIA
CARNICERIA

M^a JESUS

Karrika Nagusia, 11 · SUNBILLA
T. 948 451 530 · M. 686 279 252

ONGI PASA INAUTERIAKI

ZONALDEKO KALITATEZKO HARAGIA
ETXEKO PRODUKTU PRESTATUAK
ZONALDEKO GAZTAK



Sunbillan sortu eta bizi den 92 urteko emakumea, karta-jokalaria, kirolzalea eta lagunena laguna da Frantxiska Iriarte. Ez du denbora alferrik galtzen, gisa guztietako jarduerak egiten ditu: «astean bitan udaletxean jubilotekako lagunekin biltzen naiz, ordenagailuan denbora-pasak egiten ditut, irakurtzea gustatzen zait...».

Euria edo hotza izanagatik, ez ditu bere egitekoak baztertzen: «eguraldi ederra dagonean oinez buelta bat ematea gustuko dut eta euria ari duelarik bizikleta estatikoan ibiltzen naiz». «Egunero» ateratzen da etxetik. Izan ere, bertze hiru lagunekin batera «ordu eta erdiz» karta-jokoan aritzeko biltzen da: «Fonda ostatuan elkartzen gara, ni naiz lauretan zaharrena. Joko berean aritzen gara egunero, 31 izena du. Bi zentimoko bortz txanpon jokatzeko baina etxera joateko ordua ailegatzen denean dirua, berriz ere, banatzen dugu. Horrela ez gara haserretzen».

JOSTUN TREBEA

Bizitzako hariak ez ezik, oihalak josten ere trebea da sunbildarra. «20 urte» zituela hasi zen: «momentu hartan gustuko nuen eta Donostiara joan nintzen jantzigintza ikastera. Zorionez gustuko dudana egiteko aukera izan dut». Hiru lagun biltzen ziren saioetan: «donostiar emakume bat genuen irakasle». Etxeko enbriak segitu eta irmotzeko aukera izan zuen. Bere amak «etxe koentzat bakarrik» josten zuen, berak, berriz, gisa guztietako lanak egiteari ekin zion. Garai hartan «arropa eginak dendetan saltzen ez zirenez soinekoak, gonak, blusak, trajeak, berokiak... denetarik» egiten ikasi zuen.

Gaur egun, jostunak «gero eta guttiago» direla nabarmendu du: «errazagoa da arropa eginak erostea». Hortaz, «egun, nagusiki, petatxuak eta azpildurak edo tolesdurak egin, kremaileak jarri, arropak mehartu... egiten dut». Dena dela, «norbaitek zerbait zehatza nahi badu» ere jostunengana jotzen duela gaineratu du.

Inauterien atarian, jantzi andana josi izan ditu sunbilda jostunak. Lehendabizikoa karrozen desfilea hasi zen urtean, 1982an, egin zuen. Ongi oroitzen du aldi hartan semearentzat egin zuen «Aita Santuaren jantzia». Orduz geroztik «pila bat» josi izan ditu: «tamaina eta estilo guztietakoak». Bertzeak bertze, «andaluziarren arropak, mosketeroenak, mexikarrenak, majoretteenak, erromatarrenak, trogloditenak...» egin izan ditu. Berarentzat bereziena soinean eraman zuena izan zen: «jauskariz mozorrotu nintzen aldi hartakoa, motxila eta jausgailuarekin. Hagitz originala izan zen». Oraindik orain, inauteriak hurbildu ahala haria eta orratza eskuetan dituela ibiliko da, familia-koei beraien lanetan «azken ukituak» egiten laguntzen baitie.

EMAKUMEEN AFARIAK MENDE LAURDNA

Inauterien garapena barrutik ezagutu du Frantxiska Iriartek: «inauteriak antzina gizonendako ziren eta emakumeek ere parte hartzeko lan egin behar izan zutela» oroitzen du. Zehazki, helburu horrekin egin zuten duela 25 urte lehendabiziko emakumeen afaria. Bospasei urtez hartu zuen parte: «hasiera hartan gutti goitti-beheitti 70 lagun biltzen ginen eta giroa ederra izaten zen: kantatzeko, dantzatzeko eta irri egiteko aukerarik ez zen falta». Hortaz, gaur egun indartzen ari den besta izateak «poz handia» eragiten dio sunbildarrari.

Igandea ere egun berezia izan ohi zen: «karrozak ikustera ateratzen nintzen. Dena isilpean gordetzen zuten eta sekretua izan ohi zenez, kuadrilla bakoitzak prestatutakoa ikusteko gogo handia izaten nuen». Badiu, zenbait oroitzapenean iltzatuak: «hegazkin batena, Julio Iglesias zetorren bertan; eta Bidasoko merkantziak zekartzan trena, erraterako, ongi eginak ziren». Gaur egun, «etxeko balkoitik» ikusten du desfilea: «suertekoa naiz, hemendik pasatzen dira». Ondotik, «salda beroa hartu eta familiakoekin bazkaltzeko» eguna izaten du.

«Emakumeek inauterietan parte hartzeko asmoz antolatu zuten duela 25 urte emakumeen afaria»



HERRIKO BERRIEMAILE

Luzaroan inauteriez gozatzeaz gainera, horien berri eman izan du. Xorroxin irratiko berriemaile izana da: «zazpi edo zortzi urtez aritu nintzen». Ez du ongi oroitzen nolatan hasi zen lan horretan: «norbaitek aipatu izanen zidan, eta ni prest». Herriar bati txanda pasa bazion ere, iratiarekiko harremana ez du eteten utzi: «etxean naizenetan Sunbillako berriak aditzen ditut».

Ez da nolanahikoa egin duen ibilbidea, haria orratzean sartu,
zirt-zart zirt-zart arropak josi,
hitzak harilkatu eta herriko berriak gertutik segitu...
Ibilbide ederra eta oparoa,
herria maite duelako eta herritarrak estimatzen dituelako.

INAUTERIETAN zure gosari eta bazkariak ARIZTIGAIN KANPINEAN!!



ONGI PASA INAUTERIAK!!

SUNBILLA • 948 450 540
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

larreta

IGELTSU PROIEKTATUA

Bidasoa kalea 36 - Bera
larretaigeltsua@gmail.com

PLADUR LANAK

Gorka Arrebexa 627.225.514 Juanen Saralegi 637.921.299

JAVIER IBARRA

ERAIKUNTZAK • GREMIOEN KOORDINAZIOA
MOTA GUZTETAKO IGELTSERITZA LANAK

ONGI PASA
INAUTEAK!!

- Etxe bizitza berriak
- Zahar berritzeak
- Erreformak • Teilatutak
- Komun eta sukaldeak
- Lur zoruak
- Harri lanak orokorrean
- Hormigoio lanak

T. 699 122 815
31791 - SUNBILLA
(Nafarroa)



IRURI MOTOR

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA INAUTERIAK!

T. 948 450 399 • 620 950 687
Iruña-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

ITUREN ZUBIETA AURTITZ

ILBELTZAK 28, ASTELEHENA

Goizean, gosaldu eta indarrak harturik, **Zubietako joaldun**, mozerro eta karrorrek **iturendarrak** bisitatuko dituzte. Bide erdian, **aurtiztarrekin** elkartzeko eta salda beroa hartzeko geldialdia egingen dute. Iturenen bertakoekin bildurik, mozerro artean eta joareen soinupean ibiliko dira herritar eta bisitariak. Zubietan Modestok girotuko ditu otorduak (egunero); eta Iturenen, Xala eta Olako taldeen eskutik, dantzaldia izanen dute.

ILBELTZAK 29, ASTEARTEA

Bezperako **bisita itzuliko** diete aurtiztar eta iturendarrek, Zubietako plaza hankaz goiti paratzeko momentua izanen da. Arratsaldean Iturenen Xala taldea izanen dute.

ILBELTZAK 30, ASTEAKZENA

Zubietan, Ituren eta Aurtitzen ez bezala, kontuak egiteko eguna izaten da. Goizean goiz, puskak biltzen ibili ondotik, gosaria izanen dute. Bazkaldu ondotik, berriz, **kontuak** egingen dituzte. Arratsaldean, giroak lagunduz gero, joareak jantzi eta harat-honatean ibiliko dira joaldunak. **Aurtiztar eta iturendarrak** ere, **etxez etxe** ibiliko dira joaldun eta trikitilariekin. Iluntzean, **afariak** izanen dira elkarteetan. Bien bitartean, Iturenen Kristianen eskutik, musika izanen dute.

OTSAILAK 2, LARUNBATA

Kontuen eguna larunbatean izaten da Iturenen eta igandea Aurtitzen. Iturenen **mahaiairen bueltan bilduko dira**, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu bertsolariak lagun dituztela, Herriko Etxeko ganbaran. Bazkaldu ondotik, **afarira bitarte dantzaldia** izanen dute, Hauspolariek taldearen eskutik. **Aurtizen xaharren afaria** egingen dute igandean.

ileapaindegia
EIDER
Estetika



Asteartea, ortzeguna eta larunbata GOIZEZ
Asteazken eta ortzirala ARRATSALDEZ
Kontsejo, 6 · ITUREN
T. 630 633 445

abarun
AURTIZKO ATERPEA



Gosariak
Pintxoak
Menuak
Telf: 948 45 00 67

ALTXUNEAerretegia



ongi pasa inauteriak!

IREKITA: ostiral eguerditik igande eguerdira, besta egunetan eta besta bezperatan
Tel. 948 450 410 | ITUREN | NAFARROA

Pitti
ESKABAZIOAK



MINI ESKABAZIO eta GARRAIO LANAK enpresa eta partikularrentzat
T 616 513 491
TIF 948 451 389
Ezpelura, 1 · DONEZTEBE
pittieskabazioak@hotmail.com

MADERAS SANTESTEBAN



Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak
Montajea obran
Teilaturako egiturak (izei, haritz eta douglasezkoak edo laminatua)
Osagarriak
Autoklabe tratamendua
www.maderasantesteban.com
Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com



BEROTZA
PELLET



Pellet banaketa ETXERAKO ZERBITZUA

BEROGAILUA GALDARA SUKALDEA GALDARA MISTOA



BEROTZA
PELLET



ZAKUETAN (15 kg)




GRANELEAN




T. 948 450 063- 620 886 443 • info@berotza.es • www.berotza.es • 31745 ITUREN (Na)

Beñat ELIZALDE

«Bisitariei ikusle soil izateari utzi eta bestan parte hartzeko erranen nieke»



«Joaldunek arau batzuk errespetatu, jantzi jakina paratu, ibilbide zehatza egin... behar izaten dute.

«Egunerokotik atera eta kaosak tokia hartzen duen antzerkia» dira inauteriak Beñat Elizalderentzat: «betiko zalantza egun horietan moztaroz jantzi edo kendu egiten dugun izaten da». Ez dira nolanahiko egunak, «urteko berezienetakoak» dira berarentzat eta hortaz herrian egoteko eginahalak egin izan ditu: «ikasle garaian, azterketak nituenean, ere egunen batean etortzeko modua bilatzen nuen».

Urtez urte inauterietako bizipenak aldakorrek izan dira iturendarrarentzat: «inauteriek inprobisatzeko aukera handia ematen dute eta horrek momentuak bakarrak izatea ahalbidetzen du». Modu batera edo bertara biziagatik, «astelehena» beti da berezia Elizalderentzat: «goiza, moztarotzeko momentua, bazkaria, arratsaldean arkupeetan izaten den giroa... ezinhobeak dira».

Aunitzentzat inauteriek erritmo jakina dute, joaldunen pausoak markatua. Halere, ezin erran daiteke Zubieta, Aurtitz eta Iturengo inauteriak horretara mugatzen direnik, ba-dute bertze berezitasun bat: «gure herrian disfrazatu ordez moztarotu egiten gara, bertzela erranda, zomortu egiten gara». Bi aukerak muturrekoak dira: «joaldunek arau batzuk errespetatu, jantzi jakina paratu, ibilbide zehatza egin... behar izaten dute. Nik batere araurik ez dagoen jokoan sartu eta moztarotzea dut gustuko».

«Gero eta gehiago» gustatzen zaio. Hortaz, azken urteetan «ia egunero» moztarotu izan da. Ideia gogoratzen zaidanean «joan eta prestatu» egiten du: batzuetan «ordu ttikietan lagunekin elkartu eta lau trapu hartuta» eta bertzeetan «bakarrik». Halere, «goitik beheiti berdin-berdin moztarotzea ez dut gustuko». Jantzi bat edo bertzea hartuz ongi tapatu eta «azpian nor dagoen ez erakustea izaten da gure jokia».

Orokorrean «aglomeraziorik gabeko» bestak nahiago baditu ere, herriko inauteriei «momentu jakin batzuetan jendea falta zaiela» iruditzen zaio. Dena dela, bisitariek ikusi ordez inauteriak bizi egin beharko lituzketela uste du. Hortaz, bertaratzen direnei «antzerkian parte hartzeko eta mugikorrek momentu batez sakelean sartzeko» deia luzatu nahi izan die.



Iturengo eta Zubietako Udalek
inauteri zorientsuak
opa dizkizute herritar eta bisitari guztiei



ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA


PVC
LEIHOAK

BERTAN
EGINDAKO
PVC FABRIKAZIOA



BERRITZEAK ETA OBRA BERRIAK,
EGURRA, ALUMINIOA ETA PVC.

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



Leitza errep. · 31745 ITUREN
M. 676 393 996 · T. 948 450 327
carpinteriaecheverria@yahoo.es



Inauterietako moztarotetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es

mascara@lamascara.es

Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04

LEITZAKIROLAK

Urtarrilean eta otsailean
MERKEALDIAK!

Elbarren, 36 • LEITZA
Tel. 948 610 976
info@leitzakirolak.com
www.leitzakirolak.com



LEITZA

ILBELTZAK 25, OSTIRALA

15:00 umeen kalejira izanen da, musikaz alaiturik.



OLIVEIRA - VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 629 418 431 • 606 307 810

Aliprox

Urdaitegia Harategia Arraindegia Frutategia

Tel: 948 510 007 • 948 610 657
Elbarren, 20-71 ongi pasa ihoteak!

ONGI PASA IHOTEAK!

Lizarraga
harategia

"GUREA, KALITATEA"

Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

ongi pasa ihoteak!

Maimur

Herriko Plaza
LEITZA

Tel. - Faxa:
948 510 146

maimurleiza@gmail.com

- Prentsa • opariak • testu liburuak
- Plastifikatzeak • enkuadernatzeak
- Inprenta lanak • fotokopiak

LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
Tel: 948 510 598 • 669 368 991
LEITZA

Dia OKABIO

SUPERMERKATUA
KAFETEGIA

Ihote zoriontsuak
opa dizkizuegu!

T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza

Melo Pinturak koop.

T. 609 873 178
LEITZA

www.pinturasmelo.com
pinturasmelos@gmail.com

ongi pasa ihoteak!



PERITZA TABERNA

Ihote onak pasa
eta txintxo ibili

MILA ESKER
ANTOLATZAILEEI



TXOKO taberna

Pintxoak
Otartekoak

ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 22
LEITZA
Tel: 948 510 227

ILBELTZAK 26, LARUNBATA

14:00etan Aurrera elkartean **bazkaria** egingen dute. 16:00 aldera **eskean** hasiko dira herriko etxeetan. 01:00 kalejira egingen da plazatik Atekabeltzera. Ondoren, **karaokea**.



ILBELTZAK 27, IGANDEA

12:00 mozorro eta gurdiak Incansables txaranga lagun, kalejiran aterako dira. Bazkaldu ondotik ere Incansables txaranga girotuko ditu bazterrak, herrian barna ibiliko baitira. 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara txu-txu trena herrian barna. 14:30 atsauretuak **bazkaria** izanen dute eskola-ko jangelan eta 19:00-23:00 Joxe Mendizabalen **musikaz** goza-tzeko aukera izanen dute.

Argazkiak: Nerea Mazkarian





Argazkiak: Pablo Feo

ILBELTZAK 28, ASTELEHENA

09:00etan gazteak elkartuko dira Aurrera parean Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Erreka auzoetara **eskean** joateko. **17:00 umeen kalejira** izanen da herrian. Ondoren txokolatada eta goxokiak banatuko dizkiete. **19:00etatik 23:00etara** Joxe Mendizabalen **musika** emanaldia izanen da.

ILBELTZAK 29, ASTEARTEA

09:30ean moztorroak Erasote auzora joanen dira, **eskean**. **11:00etatik 13:00etara** puzgarriak eta jokoak izanen dira frontoian. **14:00etan** Aurrera-ko bazkideen bazkaria izango da eta atsaureek Sagastin bazkalduko dute. **16:00etatik 18:00etara** puzgarriak antolatu dituzte frontoian. **18:30ean Atsaureen kalejira** izanen da. Ondoren, **19:30etik 21:30era** eta **23:30etik 01:30era** bitarte, Gabenara taldeak girotuko du herria.

ILBELTZAK 30, ASTEAZKENA

17:00etan Asier Kidam **magoa, zineman**.

gaztelu scl

KALEFAKIZIOA · SANEAMENDUA · GASA · ITURGINTZA · KLIMATIZAZIOA
BAITA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind, 21 • LEITZA
T. 948 510 086 · 948 510 156 · F. 948 610 856
info@fontaneriagaztelu.com • www.fontaneriagaztelu.com

ONGI PASA IHOTEAK!

Olaia Bazar

ONGI PASA IHOTEAK

Jantziak - Loreak
Jostailuak - Papertegia
Etxeko Tresnak
Garbiketarako Produktuak
Herramientak - Oinetakoak
Pijamak - Osagarriak

Landabekoa · Leitza · T. 948 510 437 · 667 675 463

SAGASTI JATETXEA

ongi pasa ihoteak!



Elbarren, 98 · LEITZA · ☎ 948 610 637



OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS
KAFETEGI
OKINDEGIA
948 610 974 | LEITZA

Ostiral, larunbat, igande
eta jai bezperetan
PIZZAK egiten ditugu



ONGI PASA IHOTEAK!

ongi pasa ihoteak!



FISIOETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

Bizkortze ariketak · Kirol eta Zirkulazio Masajea · Osteopatia
Erditze aurreko/ondorengo tratamendua
Etxez etxeko laguntza · Aseguruak
Mutuak · Partikularrak

Huarte Gotzaia, 8 3.C · LEITZA · Tel: 948 510 730



Elbarren, 47 · LEITZA
606 27 35 34 · 688 64 08 34
www.lopenea.com



**BOKATAK · KAXULAK
MENUA · PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK**

ZERALEKU

ZERAMIKA · PARKE LAMINATUA · KOMUNEKO ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

BEARZUN DETALL S.L. | Albiassu errep. ind. 31870 **Lekunberri**
948 504 486 | zeraleku@zeraleku.com | www.zeraleku.com

URKO

ZERALEKU HOGAR

SUKALDEAK · LOGELAK · SOFAK · BARNE DEKORAZIOA

BEARZUN DETALL S.L. | Aralar kalea, 58 31870 **Lekunberri**
948 504 344 | cocinas@urkozzeraleku.com | www.urkozzeraleku.com



10890€
40%
6534€



ERAKUSKETA ALDATUKO DUGU ! AUKERA PAREGABEAK!

Etorri, ikusi eta ez galdu aukera!

KIDE

aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitopenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihoteak

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T.948 510 990 F. 948 510 429
DONOSTIA: Urbietta, 60 - 1ºEzk • T. 943 420 348 F. 943 441 838
izaskun@kide.eus • www.kide.eus



ATSEDEN-GOZO
PINTXOAK, BOKATAK, PIZZAK...
BERTAN JATEKO eta BAITA ERAMATEKO ERE.
ONGI PASA IHOTEAK!



www.facebook.com/atseengo

Landabekoa 1zk kalea · LEITZA · 948 610 572

EZKAIN eraikuntzak S.L



**ongi pasa
ihoteak !!**

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T./F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com



LEIMEN S.L

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 David

Ihote zoriontsuak denoi!!



Mikel ILLARREGI ELBERDIN

«Urteko
pestarik
gustukoenak
ditut
inauteriak»

«Leitzartutako pasaitarra» dugu Mikel Illarregi, «orain dela 38 urte Leitzara etorria eta nire bizitzaren parte haundiena, eta bizipen asko eta asko Leitzan» dituen. Baina «sakonean itsasaldeko puntua» duela esanez aurkeztu digu bere burua. Irakaslea da lanbidez, «betidanik» hortan aritua, «hasieran ikastolan, gero eskolan», eta ondoren «herri txikietan» urte mordoska. Azkenaldian, berriz ere Leitzako Erleta eskolan aritu da eta aitortu digunez, Leitzan bukatu du bere lan-bizitza.

Ez zen geldirik egoteko jaio, eta «gauzak egiteko denbora eske» ibiltzen dela aitortu digu: «nire bizitza sozialean gauza eta toki askotan ibili naiz eta guztietan ahal dudana emanez». Bere burua «aktibista gisa» hartu du: «han eta hemen probatzea gustatzen zait, eta ondoren hoberena izan daitekeena sinetsita, horretan murgildu». Mendizalea dela ere adierazi digu: «libre dudan guztietan mendira joaten saiatzen naiz». Eta «argazkiak ateratzea ere gustatzen zait».



Zaletasun horiek alde batera utzita ospatuko ditu hainbeste maite dituen Leitzako inauteriak. Izan ere, inongo zalantzarik gabe, zera adierazi digu: «urtean zehar dauden pesta guztien artean, inauteriak dira gehien gustatzen zaizkidanak». Ostiral arratsaldetan eskolatik antolatzen duten kalejirarekin lehertzen dira Illarregirentzat inauteriak. «Eskolatik atera eta eguraldi ona bada, bueltatxo bat ematen dugu herrian barna. Eguraldi txarrarekin, berriz, frontoira joaten gara». Batean zein bestean «jende pila» biltzen dela adierazi digu. Mozorroari dagokionez, «lehen gela bakoitzak bere mozerroa» izaten zuela eta «bi urtetik behin aldatzen» zutela esan digu: «orain, urte batean euskal inauteriak eta hurrengoan beste gai bat aukeratzen dugu. Aurten euskal inauteriez mozerrotuko gara».

IGANDEA EGUN SEINALATUA

Larunbata egun lasaia izaten da beretzat, baina ez da etxean gelditzen: «harrapatzen dudana erabiliz mozorrotzen naiz, besterik ez bada buzo bat jantzita». Igandea, ordea, egun haundia da. «Inauterietako egunik politena eta urteko juergarik luzeena», dio. «Duela urte batzuk, larunbatarekin herri-afaria egiten zen eta besta haundia izaten zen. Igande goizean, ordea, ez zen inor ateratzen. Horri buelta eman nahian, 1998an Kultur Taldekook gaueko giro hori igandera pasatzea erabaki genuen». Larunbateko herri-afaria igandeko herri-bazkariarekin ordezkatzeari «denborarekin eskertu den erabakia» izan dela uste du. Gaineratu digunez, «larunbatetan ere besta izaten da eta batez ere kanpoko jende asko etortzen da, baina igandekoa indar haundiz sartu da».

Ilarregi ere ederki aprobetxatzen du inauterietako igandea. «Urtero kuadrilla haundia biltzen gara. Goizean elkartu, hamaiketako ederra egin eta kalera ateratzen gara». Abenduan erabaki zuten mozorrotzeko gaia eta prestaketekin «bai aurretik eta bai egunean ere, ongi pasatzen» duela onartu digu. «Tarteka desfilean sartzen gara, gero beste toki batzuetara joaten gara...». Hori bai, «beti antzeppen» bat egiten omen dute eta

«jendearen gustukua izaten da. Gure asmoa ongi pasatzea eta ongi pasaraztea da». Eta lortzen dute: «kasik 12 ordu pasatzen ditugu kalean, umorez eta gustura». Aurtengo mozorroa zein izanen den aurreratu ez badigu ere, urteotan igandearekin denetariko gaiak landu dituztela kontatu digu: «euskal inauteriak, jubilatutako gimnasia egiten, Benidormeko turista taldea, baleta egiten, autotoxokeak, mimoak... Ederki pasatzen dugu».

Igandeko ajea pasatzeko astelehena eta asteartea trankilago hartzen ditu. Bere garaian, «bost bat aldiz» ibilitakoa da baserrietako eskean eta «oso giro polita» izaten dela eta atera denetan «oso ongi pasatu» izan duela onartu digun arren, «apuru pixka bat» sentitu izan duela adierazi digu. «Baserriarrak beti oso ongi portatu izan dira eta baloratzen da beraien etxeetan halako inbasioa hartzea». Bere irudiko, «baldintza onetan baldin bada, mantentzea merezi duen ohitura da».



Baina baserrietako eskean ez ibiliagatik ez da inauterietatik aparte ibiltzen. Astearte arratsaldean, esaterako, kalejiran ateratzen da: «inauterietako oinarria duen desfilea egiten dugu. Batzuk atsaureez jantzen dira eta gu, 30-40 lagun, akerrez eta beste animaliez jantzita ateratzen gara txarangarekin eta herriko abesbatzarekin. Denak ere aurpegiak estalita, jendeak ez ezagutzeko moduan». Gero, «plazan dantzaren bat edo beste egin, eta bukatzean, mozorroz aldatu eta lagunekin afaltzera joaten naiz».

UKITU PERTSONALA EMANEZ

Ohiturak ohitura, Leitza bizi denetik inauteriak «asko» aldatu direla dio, baina «aldaketak onerako» izan direla. «Gizartea aldatzen ari da eta inauteriak egokitzen joan dira. Hala behar du». Inauterietako bi une nabarmendu ditu. Alde batetik, «baserrietako ohitura; aldatu da baina esentzia mantentzen du». Bestetik, igandeko giroa indartu zenekoa aipatu du: «inauteriak gehiago aprobetxatzeko aukera eman du».

Ez etxean ezta lanean ere. Horietan ez, baina badakigu non barna ibiliko den inauterietan Ilarregi. Hori bai, «trapu zaharrekin sortu daitezkeen mozorroak» izanen ditu soinean, «ukitu pertsonala emanez», horiek direlako gustuko dituenak. Aurpegia estalita edo gabe, aurretik prestatutako edo etxean topatzen duen lehen mozorroa jantzita, baina inauteriaz gozatzera aterako da kalera. Bera bezala beste leitza asko: «bakoitzak bere moduan gozatzen du inauterietan, eta horretan adina ez da muga».




LEITZAKO UDALA

ongi pasa ihoteaki!



tantada
iturgintza - fontaneria

Tel. **680 255 718 IMANOL ECHEVERRÍA**

ERAKUSKETA Elbarren 51, LEITZA

Aire egokitua • Iturgintza orokorra
Aeroterminia • Eguzki plakak • Lurreko suak
Biomasa • Egurrezko galdarak
Peletezko galdarak eta estufak
Zoru bero-emalea • Gremioen koordinazioa

KONPROMISO GABEKO AURREKONTUAK

SALDIAS • tantadaiturgintza@gmail.com

MUSUNZAR **OSTATU JATETXEA**

Bertan jan, zuk jaso edo guk eramanen dizugu otordua

ONGI PASA IHOTEAK!

948 51 06 07 • Elbarren, 14 31880 LEITZA







Australiara lanera joan ziren euskal herritar batzuk. UTZITAKO ARGAZKIA

Australiara lanera joan zirenen eta haien senideen bila

Berriki sortu den Euskal Australiar Alkartek Australiara joan zirenen lana ezagutzera eman nahi du

TTIPI-TTAPA

Ehunka eta ehunka izan ziren garai batean Australiara lanera joan ziren euskal herritarrak eta horiek gogoan sortu dute Euskal Australiar Alkartea. Dagoeneko elkartearen zuzendaritza ere osatu dute Australiara joan zirenen, haien ondorengoan eta Diasporako kideen artean. Zuzendaritza horretako kide da Julian Iantzi lesakarra eta Amaia Urberuaga Badiola, berriz, lehen-dakaria.

Euskaldunak nahi omen zituzten Australian. Hala, XX. mende erdi aldera, mila euskaldunekin hiru itsasontzi joan omen ziren Australiara. Hango Gobernuak ordaindu omen zituen bidaia haiek. Canguro, Emu eta Eucaliptus deitu zieten operazio haiei.

Lanera joandako gizonetako haietako aunitz, ordea, ezkontzera Euskal Herrira bueltatzen omen ziren eta hortaz, australiarrek neurriak hartu behar izan zituzten. Marta izeneko bertze operazio batean emakumeekin hegazkin bat bidali omen zuten. Joandako batzuk lana egin eta Euskal Herrira

itzuli ziren, eta bertze batzuk, berriz, lortutako diruarekin lurrak erosi eta baserriak edo farmak eraiki zituzten. Jendea behar zutenez, euskaldunei horretarako aukera eman eta milaka lagun joan ziren.

Geroztik Australian euskaldunek utzitako arrastoa ez da hutsa izan. Bi Euskal Etxe dau-de, Sidney eta Townsvillen. Baina Euskal Herrian ere euskaldun haiek egindako lana ez dute alde batera utzi nahi eta ezagutzera emateko elkar-tea sortu dute. Horretarako protagonistak elkartera bildu nahi dituzte, baita han ibili ziren eskualdekoak ere. Behin hori eginda, urtean zehar protagonistak elkartu eta hainbat ekimen egin nahi dituzte: liburuak argitaratu, argazki bilduma egin, bidaiak antolatu, urtean egun bereziren bat antolatu... Horren harira, aipatzekoa da, azaroaren 25ean bazkaria antolatu zutela Gernikan eta 253 lagun bildu zirela.

Norbaitek interesa baldin badu Urberuagari (688 86 01 97) edo Julian Iantzi (688 81 19 25) deitzen ahal dio.

Solaslagunaren aurkezpen-meriendak eginen dituzte ondoko egunetan

TTIPI-TTAPA

Solaslaguna proiektuari bul-kaldia emateko asmoz, aurkezpen-meriendak antolatu dituzte Malerrekan, Bortzirietan eta Baztanen. Gisa hone-tara, gaiaren inguruan interesa duten guztiei informazioa eman nahi diete, giro onean eta merienda baten bueltan. Eskualdeko hainbat Solasla-gunek parte hartuko dute aurkezpenetan eta haien es- perientzia partekatuko dute- la jakinarazi dute antolatzaile- lek.

Hiru aurkezpen

Malerrekako aurkezpena ur- tarrilaren 16an eginen dute, 19:00etan Donezteben. Ma- lerrekako Mankomunitatearen egoitzan eginga dute hitzordua.

Bortzirietako aurkezpena egiteko Berako Beralandeta



Solaslagunako saio osagarrietako bat.

aretoan bilduko dira. Urtarri- laren 17an izanen da, 19:00etan.

Baztango aurkezpena, az- kenik, urtarrilaren 24an eginen dute, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, 19:00etan.

Topagunetik adierazi dute- nez, egitasmoan izena ema- teko epea urte guztian zabalik dago, eta interesa dutenek 610 92 06 73 telefonora dei deza- kete edo bertzeala, solaslaguna@topagunea.eus helbidera ida- tzi.




Abenduaren 18an jaso zuten saria, Joseba Asiron Iruñeko alkatearen eskutik.

Iruñeko Udalaren literatur lehiaketako lau sari eskualdera etorri dira

TTIPI-TTAPA IRUÑEA

Azken urteotan Iruñeko Uda- lak antolatu ohi duen literatur lehiaketako sarieratik lau es- kualdera etorri dira aurren. Poesia, narrazio laburrak eta bertso-paperak aurkez zitez- keen lehiaketara eta bertso- paperetan Eneko Fernandez lesakarrak irabazi du lehen

saria (1.000 euro), *IHES!!! Ger- tu sentitu ahal izateko... ihes egitea derrigorra denean* la- narekin; bigarrena, berriz, Joanes Illarregi leitzarrak (1.000 euro); eta hirugarrena Esteban Arotzena goizuetarrantzat izan da (500 euro). Iban Garro lesakarrak poesiako aipamen berezia hartu du (250 euro).



ERRAN.EUS itxuraberritua. TTIPi-TTAPA

Mugikorrei begira berrituta dator ERRAN.EUS ataria

Gaur egungo erronkei erantzuteko eraberritu eta itxuraberritu dute ERRAN.EUS ataria

TTIPi-TTAPA

Interneten nabigatzeko modua aldatu egin da. Egunero, ERRAN.EUSEKO irakurleen %65-70 inguru mugikor bidez sartzen da, eta joera goranzkoa da. Hala, horri eta gaur egungo erronkei erantzuteko ERRAN.EUS ataria berritu dute. Aitzikoneko diseinuetan ez bezala, oraingoa smartphonetarako pentsatu da, eta hortik abiatuta egokitu da ordenagailu eta tableta formatuetara.

Hasierako orriaren pisua arindu nahi izan da, karga denborak azkarragoak izan daitezkeen. Mugikorrak kontsumo denborak murriztea ekartzen du; erabiltzaileek azkartasuna bilatzen dute; horregatik, begiratu batean informazio gehiago erakusten da orain. Irudiek indar handiago hartzen dute eta testu guttiago dago azalean. Ordenagailuko bistan, berriz, diseinua horizontalagoa da.

Azalean egindako aldaketek gain, herri eta gaitako orrialdeak ere eguneratu dituzte. *Xorroxin Irratiaren* orrialdeak nahieran estiloa hartu du, lehen zuena baino presentzia han-

diagoa hartuz. Argazki galeriek interes handia pizten dute, eta horiek erosoago ikus daitezke orain.

22 urte Interneten

1996ko uztailaren 5ean hasi zen TTIPi-TTAPAREN Interneteko ataria, duela 22 urte. Eta 1997an Rikardo Arregi Kazetaritza Saria eskuratu zuen TTIPi-TTAPAK, Komunikabideen Berrikuntza atalean. Hala adierazi zuen epaimahaiak: «TTIPi-TTAPA izan da euskarazko prentsaren munduan, ez argitalpenaren zati batekin baizik eta aldizkari osoarekin, edizio elektronikoa Interneten eskaini duen lehena». TTIPi-TTAPA TELEBISTAK iraun zuen bitartean (1998-2009), TTIPi.EUS ataria artikulua, argazki galeria eta bideoekin osatu zen.

Xorroxin irratiarekin elkarlanean

2015eko martxoan sortu zen ERRAN.EUS, *Xorroxin Irratia* eta TTIPi-TTAPA aldizkariaren eskutik. Geroztik, ERRAN.EUSEK bi komunikabideen edukiak plazaratzen ditu eta urtetik urtera erabiltzaile gehiago ditu: 2018an 14.000 inguru hilero.

Bidasoko ureko fauna, Nafarroako Gobernuaren argitalpen batean ikusgai

TTIPi-TTAPA

Bidasoko arroko fauna akua-tikoa gida argitaratu du Nafarroako Gobernuak, Bidasoko ibai-ibilguri atxikitako animalia espezie nagusiak ezagutarazteko. Espezieen 68 fitxa dituen gida Life Irekibai proiektuaren barnean landu dute.



Gidaren azala.



Joan den urtean epaimahaiaren saria jaso zuen argazkia. JUAN CARLOS OLAETXEA

Inauterietako argazki lehiaketa antolatu dute ERRAN.EUS atarian


TTIPi-TTAPA

Irudi aunitz eta koloretsuak utzi ohi dituzte inauterietan eta horiek biltzeko, argazki lehiaketa antolatu du ERRAN.EUS atariak. TTIPi-TTAPA aldizkariak eta *Xorroxin irratia* elkarlanean argazki lehiaketa egiten duten borzgarren aldia da.

Argazkiak 2019ko inauterietan ateratakoak izan beharko dute eta ERRAN.EUS atarian lehiaketarako prestatutako formularioaren bidez bidali beharko dira. TTIPi-TTAPA eta *Xorroxin* zabaltzen diren eremuetan sortu edo bizi direnek eta 16 urtetik goiti dutenek parte hartzen ahalko dute. Mugikor, tablet edo argazki kamerarekin ateratakoak izan daitezke, originalak eta bertze inon argitaratu gabeak. Koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke eta 300 px-ko bereizmena eta 28x16 zentimetroko guttiene-

ko neurria izan beharko dute. Baldintza horiek betetzen ez dituztenak ez dira kontuan hartuko.

Hiru sari banatuko dira. Epaimahaiak aukeratzen duen argazkiak Nekatur Nekazalturismo Elkarteko landetxe batean bi lagunendako bi gau eta bi gosari irabaziko ditu. Erabiltzaileek aukeratutako argazkiak, berriz, Elgorriagako bainuetxean bi lagunendako zirkuitua eta otordua jasoko du. Aipatu, erabiltzaileek martxoaren 27tik apirilaren 12ra ematen ahalko dutela botoa, ERRAN.EUS atarian. Hirugarren saria parte-hartzaileentzat izanen da. Horietako batek Elbeteko Posadan bi lagunendako otordua irabaziko du. Irabazleak apirilaren 15ean jakinaraziko dira ERRAN.EUS atarian eta sari banaketa maiatzaren eginen da.



Areto nagusian 192 eserleku eta lehen solairuan 68 izanen dita. UTZITAKOA

Herri Aretoaren kostu osoaren %67a finantzatua

Lanak bi fasetan egingen dituzte: lehenbiziko fasean berritze-lanak eta bigarrenetan ekipamenduari dagozkionak

JM BARRIOLA

Zinemazena Herri Areto bihurtzeko buru-belarri ari dira lanean. Dagoeneko lanak aurreratu daude eta aurten bukatu nahi dute. Lan horiek egin ahal izateko 2018an Gobernutik 300.000 euro jaso zituen Leitzako Udalak. Era berean, duela egun batzuk Nafarroako Parlamentuko Ogasun Batzordeak lauokak aurkeztutako zuzenketa onartu zuen. Hortaz, 2019an Leitzako Udalak 475.000 euroko laguntza jasoko du proiektua amaitzeko. Horrela bada, guztira 775.000 euro lortu dituzte.

Ez dira Gobernuak izan jasotako laguntza bakarrak. Izan ere, europar erakundeetatik energia-eraginkortasuna eta isolamendurako erabiltzeko 100.000 euro jaso dituzte. Proiektu osoaren kostua 1.300.000 euro inguru izanen dela aurreikusi dute: %60a Gobernutik, %7a europar erakundeetako diru-laguntzetatik eta gainerakoa, hau da, %33a, Udaletik finantzatuko dute.

Lan horiei esker 260 eserlekuko areto bat izanen dute herrian: areto nagusian 192 eta lehenbiziko solairuan 68.



UTZITAKOA

Garbiguneak zabalik daude

Mendialdea Mankomunitatearen eskutik, eta Gobernuaren eta Hondakinen Patzuergoaren finantziazioari esker, Leitza eta Goizuetako garbiguneak irekita daude. Isabel Elizalde inauguratu zuen herriko instalazioa eta Erleta eskolako ikasleak izan ziren lehendabiziko erabiltzaileak.



LEITZAKO UDALA

Hezkidetzaren alde bertze urrats bat

Erleta eskolako gurasoak, joan den abenduaren 6an, jolastokia berrantolatzen eta txukuntzen aritu ziren auzolanean. Jolas koloretsuekin apaindu dute lurra. Horrekin, hezkidetzaren alde egiten ari diren ekimenean beste urrats bat eman nahi izan dute.



Ilbeltzaren 12ko manifestazioetara joateko deialdia egin dute

Leitza Saretzen ekimenak antolatuta agerraldi jendetsua egin zuten abenduaren 15ean. Bertsolari, harri-jasotzaile eta presoek familiartekoen testigantzak izan ziren. Ilbeltzaren 12an Iruñean eta Baionan *Bake eta elkarbizitza bidean orain presoak* lelopean egingen diren manifestazioetara joateko deia egin zuten. Autobusetan joateko txartelak salgai daude.

Bertan erosteko kanpaina egin du Kaxkabeltzak

Kaxkabeltza merkatarik elkarrekin abenduaren 29an *Leitzan erosi, denok irabazi* lelopean puzgarriak eta txokolatada antolatu zituen. Amazabal pilotalekuan bildu ziren eta herriko gaztetxoek arratsalde ederraz gozatzeko aukera izan zuten.

Mus txapelketako kanporaketa ilbeltzaren 19an

Peritzan dute hitzordua 17:00etan eta otsailaren 2an herriko finala jokatu dute Torrean

JM BARRIOLA

Martxan da Euskal Herriko XI. Mus Txapelketa. Kanporaketak jokatzeko ari dira dagoeneko. Abenduaren 22an, esaterako, Torrean bildu ziren; eta hilaren 29an Gaztañaga tabernan izan ziren partidak. Hurrengoak prest dituzte: ilbeltzaren 13an, igandean, Iruso jatetxean (18:00) eta 19an, larunbatean, Peritzan bilduko dira 17:00etan. Herriko finala, berriz, otsailaren 2an, larunbatean, izanen da. Azken partida horiek Torrean jokatu dituzte 17:00etan hasita.



Txapelketaren aurkezpenean.

Saio bakoitzean sariak izanen dituzte eta azkenekoan lau sari banatzeaz gainera, otsailaren 23an Lizarran jokatu den finalerako txartela eskuratu dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

175 parte-hartzaile San Silbestrean

Hiru kategoriatan banatuta, 175 korrikalarik parte hartu zuten San Silbestre lasterketan. 16:30ean abiatu ziren gaztetxoak eta ondotik gainerakoak. Eguraldi ederra lagun, haur, gazte eta helduek, bakarka edo taldeka, kirola eginez agurtu zuten urtea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jeiki abesbatzaren kontzertua

Abenduaren 28an San Migel eliza girotu zuen abesbatzak. Aralar Musika Eskolako abesbatza gazteak kantaldia eskaintzeko musikarien laguntza zuten: Julian Izagirre, Xabi Olkoz, Antonio Garde, Egoitz Telletxea, Ramon Apeztegia eta Ander Goizueta, Nekane Piñuelaren zuzendaritzapean.

Hilean behin gazteentzako zinema izanen dute herrian

Erleta eskolako Denok Bat guraso elkarteak antolatuta, hilabetero gazteentzako pelikula bat eskainiko dute herrian. Eskolako jangelan izanen dute hitzordua, aurrez zehazturiko igande batean. 17:00etan hasiko dira zinema-emanaldiak. Horrela, urtarriletik ekainera bitarte hamabi igandez filmak ikusteko aukera izanen dute. Gaztetxoek arratsalde goxoa pasatzeko aukera izanen dute. Sarrerak euro batean jarriko dituzte salgai eta filma hasi aurretik eskuratu ahal izanen dira.

Gaztetxean egitarau kulturala izan dute Eguberrietan

Azken urteetan bezala, aurtur ere Ateakabeltz gaztetxeak egitarau kulturala izan du Eguberrietan. Abenduaren 20an *Orantzaroa* hitzaldia eskaini zuen ALKE kultur taldeak. Abenduaren 23an helduentzako *Gezur gehiegi* magia-ikuskizuna izan zen eta 26an umeentzako eta helduentzako talo-tailerra. Urte hasieran ere izan zuen gozamenerako aukerarik. Izan ere, ilbeltzaren 4an pintxo-potea egin zuten. Horren ondoren Soma Cult taldearen kontzertuaz gozatu zuten.

Emakumezkoen parte-hartzea sustatzea du helburu aurtengo Mendi Erronkak

TTIPI-TTAPA

Euskal Herria Mendi Erronkaren VII. edizioa ospatuko da maiatzaren 18an. Urteotan emakumezkoen parte-hartzea %4koa bakarrik izan denez, aurtur «emakumeen parte-hartzea handitzea» lortu nahi dute. Hori horrela, aurtengoa

errelebo-lasterketa izanen da. Parte-hartzaileek bikoteka egiten dute laster. Leitzatik Putzuzarrera lehen korrikalariak eramanen du lekukoa eta hortik helmugarra bigarrenak. Bi partaideetako bat gutxienez emakumezkoa izan beharko da.

Etxeko zaintzaileen lana balioetsi dute Nazioarteko Egunean

Abenduaren 22an jende asko hurbildu zen Nicaragua, Honduras eta Brasil herrialdeetara gerturatzeko ospakizunera

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 22an ospatu zuten Nazioarteko Eguna Goizuetan. Ekitaldi berezia bezain gogoangarria izan zen eta jende asko hurbildu zen Nicaragua, Honduras eta Brasil herrialdeetara gerturatzeko antolatutako ospakizunera.

Jaialdiari hasiera emateko, Maite Perurenak, Gizarte Zerbitzuetako gizarte langileak, eta integrazio sozialeko teknikariak testigantzen tartea koordinatu zuen. Etxeetako helduak zaintzen lan egiten duten Nicaragua eta Honduraseko emakumeen testigantzak entzuteko aukera izan zen eta hala, jaialdiko protagonista nagusiak izan ziren hamabi emakumeak gehiago ezagutu zituzten. Hitz xume eta goxoen bidez, beraien esperientziak eta sentipenak kontatu zituzten.

Ezagutu eta balioetsi

Hori gutxi balitz, sorpresak ere izan ziren. Hala nola, Hondurasko lau emakumek abestutako beraien herrialdeko himnoa eta Nicaraguako beste batek dantzatutako dantza tradizionala. Maitasun eta esker oneko hitzez gain, Udalak nolabait beraien lana balioetsi nahi izan zuen eta baikoitzari oroigarri bana banatu zion, kanpotik etorritako emakume horiek egiten duten zaintza-lana baloratzuz eta herrian ematen duten zerbitzua eskertu asmoz.

Euskal Herrian ohikoa denez, jaialdia mahaiaren bueltan bukatu zuten, Honduras, Brasil eta Nicaraguako jaki eta edariak dastatuz, guztiak ere beraiek prestatuak ilusio handiz. Eta noski, Hego Amerika eta Ertamerikako musikaren doinurik ere ez zen falta izan.



Etxeetan lan egiten duten emakumeen ohiturak ezagutu zituzten. UTZITAKOAK



FELIX LOIARTE

II. Katarrapikaka lehiaketa jokatu zen

Katarrapikaka lehiaketan Eneritz Arotzenak, Saioa Tabernak eta Juanjo Indakoetxeak osatutako taldea suertatu zen garaile; bigarren Iban Eskudero, Hodei Lujanbio eta Maria Eskudero izan ziren eta hirugarren, Janire Bakero, Amalur Nabarte eta Uxue Mutuberriak osatutakoa, gazteena.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errege opil ikastaroan hamazazpi lagun

Abenduaren 15ean Umore Ona elkarteak egindako errege opilen ikastaroan hamazazpi lagun elkartu ziren. Oso goxoak atera dira krema- eta nata-opilak. Hasi berria den urte honetarako berriz ikastaroa egiteko proposamena luzatu dute bertaratutakoek.

III. Pilota txapelketako finalak larunbatean

Urtarrilaren 12an jokatuko dituzte Umore Ona pilota elkarteak hirugarren urtez antolatutako Pilota Txapelketaren finalak, lau kategorietan. Hogeita hamabi bikotek hasi zuten txapelketa azaroaren 30ean.



UMORE ONA

2019ko aurrekontua eta inbertsioak onartu ditu Udalak

Urrizpidera doan pista konpontzeko lanak dagoeneko esleitu dituzte eta 32.000 euro kostako dira.

TTIPI-TTAPA

2019ko aurrekontuak onartu eta aurtengo inbertsioak aurreikusi ditu Udalak. Besteak beste, eraikin berean bi moldaketa-lan egiteko asmoa adierazi du. Alde batetik, eskoletxeko leiho guztiak –elkartekoak eta bizitzakoak barne– aldatzeko asmoa du. Eta bestalde, eskola gaineko bizitza Erabilera Anitzeko Espazio egin nahi du. Espazio horretan jangela eta guzti egin nahi dute. Horrela, elkarteko kideek eta eskolakoek toki bat izango dute.

Urrizpideko pista moldatuko dute

2019rako aurreikuspenekin batera, aipatzekoa da Udalak joan den abendu bukaeran Urrizpidera doan pista konpontzeko lanak eman zituela. Obysur enpresari eman zizkieten eta lan horiek 32.000 euroko aurrekontua dute.

Idazkari aldaketa

Egungo idazkaria, Amaia Elkano, amatasun bajaran dagoenez, itzuli artean Zunbeltz Larrearen esku gelditu dira Udaleko idazkari postuari dagozkion ardurak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bisita eta antzerki emanaldia abenduan

Eguberriek eskolako ikasleen *Amalur* atzerki emanaldiarekin eman zieten hasiera herrian. Gurasoek eta gainerako herritarrek emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten. Hilaren 24an, berriaz, Olentzeroren urteroko bisita jaso zuten. Batean ilusio jarritz eta bestean hartuz ibili dira herriko gaztetxoak.



Gurasoek eta herritarrek elkarretaratzea egin zuten plazan.

Herritarrek pediatria zerbitzua Goizuetan jasotzea eskatu dute

Herrian bizi diren 30 umeak joan den otsailetik Leitzan artatzen dituzte

TTIPI-TTAPA

Aranoko gurasoek eta herritarrek pediatria zerbitzua Goizuetan jasotzeko eskatu zuten abenduaren 16an egin-dako elkarretaratzean. Plazan bildu ziren eta herrian bizi diren umeek joan den otsailaz geroztik artatuak izateko Leitzara joan behar izaten dutela salatu zuten. Izan ere, Aranotik Leitzara, joan-etorrian, ordubete eta berrogei minutuko bidea egin behar dute herritarrek.

Ordubete eta 40 minutu bidean

Lehen Goizuetan jasotzen zuten zerbitzua berrezartzea eskatu zuten. Izan ere, Leitzara eta Lekunberri artatuko dituen plaza bete badute ere, Goizuetak oraindik ez du zerbitzurik: «Aranoko familiek, Goizuetakoek bezalaxe, oraindik Leitzako osasun zentro-raino joan behar izaten dugu. Leitzara joan-etorrian ordubete eta berrogei minutu inguru behar izaten dugu».

Zerbitzu «duina» helburu

Aranon ez da inoiz pediatriarik izan. Dena dela, herritarrek

orain artean zerbitzu hau as- tean behin Goizuetan jaso izan dute, herriko eta Goizuetako 100 haur inguruk. Nafarrokoa ez ezik, estatu osokoa da pediatria eskasiaren arazoa. Baina, hori horrela izanda ere, Aranoko familiek, Goizuetako protestak babestuz, pediatria zerbitzua Goizuetan mantentzea eskatu nahi izan zuten. Aranotik Goizuetara hogeia minutu direla kontuan hartuz gero, hori bera nahikoa bide eta denbora badela adierazi zuten, «horren oinarritzkoa den zerbitzu batera aukera duina izateko».

Errealitatea hori bada ere, Aranok Gipuzkoarekin duen gertutasunak beste errealitate bat azaleratu du oraingoan. Horregatik, familia batzuek, Aranoko Udalari eskatu diote, Nafarroako Gobernuak Osasun Zerbitzuarekin negoziaketa bide bat ireki dezala, gaur egun Osakidetza eta Osasunbidearen artean dagoen hitzarmenaren barruan, Gipuzkoako anbulategietan pediatria espezialitatea eskatzeko aukera izan dezaten, hala beharko luketen zonaldeko familiek.



Bertan elkarteko ordezkariak eta kanpainan parte hartu dutenak. JM ONDIKOL

Hamar urteotan 38 komertzio itxi direla salatu dute

Bertan Baztan elkarteak hautsak harrotu zituen bideoaren bigarren zatia aurkeztu eta kanpainaren berri eman zuen

TTIPI-TTAPA

Bertako komertzioen bizirau-pena bermatzeko egindako sentsibilizazio kanpainaren inguruko azalpenak eman ditu Bertan elkarteak. Elkartea sortu zenetik 12 urte pasatu dira eta zenbait jarduera eta kanpaina egin izan dituzte, baina populazioaren zati batean eragin handiegirik ez duela izan konturatu zen elkartea.

Aurten, Europako Gizarte Funtsak emandako diru laguntza bati esker, Nafarroako Gobernuaren eta Cederna Garalurren bitartez jasotakoa, Bipolar Creación Audiovisual

enpresaren zerbitzuak kontratatzea erabaki zuten. «Gure helburua jendearen arreta piztu eta gu entzutea zen eta... lortu dugu!», aipatu zuten prentsaurrean Angel Arraztoa eta Javier Garde, Bertan Baztan elkarteko ordezkariak. Lehen bideoan parte hartu zuten Isabel Gonzalez eta Ja-

642 LANPOSTU ETA BAILARAKO EKOSISTEMA ERE ARRISKUAN DAUDE

vier Iriarte ere izan ziren kanpaina borobiltzen zuen bigarren bideoa aurkeztu zuten agerraldian.

642 lanpostu arriskuan

Nahiz eta Bertan Baztanek hamabi urte daramatzan gogor lanean, 38 komertzio baino gehiago itxi dira azken hamar urte hauetan. «Kontsumoan eman diren aldaketek eta gure herrietatik jendeak alde egiteak eragin negatiboa izan du gure komertzioetan. Nahiz eta gaur egun 642 lanpostu arriskuan egon, gure bailarako ekosistema ere arriskuan dago, eta hau benetan kezagarria da. Gure bailaran dabilen euro bakoitzak sare sozial, ekonomiko eta kulturala bizirik mantentzen laguntzen du», aipatu zuten.

Lehenbiziko bideoak hautsak harrotu zituela garbi dago, baina horren inguruko azalpenak ere eman zituzten: «Zer erran handia izan duen kanpaina baten hasiera izan da. Kontziente gara erabaki arriskutsua hartu genuela. Ez genuen espero hainbertze tokietara hain azkar iritsiko zenik. Baina hau ezinbertzekoa izan da hemen gaudela erakusteko. Ez ditugu heroiak behar, gure kaleak, herriak eta komertzioak bizirik mantentzeko jendea behar dugu!». Azkenik, bideoan agertzen diren protagonistei eskerrak eman eta minduta sentitu diren guztiei barkamena eskatu zieten merkatariek.

Argazki lehiaketa antolatu du Baztan Rugby Taldeak

Baztan Rugby Taldeak argazki lehiaketa antolatu du. Gaia lohia izanen da eta argazkiak info@baztanrt.com helbidera bidali behar dira martxoaren 15a baino lehen. Sari-banaketa martxoaren 23an egingen dute eta irabazleak Baztango produktu sorta bat jasoko du.

'Ni ala zu' antzerkia igandean eskainiko dute Iruritan

Donostiako 2017ko Poltsiko Antzerki Sorkuntza programan bigarren saria eskuratu zuen Ni ala zu antzezlanaren taularatuko dute Joseba Usabiagak eta Iñaki Santosek urtarilaren 13an, igandean 19:00etan Iruritan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean.

San Anton eguneko zozketak ez du hutsik egingen

Guttienez 1867. Urtetik Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte Zahar Etxearen alde egiten den zozketa egingen dute aurten ere ilbeltzaren 17an Balleko Etxean (13:00). Aitzinetik, 11:00etan zopak banatuko dituzte eta bertsolariak ere ariko dira kantari.

BEROPEL
egurrezko pelleta
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1 ES 025

ARROPA KONFEKZIOAK

MARI CARMEN

DESKONTUAK
JUBILAZIOAGATIK

DESKONTUAK
JUBILAZIOAGATIK

DESKONTUAK
JUBILAZIOAGATIK

Brulio Iriarte 22 (Txokoto) ELIZONDO - T 948 580 883



(H)ilbeltzako kideak, aurkezpenean. UTZITAKO ARGAZKIA

Euskal Nobela Beltzaren Astea bete-betea dator

Ilbeltzaren 14tik 20ra egingen dute eta larunbateko bazkarirako txartela hartzeko ilbeltzabaztanen@gmail.com helbidera idatzi

TTIPI-TTAPA

(H)ilbeltza elkarteak antolatuta, eta Arizkungo Zurubi elkartearen, Anizko Mendiarte elkartearen, Arraioz Herria-

ren eta Erratzuko kultur elkar-tearen laguntzaz, bosgarren urtez Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatu dute Baztanen, ilbeltzaren 14tik 20ra, aste-

lehenetik igandera. Bertzeak bertze, hitzaldiak, mahai-inguruak, zinema eta literatura, bazkaria, itzulia... izanen dituzte.

Ilbeltzaren 14an, astelehenen, 19:30ean *Uzta Gorria* hitzaldiarekin hasiko dute egitaraua eta Dashiell Hammett idazleari buruz solastatuko dira, Xabier Olarra itzultzailearen eskutik. Arizkun, medikuaren etxean, dute hiztordua.

Asteazkenean, ilbeltzaren 16an, 19:00etan, Koldo Izagirik hartuko du lekukoa eta *Jurgi kapitaina*. Xabier Gereñoren *doilea* lana izanen du hizpide. Anizko Mendiarte elkartearen bilduko dira.

Abenduaren 18an, ortzira-lean, berriz, *Hemingway ere beltza* zen saioa izanen dute Arizkunenean, 19:00etan. Zinema eta literatura uztartuko dituzte eta Gontzal Agote izanen da gidari.

Ilbeltzaren 19an egun osoko egitaraua

Biharamunerako, hau da, larunbaterako, egun osoko egitaraua antolatu dute. 11:00etan, Arizkunenean, *Hiria eta landa*. *Eremuaren trataera nobela beltzetan* solasaldia izanen

dute, Itxaro Bordaren eta Edorta Jimenezen eskutik. Ana Galarragak moderatuko du saioa.

14:00etan Erratzuko elkar-tean bilduko dira bazkaltzeko. Txartelak eskuratzeko ilbeltzabaztanen@gmail.com helbidera idatzi behar da. Arratsaldean, liburu aurkezpenak izanen dituzte: aurtengo (H) ilbeltza bekaren onuraduna, Miel A. Elustondo, hasiko da *Kezko bola batek itoak birrikak* lanaren nondik norakoei helduko dielarik; ondotik, Edorta Jimenezi pasako dio hitza *Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua* lanaren berri emateko eta Xabier Etxeberriaren *Berriro itzuliko balitz* lanaren aurkezpenak borobilduko du arratsaldeko tarte. 19:00etik aitzinera Susmagarrien Gaua izanen dute herriko karraketan barrena.

Ilbeltzaren 20an, igandean, bukatuko da astea. 11:00etan *Bele kamutsak inauteetako eskean* itzuli beltza egingen dute Arraiozen (plazatik abiatuta). Akitzeko, 19:00etan Mairu antzerki taldeak eta (H)ilbeltzakideek eginiko *Chandlerren alde... edo kontra* irakurketa girotuaz gozatzeko parada izanen dute.

www.ilbeltza.eus

(H)ILBELTZA

euskal nobela beltzaren astea
Baztan, urtarrilaren 14tik 20ra

Antolatzailea:

Laguntzaileak: Arizkungo Zurubi elkartea, Anizko Mendiarte elkartea, Arraioz Herria, Erratzuko kultur elkartea.

ARGIA

Baztango Udala

Iruditeko komunikabideak fundazioa

IKF

xalotelebisita

berria

KARRIKIRI.eus

ERRATZUKO KULTUR ELKARTEA

ERRATZUKO KULTUR ELKARTEA

Herrietako alkate gehienak aukeratu dituzte

Azpilkuetan, Elbeten, Zigan eta Erratzun berriak dituzte eta Arizkunen, Iruritan eta Amaiurren alkate gabe daude oraino

TTIPI-TTAPA

Hamaborts herrietako alkateak aukeratzeko lehen deialdia izan zuten abenduaren 16an. Espero bezala, deialdia ez zuen aparteko erantzunik izan eta 15 herrietatik lautan ez zen alkaterik aukeratu.

Lehenbizikotik aukeratutako hamaika alkateen artean, hiru berriak dira. Azpilkuetan Luis Azkarraga izanzen da alkate (Andres Azkarragaren orde), Elbeten Xabier Urreaga (Fermin Almandozen orde) eta Zigan Idoia Arrieta (Juana Mari Gortariren orde).

Elizondoko Alazne Sansiñena Lertxundik segituko du alkate bigarren agintaldian, Anizen Ainhoa Maritorea Azkaratek (bigarren agintaldia); Almandozen Luis Roldanek (16 urte karguan); Gartzainen Fernando Arraztoak (hirugarren agintaldia); Lekarozen Mattari Plazak (bigarren agintaldia); Oronozen Ruth Peñak (bigarren agintaldia); Arraiozen Joxelu Retegik (bigarren agintaldia); eta Berroetan, Carlos Garaikoetxeak (bigarren agintaldia).



Elizondoko batzarrea. JUAN MARI ONDIKOL

Alkaterik gabe Amaiurren, Arizkunen eta Iruritan

Arizkunen eta Iruritan ez zen hautagairik aurkeztu lehen deialdi horretan eta gaur egungo alkateek, Asier Lizartzak eta Pello Obregozok, ez dute berriz aurkezteko asmorik. Erratzun eta Amaiurren, aste bete beranduago, abenduaren 23an egin zuten batzarrea. Amaiurren ez zen alkate izateko inor aurkeztu, baina Erratzun, Joxe Itoizek hartu zuen alkate izateko ardura datozen bi urtetarako.

Beraz, hau idazterakoan, eta Errege Egunez egitekoak ziren batzarretan nobedaderik izan ez bada, Amaiurren, Arizkunen eta Iruritan alkaterik gabe segitzen dute.



ARGAZKIA ETA TESTUA: NEREA MORTALENA

Olentzeroren bisita Arraiozen

Abenduaren 21ean Olentzero ttiki ospatu zuten Arraiozko ikasle, irakasle eta gurasoek. Haurrek egindako Olentzeroa ibili zuten, musika lagun. Bazkari batekin borobildu zuten eguna. Abenduaren 24an, Olentzero etorri zen. Herriari buelta eman eta gero, haurrei opariak banatu zizkien.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA GAMIO

Joare eta altxaferoekin Olentzero Zigara

Zigara zetorrela joare soinu eta altxaferoekin iragarri zuen Olentzerok eta suzien argipean ailegatu zen. Herrian, noski, ongi etorri beroa eskaini zioten ttikienei, baina baita gazteek, gurasoek eta aitatxi-amatxiek ere. Horren arabera, diotenez, gauean ederki portatu zen Olentzero.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.eus



Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Etkeen zaharberritzea errazteko baldintzak egokituko dituzte

Etxe zahar handien bizigarritasuna arautzeko dekretua aldatzeko eskatu dio Parlamentuak Nafarroako Gobernuari, Udalak parlamentuan egindako saioari segida emanez

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 4an Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialen batzordeak etxe zahar eta handien bizigarritasun baldintzak arautzen dituen 5/2006 Foru Dekretua berrikusi eta egokitzeko erabakia hartu eta hala egiteko eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Etxe handien zaharberritzea errazteko Baztango Udalak abiatutako ekinbide politiko eta instituzionalari erantzuten dio erabakiak eta azaroaren 14an parlamentuan egindako lan-saioaren segida da. Mozioak landa eremuetako etxebizitza tradizionalen diagnosi eta azterketa teknikoa egiteko ere eskatzen du, azterketa hori borts hilabete epean egiteko eskatu bidenabar.

Modu berean, abenduaren 12an, Baztango Udaleko ordezkariak, Joseba Otondo alkateak, Florentino Goñi zi-



Udal ordezkariak eta Laparra kontseilaria, bertze bilera batean. ARTXIBOKOA

negotziak eta udalaren hiri-gintzako aholkulariak osatua, Miguel Laparra Eskubide Sozialetak kontseilariarekin eta bere taldearekin bildu zen gaiari buruz solastatzeko. Bileraluzearen ondotik, Otondok jakinarazi duenez, bizigarri-

tasuna arautzen duen dekretua aztertzeko konpromisoa hartu du Laparra buru duen etxebizitza departamentuak eta konpromisoa agertu dute Nafarroako Parlamentuak hartutako akordio hori betetzeko.

Urteko irteerak zehaztu dituzte Baztango Mendigoizaleek

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, ilbeltzak 13, egingen dute urteko lehenbiziko hitzordua. 07:30ean Elizondoko plazatik abiatuta Urrukamendira joanen dira. Ilbeltzaren 20an Beintza-Labainera joanen dira eta 27an Arizkundik aterata Maulitxera. Otsailean Arpekosaindura, Ezkabara, Artikutzara eta Albako Harrira antolatu dituzte ateraldiak; martxoan Astigarrara, Arranomendira, Okoliner eta Legarreara; apirilean Biriatura, Ugastara eta Baigorriara; maiatzean Meatera, Herri Urratsera eta Berako Mendi Itzulira joanen dira eta Oronozen egingen den XXVI. Mendi Itzuliarekin borobilduko dute hilabetea; ekainean Jara, Aiako Harria eta Baztan herriz-herri egingen dituzte; irailean Pirinioetara joanen dira; azaroan Urkizketara, Infernuko Errotara, Auritzera eta Behorlegira eta abenduan, Iraperriara, Unanura, Bardakomendira, Legatera eta Auzara.

ferretería Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

Etxetako langileei buruz sentsibilizazio kanpaina abiatu dute

Lan-baldintzak hobetzeko helburua du eta Bidelagun elkartearen laguntza izan du Udalak egindako bileretan

TTIPI-TTAPA

Etxeetan adineko jendea zaintzen lan egiten duten langileen lan-baldintzei buruz herritarrek kontzientzia hartzeko kanpaina abiatu berri du Udalak. Kanpaina hori etxeko langileekin egindako gogoeta prozesu baten emaitza da, azkeneko hilabeteetan egin dena, bilerak irekien bidez, Bidelagun laguntza emaile elkartearen laguntzarekin. Kanpaina hori egun hauetan Baztango etxe guztietarart banatzen ari den eskuorrian oinarritzen da. Aurkezpena Joseba Otondo alkateak, Florentino Goñi zinegotziak eta Ixaro Petrirenagizarte langileak egin zuten.

Etxeetako langileen lan-baldintzei buruz ari garela bi kontu bereziki aipatu behar dira: batetik sektorearen erregulazio falta eta, bertzetik, administratiboki egoera irregularrean dauden langileen egoera. Guzti horrek, maiz, soldata eta lan-baldintza murrugorak izatea ekartzen du. Modu berean, maiz ere, inter-naga ari diren etxeetan pri-



Kanpainaren aurkezpena. ONDIKOL

batutasunik eta espazio pertsonalik ez dute, aisialdia eta denbora libre eskas izaten dute eta horrek, langilearen gainkarga fisiko eta mentala ekartzen du bizi prekaritatea handituz. Horregatik etxeetan adineko pertsonak zaintzeko langileak kontratatzen dituzten herritarrengana hurbildu nahi du Udalak, «denen artean, langile hauei ere, barruan edo kanpoan aritu, lan-baldintza duin eta bidezkoak eskaintzeko». Eta lan-baldintza duin eta bidezkoak izateko beharrezkoa da guttienezko lan-saria ematea eta behar adina asti libre segurtatzea; zaintzaileak ere zaintzea eta adinekoekin egiten duten lana baloratzea.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITANE MARITORENA

Bidea moldatzeko auzolana Anizen

Olazarko bidea hondatua zegoenez eta urtero auzolanak egin behar izaten direnez, batzarrean bidea hormigoiztatzea erabaki zuten. Abenduko hondar astean hiru egunez goiz eta arratsalde aritu dira auzolanean, bi harginen laguntzarekin. Abenduaren 22an merezitako pintterdia izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Komun publikoa egin dute Azpilkuetan

Azpilkuetako alkate eta kargodunak, zenbait herritarren laguntzarekin, buru-belarri aritu dira lanean ezinduendako egokitua den komun publikoa egiteko. Materiala Udalak ordaindu du eta eskulana herritarrek egin dute. Lau hilabetez larunbatero bildu dira eta berriki akitu dute.

zergalan | asegi
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN





Miren Mindegia eta Adur Larrea aurkezpenean. UTZITAKOA

'Maria Zugarramurdikoa' lana aurkeztu dute

1609an, inkisizioak Zugarramurdi eta inguruak astindu zituen garaian, kokatzen gaitu lanak

JOSEBIÑE ETA KORO

Joan den abenduaren 21ean aurkeztu zuten Nabarralde argitaraturiko *Maria Zugarramurdikoa* komikia. Komikiaren egileek, Elizondoko Miren Mindegia idazleak eta Adur Larrea marrazkilaria bilbotarrak, egin zuten aurkezpena eta lanaren nondik norakoetan sakondu zuten.

Zehazki, protagonistatzat garaiko pertsona erreal bat hartu zutela azaldu zuten, Bordako Maria Baztan zugarramurdiarra, alegia. Aurkezpenaren ondotik liburuxka erosteko aukera eskaini zuten.

Adur Larreak erosleei marrazkitxo eta eskaintza bat egin zien.

Inkisizioaren biktimak gogoan

Argitaratu berri den komikiak inkisizioaren biktima izan ziren emakumezkoak ditu gogoan. 1609an girotua da eta oinarri errearen gainean eraiki dute fikzioa. Horrekin guztiarekin, garaiko emakumezkoen irudia islatu nahi izan dute.

24 orrialdeko komikia euskaraz eta gazteleraz dago eta liburu-dendetan eros daiteke.



Urhaundiko erreka bazterrean liztor habi bat. UTZITAKO ARGAZKIA

Liztor asiaticoen arazoa nabarmenki ikusten da

JOSEBIÑE ETA KORO

Azken urteotan arazo handia bilakatu den liztor asiaticoa nabarmenki ikusten da urtasoi honetan; izan ere, zuhaitzeko hostoak galtzen dituzte eta horren ondorioz, liztorren habiak agerian gelditu ohi dira. Madariako bidean, erraterako,

lau ikusi ditugu: bat Urhaundiko erreka bazterrean, bertze bat hilerriko azpiko aldean, hirugarrena Aitxondotan eta laugarrena Iriarteko bordan.

Gehiegi bilatu gabe lau ikusi ditugula aintzat hartuz, nork daki zenbat liztorrek eta liztorhabik inguratzen gaituzten...

Argitxu eta Maixternek irabazi dute Neguko Pilota Txapelketa

JOSEBIÑE ETA KORO

Abenduaren 22an jokatu zen Neguko Pilota Txapelketa azkarra. Zortzi bikotek parte hartu zuten eta Argitxu eta Maixterrek lortu zuten garai-pena. Txapelketaren ondotik Arleun elkarteak bildu ziren antolatzaileak, jokariak eta animatu ziren gainerako la-

gunak. Otordu ederra egin zuten eta txapelketarekin hasitakoa bertze txapelketa batekin akitu zuten. Izan ere, musean aritzeko aprobetxatu zuten. Muslarien artean trebeenak Alfredo eta Mattin Oronoz izan ziren. Eguberriei egun polit horrekin eman zieten hasmenta herritarrek.

ZUK

ttipi-ttapa

Zuk TTIPI-TTAPAr 50€ ematen badizkiozu

mecna

ZURI

MECNAk zuri 40€ bueltatuko dizkizu

Bagoaz, baguzi, bagazi ttipi-ttapa haziz!

ONURA FISKALA PARTIKULARRENTZAT

Egindako donazioaren %80a itzuliko zaizu errenta aitorpenean lehen 150 eurotan, eta %40a kopuru haundiagoetan.

Informazioa lortu nahi baduzue deitu

948 635 458 telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri bagoaz@ttipi.eus posta elektronikoan



Martxel Brave eta Jean-Noel Bessonart, diska eskuetan dutela. Behean, CDaren azala. PIERRE BASTRES

'Senperen kantuz' CDa plazaratu dute Brave-Bessonartek

Orain dela berrogei urte egina zituzten bi diskoetako 13 kantuak CD bakar batean elgarretaratu dituzte

PIERRE BASTRES

Hemen gaindi gutti dira Jean-Noel Bessonart eta Martxel Brave kantariak ezagutzen ez dituztenak, 1980ko hamarkadan arrakasta ederra izan bai-

tzuten Iparralde osoan, ohol-tzen gainean. Orduan bi disko grabatu zituzten, eta badu bulta bat agortuak direla, zaileen dohakabetasunerat. «Betiko adiskideak gara Jean-Noe-



KANTALDIAK EMATEA EZ DA XEDEA, «EZ DUGU ORDUKO BOZA»

lekin, elgarrekin kantuz ari-tzeko usaia genuen. 1980ko hamarkadaren hastapenean Lehen Saria irabazi genuen Baigorri, kantu txapelketan, eta hortik landa kantaldietan ibilki hasi ginen, disko bat egin eta urte baten buruan biga-rrena» dio Martxelek.

«Kantu guztiak CD bakarrean bildu ditugu»

Aspaldi disko guziak salduak direlaketz, «jendeak ari ziren galdezka, ez zutela nihun ere atzematen ahal. Eskasa bazela agerian genuen. Jendeen atseginarentzat kantu guziak bildu ditugu CD batetan emai-teko» argitu digu Jean-Noelek. Hamahiru kantuko diska da, beraz, batzuk herrikoiak *Hon-darribia* edo *Prima eijerra* bertzeak bertze.

Gainerateko zonbait Istilar-teko Jean-Pierre Soudre Ga-barruz *'Larreko'* berak idatzi ditu, diskari izena ematen dion *Senperen Kantuz* bezala, ba-tzuetan Jean-Noelekin (*Lana Euskadin, Politika hoietan*), doinua asmatzen zuelarik maiz Martxelek.

Kantaldirik egingen ote duten galdetuta, aldiz, ez dela bate-re errana baieztatzen du Mar-txelek: «Ez da gure xedea egia erran. Orduko boza ez dut gehiago, eta bat eman bage-neza, bertze batzu eman behar genituzke doike!».


'Ttikiak handi' liburua argitaratu dute bertako jendearen lekukotasunak bilduz

PIERRE BASTRES

Leiane Madariaga, Auxtin Zamora eta Mixel Mendiburu dira liburu pollit honen sor-tzaileak. Elgarlan huntako 160 orrialdeetan, iraganeko ger-takari aintzetaz ikas daiteke, bertakoen hitzetarik. Hori du azpimarratzen Altxiburuko Auxtinek: «Maiz etorritakoek ikasazten daukute gure his-toria, hemen, ordea, herrita-rrengandik datozkigu lekuko-

tasunak». *Ttikiak Handi* izen-burua zergaitik eman dioten ihardesten dauku Bidarteko Bordako Mixelek: «Lehenik, agertzen diren kontakizunak egun guzikoak dire, xumeak. Altxorak dauzkagu hemen: adibidez, bagenekien Olaetxea Aheztarrak galdegina ziola Xalbadorri pertsu baten egitea, bere lagun handia Audetene-ko Augustentzat. Liburuan Xalbadorren eskuz idatzitako

ihardespina agertzen dugu!». Zamaldegiko Leiane da hiru-garren egilea: «Ni ikasle naiz Gazteizen euskal filologian, eta norbaitek errana zautan Mixelek lagungoa bilatzen zuela. Artikulu frango bildua zituen Mixelek jadanik. Beraz oroz gaineratik irakurri, sailka-tu, hautatu eta moldatu ditut. Gainerat, elgarritzeta zonbait ere egin ditugu, lekukotasunak ahantzetik begiratzeko. Has-tapenean uste baino lan zai-lagoa izan zait, bainan aintz dut ikasi. Hemengo euskalkiaz edo hizkeraz ere ikasi dut



Presse Etxean salgai dago liburua.

gehiago. Enetzat izigarri abe-rasgarria izan da!».



Mari Domingi eta Olentzero, jendea agurtzen. PANTXIKA PATERNE

Jende andana bildu du Mari Domingi eta Olentzeroren bisitak

Ekitaldiz betetako arratsaldea osatu dute bi protagonisten bisitaren bueltan

TTIPI-TTAPA

Eguraldi ederra lagun, karro gainean ailegatu ziren abenduaren 22an Mari Domingi eta Olentzero, eta herritarrek besta giroan ongiatorri beroa eskaini zieten. Eskola publikoak, Olhain ikastolak, merkatarien elkarteak eta Herriko Etxeak gomitatuta etorri ziren

eta plazara hurbildu zirenek denetarik ekitaldiekin gozatzeko aukera izan zuten. Haurrei krakada eskaini zieten, Pontx pailazoak ere ez zuen hutsik egin, neska-mutikoak karroan ibili ziren eta aperitifak ere eskaini zuten. Bi protagonisten etorrera zela eta, jende ainitz bildu zen.



GANEX

Tote Leizagoien ohoratu dute

19 urtez herriko enpleatua izan den Tote Leizagoien ohoratu zuten abenduaren 15ean Lur Berri gelan. Laborde auzapezak esker oneko solasak eskaini zizkion, baita erretreta ona desiratu ere. Burdinez egindako Sarako armarrria eta bidaia bat jaso zituen opari gisa eta Maritxu emazteak lore buketa.



GANEX

Beti Gaztekoen urteko azken hitzordua

Joan den abenduaren 7an aurtengo hondarreko bazkaria egin zuten Beti Gazte elkarteak kideek Ainhoako Ur-Egia jatetxean. Guztira 67 lagun elkartu ziren eta aski giro ederrean pasatu zuten eguna. Laster urte berriko hitzorduekin hasiko dira.



Sarako eta inguruko herrietako hautetsiak Garat eta Bergounianekin. GANEX

Hautzaindegiko Garat eta Bergounianek erretreta hartu dute

TTIPI-TTAPA

28 urtez Maitetxoa hautzaindegian lanean aritu ondok, erretreta hartu dute Chantal Garat eta Berengere Bergounianek. Bi horiek izan ziren 1990ean, Senpereko Herriko Etxearen laguntzarekin, Senperen Maitetxoa hautzaindegia sortu zutenak. 15 haur eta lau langilerekin hasi ziren, baina bi urteren buruan 25 haur ziren. Datuak dira bilakaeraren lekuko: gaur egun, 78 haur eta 28 langile dira Senperen. Baina zerbitzua ez dute herrira bakarrik mugatu, 2017an Saran zabaldu baitzu-

ten Maitetxoa hautzaindegia eta egun, hamar haur eta hiru langile dira.

Garatek eta Bergounianek omenaldia jaso zuten abenduaren 7an Lur Berri gelan. Berengerek «haurrak faltan sentituko» dituztela adierazi zuen, «haur ttipi horiek maitagarriak baitira». Ekitaldian Senpereko eta Sarako lehengo eta oraingo auzapezak, Ainhoako eta Zuraideko hautetsia bildu ziren. Denek esker oneko hitzak izan zituzten Bergounianendako eta Garatendako. Hitz ederrez gain, loreak eta opariak eman zizkieten.



Finalistak eta bertze parte-hartzaile batzuk, sariak jaso ondotik Elizondon. FOTO ZALDUA

Baztango 37. eskuz binakako txapelketak baditu txapeldunak

Txarutak antolatutako txapelketan 145 bikote aritu dira eta abenduaren 9an jokatu zituzten finalak Elizondon eta Iruritan

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Txaruta elkarteak antolatutako Baztango 37. eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten abenduaren 9an, Elizondon eta Iruritan. Urriaren 6an hasi zen txapelketa eta bi hilabetez 285 par-

tida jokatu dituzte. Bitxikeria bezala, aipatu behar da Bartzelonako pilotari batek, Soriako bertze batek, Baños del Río Tobiako bik eta Laudioko bertze batek ere parte hartu dutela, 290 pilotarien artean (145 bikote aritu dira).

Iruritan lau final

Iruritan jokatuak finalak, **Umeak B** mailan, leitzarren arteko lehian, Aiur Ugartemendia eta Hodei Sagastibelzak 18-15 irabazi zieten Goiuri Zabaleta eta Ibai Imaz-i.

Kimuak B mailan, Ordiziko Oier Izagirre eta Iñigo Alberdi 18-6 irabazi zieten Errenteriko Aitor Etxeberria eta Goizuetako Xanet Apezetxeari.

Haurrak B mailan, Oiarzungo Haitz Aranburu eta Iker Ubiriak 18-13 irabazi zieten Lazkaoko Unax Aldasoro eta Jokin Askarairi.

Kadete B mailan, Lazkaoko Unai Barandiaran eta Unai Goikoetxeak 18-9 irabazi zie-

ten Bartzelonako Asier Arribas eta Asteasuko Iban Lantzeta-ri.

Elizondon bertze bortzak

Elizondon jokatuak finalak, berriz, **Umeak A** mailan, Lazkaoko Oier Altuna eta Jurgi Landak 18-12 irabazi zieten Errenteriko Eñaut Iturain eta Hondarribiko Ekhi Larrari.

Kimuak A mailan, Amaieurko Arkaitz Goienetxe eta Zigako Oier Primek 18-7 irabazi zieten Oiartzungo Manex Olaiz eta Beñat Aburuzari.

Haurrak A mailan, Oiartzungo Oier Zabaleta eta Unax Landak 18-11 irabazi zieten Burlatako Odei Urmeneta eta Haritz Salcedori.

Kadete A mailan, Paz Zigan-dako Iker Ibarra eta Arai Murrillok 18-6 irabazi zieten Hernaniko Jon Jara eta Laudioko Arkaitz Eskuzari.

Gazte mailan, azkenik, Hernaniko Xabi Salaberria eta Narbarteko Gaizka Agirrek 22-16 irabazi zieten Lekarozko Oier Ariztegi eta Elizondo-ko Axier Ballarenari.

Finalen ondotik sari banaketa egin zuten Elizondon. Julen Martija eta Peio Etxeberria pilotari profesionalak izan ziren sariak banatzen, baita Iñaki Otxandorena eta Unai Apeztegia pilotari ohiak ere.

Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak ere jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA LESAKA

Bortzirietako eskuz binakako pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten abenduaren 22an Lesakako udal pilotalekuan. Sari banaketan, Amezketako Jokin Altuna eta Bera-ko Iñigo Martinez pilotariak izan ziren.

Emaitzak

Hauek izan ziren emaitzak: **Aurrebenjaminak:** Ander Etxegarai eta Aritz Iparragirre (Arantza), 18 – Gorka Altzu-

guren eta Aritz Errandonea (Bera), 6.

Benjaminak: Iñigo Ugalde eta Ander Pagola (Bera), 16 – Ekhiotz Iratzoki eta Xuban Lakar (Bera-Legasa), 18.

Alebinak: Enaitz Bereau eta Unax Bereau (Lesaka), 15 – Amaieur Martinez eta Aimar Otxandorena (Lesaka), 18.

Infantilak: Lander Lasaga eta Andde Maritorea (Etxalar-Bera), 22 - Eukeni Etxenike eta Beñat Etxabide (Igantzi-Lesaka), 10.



Txapelketan parte hartu duten pilotariak, Altuna eta Martinezekin. JON MARTINEZ



Endika, Juanenea, Azpiroz eta Uterga sariak banatu ondotik. MAIALEN ANDRES

Utergak binakako laugarren txapela jantzi du Azpirozekin

Saldiasko Endikak eta Juaneneak ez zuten egunik onena izan finalean eta 27 tantotan gelditu ziren

TTIPI-TTAPA

Xanti Uterga doneztebarra eta Uitziko Azpiroz dira erremon-teko binakako txapeldun be-riak, abenduaren 29an Gala-rretan jokaturako finalean 27-40 irabazi baitzieten beraien egunik onena izan ez zuten Saldiasko Endika Urrutia eta Aritz Juaneneari.

Urdinen garaipena espero baino errazagoa izan zen eta emozioa falta izan zitzaion finalari. Uterga eta Azpiroz indartsu hasi ziren eta Endika eta Juaneneari kosta egin zi-tzairen jokoan sartzea. Hone-la, urdinak 2-15 aitzinetik jarri ziren eta gorriek ezin izan zioten buelta eman horri. 12-

31 ere aitzinetik izan ziren Uterga eta Azpiroz. Dena gal-duta ikusitakoan, jokoan sar-tzen hasi eta hamar tantora hurbildu ziren saldiastarrak (27-37), baina azken hiru tan-toak egin eta txapela jantzi zuten Utergak eta Azpirozek.

Utergak 21 tanto egin zituen eta gainera, berak eta Azpiro-zek hiru pilota bakarrik galdu zituzten. Endikak eta Juane-neak, aldiz, hamabi tanto gal-du zituzten. Dударik gabe, urduri aritu ziren.

Xanti Utergak, bere laugarren txapela ez ezik, txapelketako aurrelari onenaren saria es-kuratu zuen. Barrenetxea IV.a izan da atzelari onena. Do-neztebeko aurrelaria kontent zegoen eta bazuen txapela zeini eskaini ere: «bertze ume baten esperoan gaude eta ongi ospatuko dugu. Arras kontent nago».

Bertze aldean, Endika sal-diastarrak onartu zuen kosta egin zitzaiola partidan sartzea: «beraiek ez dute hutsik egin. Utergak aunitz jokatu du, az-ken aldian bezala, eta inoiz ez dugu aukerarik izan. Partidan sartzea kosta egin zaigu eta hor alde egin digu finalak. Juanenea urduri egon da eta nik ez dut maila eman».

NIRE USTEZ



XANTI UTERGA
BINAKAKO TXAPELDUN

«Zentratuak sartu gara partidan»

Finalak irabazteko daude eta zorionez, binaka jokatu ditudan lauak irabazi ditut. Txapel guztiak bereziak dira eta hau ere bai. Finalean zentratuak sartu gara, urduritasunik gabe, pilota ongi kokatuz eta beraiek ez dute beraien maila eman.

NIRE USTEZ



ARITZ JUANENEA
TXAPELDUNORDEA

«Gailurra egitea falta izan zaigu»

Bizpahiru pilota garbi galdu ditut hasieran eta alde egin digute. Nerbioekin nahi eta ezin ibili gara. Nire lehen txapelketa izan da eta finalera ailegatzea pozik egoteko modukoa da. Hiru mendi igo ditut, baina ez dut gailurra egitea lortu.



NEREA MORTALENA

Nafarrak nagusitu dira Donezteben

Arraiozko Xabier Urrutia eta Iruñeko Alex Fernandez irabazle suertatu ziren abenduaren 22an Donezteben, Ousmane Dramé eta Oscar Perez bizkaitarren kontra jokaturako herri-kirol eta crossfit desafioan. Ezkurra frontoia bete egin zen eta ikusleek maila handiko jaialdia ikusteko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nerea Sorondo garaile Urrezko Kopan

Berako Nerea Sorondok lehen aldiz irabazi zuen Donostiako Urrezko Kopa. 11 minutu eta 34 segundo behar izan zituen 36 ontzako bortz enborrak mozteko, Irati Astondoa bigarren (13:39), Maika Ariztegi hirugarren (14:22); laugarren, Itxaso Onsalo (14:22) eta bosgarren Xanta Sousa (18:53) izan ziren.

HITZALDIAK

ARIZKUN

'Uzta gorria' solasaldia

Xabier Olarra itzultzailearen eskutik.

Medikuaren etxean, ilbeltzaren 14an, 19:30ean.

LESAKA

'Gure seme-alabak harreman onetan hezitzen' hitzaldia

Amaia Vazquez Eguzkitzak eskainia.

Erabilera Anitzeko Aretoan, ilbeltzaren 14an, 17:00etan.

ANIZ

'Jurgi kapitaina, Xabier Gereñoren doblea' hizpide

Koldo Izagirrerekin.

Mendiarte elkartean, ilbeltzaren 18an, 19:00etan.

ELIZONDO

'Hemingway ere beltza zen'

Zinema eta literatura uztartuko dituzte, Gontzal Agoterekin.

Arizkunenean, ilbeltzaren 18an, 19:00etan.

'Hiria eta landa eremuaren trataera nobela beltzetan' mahai-ingurua

Itxaro Borda eta Edorta Jimenezen eskutik. Ana Galarraga moderatzaile.

Arizkunenean, ilbeltzaren 19an, 11:00etan.

'Kezko bola batek itoak birrikak' liburua aurkezpena

Miel A. Elustondoren hitzetan.

'Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua' lanaz solasaldia

Edorta Jimenezek aurkeztua.

'Berriro itzuliko balitz' aurkezpena

Arizkunenean, ilbeltzaren, 17:00etan hasita.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

ESKUALDEA Inauteriak

Eratsun, Leitza, Zubieta, Ituren, Aurtitz, Sunbilla, Aniz, Berroeta... Urtarrilaren 12tik aitzinera.

'Chandlerren alde... edo kontra' irakurketa girotua

Arizkunenean, ilbeltzaren 20an, 19:00etan.

ETXALAR

Sute elkarteko batzarra

Kultur Etxean, urtarrilaren 20an, 10:00etan.

AURKEZPENAK

DONEZTEBE

Solaslaguna egitasmoaren aurkezpén-merienda

Mankomunitatearen egoitzan, ilbeltzaren 16an, 19:00etan.

BERA

Solaslaguna egitasmoaren aurkezpén-merienda

Beralandetan, ilbeltzaren 17an, 19:00etan.

ELIZONDO

Solaslaguna egitasmoaren aurkezpén-merienda

Arizkunenean, ilbeltzaren 24an, 19:00etan.

OSPAKIZUNAK

BERA

XII. Mendi Eguna

Ilbeltzaren 12an.

ERRATZU

Susmagarrien gaua

Ilbeltzaren 19an.

ELIZONDO

San Anton Eguna

Ilbeltzaren 17an.

ZUBIETA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 17an.

LESAKA

San Anton Eguna

Urtarrilaren 20an.

BERTSOA

ERRATZU

Bertso saioa

Alazne Untxalo, Egoitz eta Iker Gorosterrazu eta Xabi Maia.

Zubipunta ostatuan, ilbeltzaren 11n, 20:30ean.

ITUREN

Bertso-bazkaria

Otsailaren 2an, ganbaran.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Begoña Olavide eta Javier Bergia

Ilbeltzaren 27an, 19:00etan.

BERA

Gitarra entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 21ean, 18:00etan.

Haize-instrumentu entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 22an, 18:00etan.

'Leiho bat zabalik'

Kultur Etxean, urtarrilaren 26an, 19:30ean.

Txistu entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 28an, 18:00etan.

Perkusio entzunaldia

Musika eskolan, urtarrilaren 29an, 18:00etan.

AZOKAK

BERA

Bertako ekoizleen merkatua

Rikardo Baroja eskolako arkupeetan, ilbeltzaren 12an, 10:30etik 13:30era.

ERAKUSKETAK

LESAKA

1920-1950 urtetako haurtzaroari begira

Harriondoan, urtarrilaren 20a arte, 18:00etatik 20:00etara.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

BERA XII. Mendi Eguna

Eskalada tailerra, Santa Barbarara igoera, proiektzioak...
Ilbeltzaren 12an.

IPUIN-KONTAKETA**BERA****Amatxiren istorioak**

Liburutegian, urtarrilaren 18an,
18:00etan.

DONEZTEBE**Ipuinen txokoa**

Asteartero, 11:00etatik
12:00etara.

IKUSKIZUNAK**BERA****'Balio magikoak' ikuskizuna**

Kultur etxean, urtarrilaren 27an,
17:00etan.

LESAKA**'Ele, Lauaxeta-Lorca'**

Harriondoan, urtarrilaren 19an,
19:00etan.

IRURITA**'Ni ala zu' antzerkia**

Gizarte Bilgunean, urtarrilaren
13an, 19:00etan.

DONEZTEBE**Zinema emanaldiak**

Haurrentzako eta helduendako
filmak.

Zineman, urtarrilaren 13an eta
23an, 16:30etik aitzinera.

LEHIAKETAK**BAZTAN****Argazki lehiaketa**

BRTren eskutik. Gaia: lohia.
Martxoaren 15a arte, info@
baztanrt.com helbidera.

DONEZTEBE**Indarkeria matxistaren
aurkako I. ipuin lehiaketa**

Liburutegiak antolatua.
Otsailaren 8a arte,
bibliodoneztebe@yahoo.es
helbidera.

ESKUALDEA**Inauterietako argazki
lehiaketa**

ERRAN.EUS atariak antolatua.
Urtarrilaren 20tik martxoaren
22ra, erran.eus atariaren bidez.

Nire aukera

«Inauterietan herria elkartzen dela ikustea ederra da»

GOIZEDER MINDEGIA ERATSUNGO GAZTEA

«Neska alaia eta ahal duen guztietan laguntzeko prest dagoena» da Goizeder Mindegia. «Animaliekin jolastea, familiakoekin egotea, lagunekin ateratzea eta pestaz pesta ibiltzea» du gustuko. Dena dela, lana dagoenean «prest» izaten da. Langilea eta saiaturia da. Orain, esaterako, astez ikasketetako praktikak egiten ari da eta asteburuetan, berriz, toki berean egiten du lan:



«Elizondoko zahar etxean pasatzen dut denbora». Tarterik gelditzen zaionean pestara ateratzeko aprobetxatzen du: «lagunekin irri artean ongi pasatzeko aukera ona da». Bereziki «herrietako pestak, plaza giroa» du gustuko eta laster herriko inauterietan horretaz gozatzeko aukera izanen du: «herria elkartzen dela ikustea ederra da»

gaineratu du: «ostiralean afaria eta larunbatean bazkaria, etxex etxeko kalejira eta afaria izaten ditugu». Eratsundar gaztearentzat momentu politena etxex etxeko buelta da, «etxe bakoitzak magia berezia du eta bertsoen bueltan herritarrek biltzea berezia da. Ez nuke ezerrengatik aldatuko». Gogoak bizi-bizi baditu ere, moztorra pentsatzen ez da hasi oraindik: «laster hasi beharko bestela...». Bi egunotan herrian mugimendua sumatzen den arren, urteko gainerako egunetan «herrian dagoen lasaitasuna eta isiltasuna» bikaina da Mindegiazen ustez. Horretaz gozatzeko txoko politak ere baditu, «Eratsungo antenatik, adibidez, bista ikusgarriak daude». Baina guztiaren gainetik, herritarren arteko hartu-eman sarea nabarmendu nahi izan du: «guztiok elkar ezagutzen dugu eta hori zoragarria da». Den eta dagoen bezala gustuko du herria, baina eskatzen hasita, praktikotasuna eta eskuragarritasuna falta zaiola uste du: «herri ttikia da eta beharrezko baliabideetatik urruti samar dago». Horregatik «herriko gazteak herritik joaten dira» eta, era berean, «inauteri eta bestelako pesta egunetan inguruko herrietako jendeari etortzea kostatzen» zaiola iruditzen zaio. Dena dela, aurtan «ikustera» joateko gonbidapena luzatu nahi izan du: «behin etorrita seguru geldituko direla eta etorri direnak seguru bueltatuko direla!».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

URDAZUBI. Herri sarreran, toki onean, pisua salgai. ☎ 649 21 91 34 / 679 32 81 62.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Eltzeta karrikan garajea errentan emateko. ☎ 628 03 25 58.

LANA

ESKARIAK

ESKUALDEA. Neska bat lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzeko, garbiketan eta ostalaritzan aritzeko prest. Esperientziaduna adinekoak eta haurrak zaintzen, baita garbiketan ere. Prestutasun osoa eta pertsona arduratsua. ☎ 630 36 49 70.

Emakumezko bat lan bila. Adinekoak edota haurrak zaintzeko prest. ☎ 644 78 04 79.

Adinekoekin 10 urtetako lan esperientzia duen emakumea lan bila. Zahar-etxe askotan lan egin, baita osasun mentaleko zentroetan ere eta etxez etxeko zerbitzu batean. Mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta emateko ikastaroa egin. Adinekoen zaintzan orduka aritzeko lan bila. Ez daki euskaraz. ☎ 667 60 26 68.

Haurrak edota adinekoak interna bezala zaintzeko, emakumezkoa lan bila. ☎ 630 27 47 38.

Haurrak edota adinekoak zaintzeko lan bila. Pertsona adinduen zainketan urtebeteko esperientzia. ☎ 631 00 44 58.

Etxalarko neska bat lan bila dabil. Haurrak zaintzen esperientziarekin eta garbiketarako ere prest. Fabriketan eta dendari moduan ibilia. ☎ 687 22 23 20.

Adinekoak zaintzen interna moduan esperientziadun eta erreferentziadun emakumeak lana behar du. Adinekoak edota haurrak orduka edo interna moduan zaintzeko prest. ☎ 666 81 21 13.

Adinekoak zaintzen interna moduan esperientziadun eta erreferentziadun emakumeak lana behar du. Adinekoak eta haurrak orduka edo interna moduan zaintzeko prest. ☎ 666 81 20 56.

Adinekoak zaintzen interna moduan esperientziadun eta erreferentziadun emakumeak lana behar du. Adinekoak eta haurrak orduka edo interna moduan zaintzeko prest. ☎ 644 85 81 34.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

ESKAINTZAK

IGANTZI. Sukaldaria eta zerbitzariak behar dituzte lanaldi osoan aritzeko. Elkarriketa pertsonalak eginen dira. ☎ 666 45 51 24.

IBARDIN. Beola Etxean sukaldaria behar dute. Bidali curriculumak: *beolaetxea@gmail.com*.

MOTORRAK

SALGAI



Seat Toledo 1.9 TDI 110 autoa salgai. Ongi zaindutakoa eta oso

egoera onean. 2003. urtekoa eta 150.000 kilometroekin. Zilar kolorekoa eta engantxe desmuntagarria dauka. ☎ 618 37 38 54.



2014ko **Seat Ibiza** autoa salgai. Oso egoera onean, barnetik eta kanpotik. USB, CD, mp3, esku libreak, Bluetooth, ... 96.800 KM. Gasolina. Bortz ate. Kolore zuria. Konpromisorik gabe ikus daiteke. 7.400 euro. ☎ 690 73 20 56.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,29
- 1.koa 4,07
- 2.koa 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,31
- 1.koa 4,17
- 2.koa 4,03

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 168,00
- Idixkoak 240,00

Aretze nabarrak

- Urruxak 150,00
- Idixkoak 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,32/3,42
- Zaldi-behorrak 1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,40/9,00
- 8-10 kilokoak: 6,60/7,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 46 €

Zerri gizona 1,038 €

Zerramak 0,430€ kg/bizirik


Datu iturria: Nafarroako Gobernua (abenduaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakumeak opari. Ama ehiztari ona. ☎ 652 75 08 17 / 948 61 50 05.



Collie eta artzain arrazen nahasketa den **zakurra** oparitzeko. ☎ 600 03 53 29.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Azaroaren 15ean Toyota markako **kotxeko giltzak** galdu dituzte Donezteben. ☎ 606 37 39 16.

BERA. Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu dituzte Idoia aldean. ☎ 696 83 53 69.

SALEROSKETAK




GOIZUETA. Negozioa itxi delako, haragi hozkailua (bitrina) salgai. Supermerkatuko balda bakar eta bikoitzak eta egurrezko ogi euskarria. Prezio negoziagarria. ☎ 646 71 17 98.



Insa Turbo Dakar 245/70 R16 **lau gupil** salgai. Gutti erabiliak, hagitz egoera onean. ☎ 600 82 77 26.



Tximeneta salgai. Egoera onean eta merke. ☎ 686 54 46 45.



Armairua (201,7 x 241,6) eta **modulua** (58,8 x 81) salgai. Urte batekoak eta oso egoera onean. Etorri eta ikusi. ☎ 676 26 76 88.

KATEA BIKE
2. eskuko bizikletak

MERIDA 29
1200€

BH G5
1000€

SCOTT SCALE 960
800€

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

BERAKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzordearen Akordioa –Hirigintza–

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018ko urriaren 26an egindako bilkuran, 9. poligonoko 421. partzelaren Xehetasun Azterlana –9. partzela, SK2 Sektorea, UE9, Garmendiaundia Karrika 10–, onetsi zuen hasiera batez.

Espedienteia jendaurrean izanen da hogeitai laneguneko epean, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik.

Bera, 2018.12.07

Alkatea, Josu Iratzoki Agirre

HERIOTZAK

- **Martin Lefranc,**
Sarakoa, abenduaren 2an, 84 urte zituela.
- **Mirentxu Tomasena Salaberria,**
Goizuetakoa, abenduaren 3an, 82 urte zituela.
- **Mañoli Loiarte Zubiri,**
Goizuetakoa, abenduaren 4an, 86 urte zituela.
- **Encarnacion Telletxea Ezkurra,**
Eratsungoa, abenduaren 5ean, 92 urte zituela.
- **Maritxu Eskudero Hernandorena,**
Goizuetakoa, abenduaren 5ean, 82 urte zituela.
- **Maria Prieto Roman,**
Elizondokoa, abenduaren 7an, 91 urte zituela.
- **Juan Miguel Ibarra Elizalde,**
Zigakoa, abenduaren 8an, 73 urte zituela.
- **Juan Aginaga Lazkano,**
Arantzakoa, abenduaren 9an, 86 urte zituela.
- **Bautista Aginaga Lazkano,**
Narbartekoa, abenduaren 9an, 84 urte zituela.
- **Txomin Zubillaga Gabirondo,**
Leitzakoa, abenduaren 10ean, 79 urte zituela.
- **Juan Pikabea Altzugarai,**
Lesakakoa, abenduaren 10ean, 86 urte zituela.
- **Jose Luis Santos Capcha,**
Berakoa, abenduaren 11n, 48 urte zituela.
- **Tomas Rekondo Andueza,**
Lesakakoa, abenduaren 12an, 79 urte zituela.
- **M. Dolores Agirre Elzaurdia,**
Berakoa, abenduaren 15ean, 97 urte zituela.
- **Jose Luis Sebastian Martinez,**
Berakoa, abenduaren 16an.
- **Celestina Garcia Etxenike,**
Berakoa, abenduaren 19an, 87 urte zituela.
- **Jose Antonio Apezetxea Zubiri,**
Goizuetakoa, abenduaren 19an, 90 urte zituela.
- **Juan Agirre Irazoki,**
Berakoa, abenduaren 20an hil zen, 86 urte zituela.
- **Fermin Mitxelena Txoperena,**
Lesakakoa, abenduaren 22an hil zen, 44 urte zituela.
- **Jose M^a Garaikoetxea Goienetxe,**
Erratzukoa, abenduaren 23an hil zen, 87 urte zituela.
- **M^a Jesus Rekarte Etxarren,**
Igantzikoa, abenduaren 23an hil zen, 85 urte zituela.
- **Fermin Arroabarren Salaberri,**
Almandozkoa, abenduaren 23an hil zen, 67 urte zituela.
- **Jose Mari Prieto Telletxea,**
Berakoa, abenduaren 25ean, 90 urte zituela.
- **Mari Carmen Telletxea Irigoien,**
Igantzikoa, abenduaren 26an, 57 urte zituela.
- **Serapio Iribarren Iribarren,**
Doneztebekoa, abenduaren 26an, 84 urte zituela.
- **Jose Juanena Iribarren,**
Doneztebekoa, abenduaren 27an, 82 urte zituela.
- **Nemesia Iriarte Huarte,**
Berakoa, abenduaren 27an, 85 urte zituela.
- **Maritxu Ibarrola Zabala,**
Arantzakoa, abenduaren 29an, 94 urte zituela.
- **Isabel Arribillaga Garmendia,**
Etxalarkoa, abenduaren 30ean, 94 urte zituela.
- **Juan Bautista Aleman Saharrea,**
Irurikakoa, abenduaren 30ean, 88 urte zituela.

AVIA
E.S. SANTESTEBAN
Leitzako errepidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

KOTXE GARBITEGIA
ShineTecs®
"KONPONTZE EFEKTUA" duen pintura babeslearekin

> "Acrylionic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

FURGONETA GARBITEGI BERRIA!
2,60 m

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

EZKONTZAK

- **Berling Arturo Mendez Laguna** eta **Skarleth Valeska Pobeda Gomez,** Irungoak, abenduaren 29an Lesakan.
- **Victor Manuel Corral Urbano** eta **Aitziber Santos Gartzia,** Donostiakoak, abenduaren 1ean Igantzin.
- **Eneko Mitxelena Etxeberria** eta **Naroa Loinaz Etxeberria,** Igantzikoak, abenduaren 8an Igantzin.

URTEURRENA

Luis ELIZEGI URRUTIA

Lekaroz, 2018ko ilbeltzaren 24an

I. urteurrena

Zure oroimenak indartzen gaitu, ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Paquita URTIZBEREA ETXABIDE

1944/08/09-2018/01/09

I. urteurrena

Urte bat zu gabe ez da erraza izandu, zure oroitzapenarekin beti bizi baikara gu.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Juan Jose APEZETXEA AROZENA
Mañoli LOIARTE ZUBIRI

Gogoan izango zaituztegu beti



Goizueta, 2019ko ilbeltza

UMORE-ONA ELKARTEA

URTEURRENA

Jose Antonio MAIA TAPIA

Lesakan, 2018ko ilbeltzaren 9an

I. urteurrena

Urak dakarrena urak darama
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Tomas REKONDO ANDUEZA

Lesakan, 2018ko abenduaren 12an, 79 urte zituela

Goizian argi hastian, ene leihogegian txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.

ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

URTEURRENA

Isabel FERRERO IGOA

Bera-Lesakan, 2013ko abenduaren 22an

V. urteurrena

Larrosak dira gorriak edo bertzela xuriak. Hagitzez ederragoak dira neskatiaren irriak.

ZURE FAMILIA

BB
BAZTAN BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO** n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA** n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE** n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU 365 EGUN | **948 48 95 50**
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko


URTEBETETZEAK




Urtarrilaren 19an **Iraide** eta **Garaine Iriarte Petrirenak** jada 10 urte beteko dituzte. Zeinen abudo pasatzen diren urteak. Ongi-ongi pasa zuen urtebetetze eguna eta berendu goxoa prestatu familia guztiari. Muxuak osaba-izebak, lehengusina-lehengusuak, atautxi-amatxi eta gurasoen partetik.



Doneztebeko **Iraide Gogortza Etxeberriak** 5 urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu pila amatxoren partetik!



Enaitz Goñi Iguzkiagirrek abenduaren 24an 8 urte bete ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat denon partetik.



Igantziko **Jon Aranguren**ek 6 urte beteko ditu urtarrilaren 14an. Zorionak eta aunitz urtez zure arreba Haizea, bi amatxi eta gurasoen partetik!



Aurtizko **Naikari Altzuri Mindegia**k urtarrilaren 12an 4 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki Leiane ahizparen partetik. Lau muxu potolo!

KONTATU KONTUAK



Dantzarien hitzordua. Asteartero egiten dute hitzordua Berako Gure Txokoa Dantza Taldearen egoitzan, eta bi taldetan banatuta plaza-dantzak egiten dituzte: muxikoak, polkak... Hasiberriak 18:00etatik 19:30era eta beteranoak 19:30etik 21:00etara. Urteoko azken entseguarekin batera, abenduaren 18an merienda egin zuten eta argazkiko kuadrilla elkartu zen. Giro ederrean ia 50 lagun! Urtarrilean berriz hasiko dira dantza-ikastaroarekin, Mikel Iturria irakasle dutela.

SORTZEAK

- **Goizane Antxordoki Sarasola**, Igantzikoa, azaroaren 9an.
- **Heloïse Libier**, Sarakoa, azaroaren 28an.
- **Egoi Ariztegi Goñi**, Donamariakoa, abenduaren 27an.
- **Ekhi Apezetxea Andueza**, Doneztebekoa, urriaren 27an.
- **Mia Gallego Eratsun**, Doneztebekoa, azaroaren 15ean.
- **Shamira Gimenez Jimenez**, Doneztebekoa, abenduaren 25ean.
- **Oinatz Lizarazu Almandoz**, Lesakakoa, abenduaren 27an.



Gorka Etxarte Abuinek urtea egin du abenduaren 15ean. Zorionak etxekoan eta batez ere Silbiaren partetik.



Zorionak **Koldo!!!** Abenduaren 31n 12 urte bete zenituen eta han izan ginen tarta on bat jaten. Muxussssss.



Enaitz Agesta Petrirenak abenduaren 29an 6 urte bete ditu. Zorionak Berako ataxi, atta, ama eta arreba Izareren partetik. Aupa Altuna!



Goizuetako **Inar Lujanbio Perurenak** urtarrilaren 9an 4 urte beteko ditu! Zorionak familiaren partetik. Segi orain arte bezain alai eta bihurri!



Mikel San Sebastian: berte urte batez elkarren ondoan ez baina bihotzez elkarrekin ospatu beharko dugu. Besarkada beroenak. Maite zaituztegu!




Iraide eta Garaine Iriarte Petrirena eta Ander Petrirena Gorosterrazu Sunbillako hirukoteak urtarrilaren 19an eta 24an 10 urte eta urte bat beteko dituzte. Aunitz urtez familia guztiaren partetik. Ongi ospatuko ditugu urtebetetze egunak. Muxuak hirukote!



Ander Petrirena Gorosterrazu gure etxeko titikiak urtarrilaren 24an urtea beteko du. Aunitz urtez familia eta bereziki ama eta Ibai anaiaren partetik.



Urdazubiko **Izaro Etxegarai Alzuietek** 8 urte bete ditu urtarrilaren 8an. Zorionak printzesa!! Muxuak etxekoan partetik.



Aunitz urtez **Joseba!** Espero dugu zure eguna arras ongi pasatzea 20 urte ez baitira egunero betetzen. Maite zaitugu! Batxilerreko ikaskide pare bat.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Benan, Bortzirietan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea

HEMEN, ZURE ONDOAN
 AQUÍ, A TU LADO

T. 948 05 90 90 izarratanatorio.com

PLAZAN BAZAN

Egilea: Garbine Ubeda (Aiurri)

MARIPURTZIL

PELOZIRI



Maripurtzilek
eta Pelloziririk
ez dute gaur
gauza bat bera
ere ondo egin.
Zer ote dute
buruan?

TXORIBURUAK



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



HITZ GORDEA



Goiko ugaztun hegalar hori saguzarra da, ezta?
Baina euskaldun guztiek ez diote horrela esaten.
G letratik abiatuta, zoaz laukiz lauki,
geziek agintzen duten zentzuan beti, eta saguzarra esateko
beste modu bat aurkituko duzu.

G _ _ _ _ _



F	G	i	M	K	F	L	i	P	U
H	A	S	J	O	A	U	J	A	S
A	K	U	H	F	Z	G	E	Z	U
P	F	P	E	N	i	O	i	T	O
U	J	O	Z	O	A	K	L	N	E
S	i	H	i	R	P	A	S	O	E
E	K	H	A	Z	i	S	F	H	A

Beste bi gautxoriren izenak ere aurkituko dituzu hizki-zopan.
Bila itzazu.

1. _____ 2. _____

ITZALA

Begira iezaiozu txokolatezko
tarta beldurgarri honi.
Zein da bere itzal zuzena?



Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTAPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTAPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttapi.eus | erran.eus

www.ttapitxartela.info

724

aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Gabonetako zozketak

1. saria

Kamiseta bat, Donostiako Aquariumerako
2 sarrera, liburuak eta musika sorta bat
Imanol Irigoien Prieto | ELIZONDO

2. saria

Eureka! Zientzia Museorako 2 sarrera,
liburuak eta musika sorta bat
Maribel Gorosterrazu Elizalde | SUNBILLA

3. saria

Liburuak eta musika sorta bat
Begoña Iparragirre Arburua | ETXALAR

2 liburu



Nire sekretuen zuhaitza + Aitak esan dit
www.ttartalo.eus

2 sarrera



LESAKA
www.lesakakoudalkiroldegia.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

ARKUPE

www.arkupgezotegia.com



Lote bat

MU SI KA



Don Inorrez
Mugiro Bila

LA GUN TZAI LEAK



www.okilletailerraespot.blogspot.com.es



www.martiko.com